buruan zaio ageri,  
bada zerutik amildutako  
izar ederra da ori.

6  
Istante ontan dena esango  
dizut al dedan moduban,  
barren gaxua arkitutzen zait  
penakin iya urtuban;  
zu gabetanik, izar maitea,  
ezin etsi det munduban,  
artu nazazu bara meserez  
betiko zure onduan.

7  
Zu bezelako dama gazterik  
ez nuben uste zanikan,  
zu gabetanik nere biotzak  
ez du egun bat onikan;  
arrats guztiyan etzaitut bara  
kentzen begiyetagikan,  
maita nazazu ez badezu nai  
iltzia zuregaitikan.

8  
Zuregaitikan nere biotza  
daukat aspaldiyan eri,  
orra nolako martiriyua  
eman azten nazun neri;  
erreguz orain eskatzen diyot  
bertatik Jaungoikoari  
nereganatu dezala azkar  
zeruko aingeru ori.

9  
Nere ditxarik aundiyena da  
biyok elkarganatzia,  
baldin da ezpaldin badezu nai  
zugatik miñez jartzia;  
egin nazazu mesere ni ez  
penetan erukitzia,  
bada zurekin ez izatekoz  
naiago nuke iltzia.

10  
Momentutikan eskatzen dizut  
sendatzeko nere miña,  
aspaldiyan erremeioakin  
neronek senda eziña;  
au guztiya da nere biotzak  
zuretzat daukarren griña,  
sendatutzeko barrengo gaitza  
zu bakarrik zera diña.

11  
Nere fortuna mundu onetan  
ez da besterik, maitia,  
gauza klarua biotz barrendik  
komeni zait esatia:  
Jaunaren legez biyok elkarren  
len bañon len egitia,  
egun ontxo bat aukeratu ta  
laister elkartu gaitia.

12  
Desiaturik nago ementxen  
zure baimena aitzeko,  
nere biotzak bat edo beste  
momentutik egiteko;  
nai detan itza aritzen badet  
zurekin naiz ni biziko,  
ezetz esaten banazu berriz  
agur, maitia, betiko!

*1º Julio 1884.*

Esku-idatzian: 8/1: Zuregaitik, nere biotza.

## Donostiko neskatxa gaztien aukera

---

1  
Bertso berri batzuben  
nua kantatzera,  
egi batzuben klaro  
ariyazitzera;  
arkiturikan orain  
ontarako era,  
nai det jende denari  
eman aritzera  
Donostiko neskatxa  
gaztien aukera.

2  
Donostiko neskatak  
ditugu ikusten  
lujo aundiyarekin  
nola diran jazten;  
ipurdi-konkorakin  
dirade ibiltzen,  
ez dute bara oiek  
soldata asko artzen,  
nondikan dute bara  
orrenbeste sortzen?

3  
Batzubetan jantzi bat  
urratutzerako  
egiña dute beste  
bat trukatzeko;  
oiek orren egoki  
erropak jazteko,  
ez dute diru gutxi  
biar erosteko,  
uste det dabilzala  
gu arrapatzeko.

4  
Iñoiz ikusten dira  
neskatxa gaztiak  
kamelluaren gisa  
konkorrez betiak;  
ikustekuak dira  
oien koloriak,  
naiago dute kanpoz  
egon dotoriak,  
naiz arkitu barrendik  
plakiyak botiak.

5  
Elkartzen diranian  
neskatx bat edo bi,  
elkarrekin pasatzen  
dute ordu ta erdi;  
beti gezur kontatzen  
dirade elkarri,  
kontu artubaz andik  
pasatzen danari,  
mumuratzen dakite  
mutill gazteari.

6  
Asko ibiltzen dira  
señora moduban,  
orrelakuak asko  
dirade munduban;  
joaten dira egoki  
nai duten lekuban,  
gero esaten dute  
arro momentuban:  
«Jarri, nagusiya,  
guztiya kontuban».

7  
Edozein dendetara  
lasai joaten dira,  
ta soñak aukeratzen  
ibildutzen dira;  
nagusiyan kontura  
denok jazten dira,  
orrela beren ustez  
baliyatzen dira,  
bañan urte azkenian  
komeriyak dira.

8  
Zenbait komeri dira  
ementxen ageri,  
ara oietako bat  
gertatua neri:  
begira nengoala  
neskatxatxo bati,  
ipurditik zitzaion  
koskor bat erori,  
nondikan sortu zuben  
kontrabandu ori?

9  
Lenguan neskaxa bat  
pasa zan ondotik,  
eta gelditu nitzan  
begira atzetik,  
zer modutakua zan  
ikustiagatik;  
ollarren gisa zeguen  
apaña kanpotik,  
bañan etzeraman ark  
oñetan galtzetik.

10  
Ezin fiyo liteke  
orrelakoakin,  
biar baño geiago  
dabilkitenakin;  
ni beintzat ikarutzen  
naiz neska oiekin,  
naiago det mutill zar  
gelditu beñepin,  
eta ez deskuidatu  
orlako batekin.

11  
Obe luteke oiek  
pixka bat pentsatu,  
eta ez diru denak  
lujotan gastatu;  
nere opiniyua  
orain zer dan aitu:  
txit liso ibillita  
soldata juntatu,  
gero nai baldin bada  
gizona topatu.

12  
Amabi bertsorekin  
nua despeitzera,  
ta bidez leziyo bat  
erakutsitzera:  
utzi zazute bara  
lujuak txokora,  
erremeiatutzeko  
orain da denbora,  
ta nork bere kontuak  
aguro atera.

8 Junio 84.

*Algunos de éstos se publicaron en la Euskal-Erria*  
Esku-idatzian: 3/9: uste det dabilta.

## **Praisku eta Pello (Mozkor biren jolasa gabez)**

---

1  
Pellok:  
–Praisku, mokollu ori  
non arrapatu dek?  
Praiskuk:  
–Arrazoi egokiya  
oraintxen eman dek!  
Pellok:  
–Aizak: lagundutzia  
etxera nai al dek?  
Praiskuk:  
–Mozkorra naguela  
ik pentsatzen al dek?

2  
Praiskuk:  
–Pello, zertan ari aiz  
emen pixa egiten?  
Pellok:  
–Ta ik pakian zertan  
ez nak neri uzten?  
Praiskuk:  
–Bañon sereno ori  
ez al dek ikusten?  
Pellok:  
–Alkatiak ere ni  
ez niok izutzen!

3  
Pellok:  
–Praisku, ez nazakela  
orrenbeste tira.  
Praiskuk:  
–I abill balantzaka  
jira eta bira.  
Pellok:  
–Zergatik bultzatzen nak  
kalien erdira?  
Praiskuk:  
–Orrela baldin baabill,  
laister tirabira.

4  
Praiskuk:  
–Bultzaka ibiltzeko  
al daukak aukera?  
Pellok:  
–Ik bai sasoiz tiratzen  
naukela orrera,  
Praiskuk:  
–Aizak; ez gaitzan sartu  
iñork itzalera,  
obe diagu sartu  
tabernan ostera.  
Pellok:  
Abejondarikala!

*20 Julio 84.*

## Injeniero lagun euskaldunaren agurra eta karta

---

1

Erramun Apaolaza,  
lagun zar maitia,  
askotxo sentitu det  
emendik juatia;  
gertatzen zeranetik  
gu emen uztia,  
eguna iruditzen  
zait dala urtia.

2

Anastasi bat eta  
Sotera bestia,  
irugarrena berriz  
Jazinta gaztia;  
pena artu baidute  
emendik juatia,  
berak esaten dute  
dutela kaltia.

2

Gure ditxa guziya  
genuben ementxen,  
ibildutzia denok  
plazan dibertitzen,  
arku-jiretan berriz  
damak txuliatzen;  
ez giñan elkarrekin  
beñere aspertzen.

5

Zubek zijuaztela  
emendik kanpora,  
Anastasi zan azkar  
atera leiora,  
kamisa utsian azken  
agur egitera;  
negarra frankorekin  
buelta zan ostera.

3

Elkarrekin giñuzen  
emengo aiskiriak  
ziran paregabeko  
gazte dotoriak;  
gustagarriyak ziran  
beren koloriak,  
baziduriten uda  
berriko loriak.

6

Beste bi neskaxa ere  
lo egon etziran,  
musika aritu orduko  
balkoian an ziran;  
zubek emendik juaten  
ikusten oi ziran,  
gero biyak negarrez  
an gelditu ziran.

7

Iñulabarra orduko  
zubetzaz pentsatzen,  
gau guztiyan eztegu  
burutikan kentzen;  
aiskide oietara  
geranian biltzen,  
zubek gabetandikan  
triste gera ibiltzen.

8

Beti gaude guztiyak  
zubek bueltatu zai,  
elkarrekin berriro  
ibiltzeko lasai;  
zubek gabetanikan  
ez degu izan nai,  
buel tako ote zeraten  
esan gaituzu (Ramon:) bai.

*Enero 84.*

## Neska zar bati

---

1  
Bertso berri batzuben jartzeko  
neukan aspaldiyan griña,  
argatikan nua egitera  
nere ustez alegiña;  
famatu nai det gure auzoko  
neska zar mutur zikiña,  
zapua bañon itxusiyoko  
sorgiñaren erregiña.

2  
Oso lizundurikan or dago  
zokuan txit pozoituba,  
Akelargo sorgiñaren tatxa  
dauka aspaldi artuba;  
bere jeniyo estubarekin  
dago txit ernegatuba,  
neska zar gelditutako pena  
dauka animan sartuba.

3  
Norbait arrapatuko zubela  
berak pentsatuzten zuben,  
bañon alde guztiyak jirarik  
iñor billatzen etzuben;  
orren itxurak gazte guztiyak  
ikaratuzten zituben,  
sorgin marama lizundu ori  
zeñek artu naiko zuben?

3  
Bere gisako sorgiñarekin  
egunero da juntatzen,  
eta zokorik zoko ibiltzen  
dira baztarrak miratzen;  
gerora berriz egoten dira  
jendiari kontu artzen,  
sorgiñ marama deabru oiek  
eztitu ezerk izutzen.

5  
Sugurra dauka izugarriya,  
diruri atxur kirtena,  
kokotzak berriz ikaratzen du  
Donostiko jende dena;  
ille zimurra, begi zartubak,  
gorputza berriz sei kana,  
begiratu batian diruri  
Akelarko kapitana.

6  
Begiratuzten diyotanian  
nonbaitetikan berari,  
lendabiziko kokotza eta  
sugurra zaizka ageri;  
mutill kozkorak ibiltzen dira  
burlaka neska zarrari,  
zakurrak ere pixa egiten  
diyote bere gonari.



7

Ortzak ederrak agertzen ditu  
abua zabaldutzian,  
miña egiteko zoriyan jartzen  
naiz ni begiratutzian;  
bizarra berriz zuri-zuriya  
asi zaio kokotzian,  
gauza onaren jabe egiten da  
bat oso neska zartzian.

8

Zortzi bertsotxo abekin orra  
eman nik errematia,  
eta nai nuke, dama gaztiak,  
aben berri jakitia,  
gizontxo bana billaturikan  
elkarturik ikustia;  
animaliyik itxusiyena  
da neska zar izatia.

*Enero 85*

*Publicado en La Brecha*

Esku-idatziak: 8/5: gizontxo bana  
billaturik.

# Dama gazti adi consejua

1

Bertso berriyak jartzeko neuka  
aspaldinetan gria  
argatikan nua egintera  
nero ustez alegia  
famatu naidet  
gure auroko  
neskazar mutur zikina  
zazua baña ichiriyoko  
sorginaren erreguina.

2

Dana lizendurikan ordago  
zokuan chit pozoituba  
akelafa sorginarentacha  
dauka aspaldi artuba  
bere jeniyo estubarekin  
dagö chit ernegatuba  
neskazar gelditutako pena  
dauka animan sortuba.

3

Sudurra dauka izugarriya  
diruri achur kirtena  
kokotsarekin ikarazendu  
Donostian jende dena  
ile zimura begi sartubak  
gorputza herriz zaidana  
begiratu batian diruri  
akelarre kapitana.

4

Norbait engañatua zubela  
berak pesatuzen zuban  
baña baztar guziyak jerario  
iflor bilaren izuben  
orren iehurak garteguziyak  
ikaratuoren zituben  
neskazar lizandutakuori  
zenek artu naiko zuben.

5

Begiraturen diyotanian  
nunbatetikan berari  
lendabizio sudurra eta  
kokotza zaizka aguri  
mutri koskorrak ibilzendira  
burlaka neska zartari  
zakurraka ere pisha egiten  
diyote bere gonari

6

Arpegi zimur lepua mia  
milla tacha gorputzian  
desmayatuta gelditutzenaiz  
ari begiratuozian  
bizarra ere zuri zuriya  
asizayo kokozkan  
gauzaonarin gabe egitenda  
bat oso neska zarzian.

7

Zazpi berzecho abekin orra  
ezan nik errematia  
eta nai nuke dama gaztiak  
aben berri jakitia  
gizoncho bana billaturikan  
elkarturik ikustia  
animaliek ichusiyena  
da neskazar geldicia

Imp. R. ALFONSA. - San Sebastián

58 orrialdeko bertso-sailla, kanta-paperetan.

# BERTSO BERRIYAK



## BAUTISTA BASTERÉTXE

1

Bautista Basteretxe  
Mutiko pijua  
Neri gurdi ardatza  
Neri gurdi ardatza  
Ostata dijua.  
Beltzak eta txuriak  
Izango dituzu  
Neri gurdi ardatza  
Neri gurdi ardatza  
Ezpadakardazu.

2

Gurdi ardatza ezik  
Itai ta aria  
Bosteren bear gabe  
Badaukat neria,  
Sega, poto, labana  
Gañera bostortza  
Periyan eresia  
Daukat nik zorotza.

3

Nere idi pareak  
Dauka zintariak  
Lepotikan zintzilik  
Zildaian jariak  
Gañera uztafiak  
Ta kopetakoak  
Ontz ure gori gotiz  
Erositakoak.

4

Zeronek naiko gauza  
Dezula diouzu  
Banan gurdi-ardatza  
Lapurta didazu  
Ordaindu bear dezu  
Larutik ederki  
Ardatza epepeduz  
Erakartzen aurki.

5

Buru-gogofak bada  
Berekin kaltea  
¿Er tekin gauza nola  
Naidozu ematea?  
Zentzuak galdurikan  
Arkitzen zerade  
Bestela beintzat orla  
Ariko etzifake.

6

Gezur ta abar zabilza,  
Batxi iruzurean.  
Zu bezit gezurtirik  
Erta Euskalerian.  
Zure beti dakite  
Non nai diradonak.  
Gordetzen dituzula  
Gauza besteranak.

360 orrialdeko bertso-sailla, kanta-paperetan.

## Donostiar bat bere erriyan

---

1  
Donostitikan alde eginda  
egondu naiz txit aparte,  
Habanan eta Montevideon  
egin ditut zenbait urte;  
nere biotzak eta animak  
ekarri arazi naute,  
Euskal Erriyan sartu naiz eta  
ez naiz irtengo ill arte.

2  
Gustagarrizko paraje asko  
badira kanpo oietan,  
Montevideo, Habana eta  
Buenos Aires aldietan;  
naiko tokiya miratu arren  
zenbait urtetxo abetan,  
Euskal Erriya bezelakorik  
eztet arkitu bestetan.

3  
Montevideon ikusi ditut  
kanpuak eta ibaiyak,  
gañera berriz baso, zelaiak  
ta lur-itsaso aundiyak;  
alaz guztiyaz gauza geiago  
ditu gure alderdiyak,  
Euskal Erriyak sendatzen ditu  
andik datozen guztiyak.

4  
Arriturikan sartzen naiz emen  
kanpotikan etorrita,  
nere erriya ote dan ezin  
xinisturikan jarrita;  
auxen da bada ederra eta  
begiragarri polita,  
ezin obia sortu liteke  
berriz egiten asita.

5  
Alde batera begiraturik  
daukagu edertasuna,  
izugarrizko alegrantziya  
eta zoriontasuna;  
kanpuan ontaz oroiturikan  
sortzen da tristetasuna,  
Euskal Erriya, zu zera neri  
miña sendatzen nazuna.

6  
Gogo aundizko begiratua  
egin diyot erriyari,  
alde batetik abiyaturik  
besterañoko danari;  
alde guztiyan edertasuna  
besterik ez da ageri,  
ezin aspertu liteke iñor  
begira egotez berari.

7  
Denborarekin arkitu ditut  
lengo etxe emenguak,  
bill-bill egiñik oñian dauzka  
kontu aundiz gazteluak;  
konbentu bi ta eliza biyak  
erre gabe geratuak  
bakar-bakarrik ditut arkitu  
nik emen lenagokuak.

8  
Lengo denboran ziran bazterrak  
ustez ziran ezerezak,  
baña denboraz egin dirade  
emen lanak ez errezak:  
arboldegiyak, etxe alaiak,  
kale zabal eta plazak,  
miragarrizko pauso lekuak  
eta gañerako gauzak.

9  
Murall aundiyak len erriyari  
ziranak kontu artutzen,  
gutziz lurperaturik gaur etxe  
berriyak dira agertzen;  
ikusgarrizko loretokiyak,  
plaza ederrak ementxen,  
etxe oiekin batian dute  
erriya oso apaintzen.

10  
Kanpotik etortzen diran asko  
mintsuak oso auldurik,  
berialaxen jarritzen dira  
Donostiyan pizkorturik;  
ur gaziya zko mañuak eta  
aize ederrak arturik,  
beren errira itzultzen dira  
biyotz guztiya pozturik.

11  
Negar malkuak irtentzen zaizkit  
neri pozaren indarrez,  
ikusirikan nere erriya  
betia gauza ederrez;  
urrezko bola dirudi goitik  
amildutakua berez,  
onen onduan beste guztiyak  
zer dira bada? Ezer ez.

12  
Zori oneko erri maitia,  
gutziz estimagarriya,  
mintsu guztiyen baltsamua ta  
euskaldunaren kabiya;  
paregabeko perla ederra  
gutziz begiragarriya,  
bedinkatua izan dedilla  
beti-beti Donostiya!

Agosto 85,

*Publicado en la Euskal-Erria, el 30 Enero de 1886.*

*Copiado de la Euskal-Erria: «Publicamos con el mayor gusto esta composición que revela las felices aptitudes que posee su autor, el joven Dn. José Artola, hijo de nuestro estimado colaborador y amigo el conocido poeta y fabulista Dn. Ramón, cuyas tradiciones esperamos ha de seguir con éxito su mencionado sucesor».*

## Juan Jose Santesteban-i Oroimena

---

Juan ziñala zu, gure maisuba,  
utzirik Euskal Erriya?  
A zeñen benaz betetzen zaiten  
negarrez nere begiya!  
Joan ziñan, Jose, zerubetara  
osto ederrez jantziya,  
sori oneko izan ziñana  
Euskal Erriko graziya,  
serafin eta aingeruari  
ariyaztera neurriya,  
nekea prankoren tartian zuk  
tatxarik gabe jarriya,  
erakustzalle paregabia,  
soñu sortzalle aundiya,  
toki denetan maitatutako  
euskaldun maitagarriya;  
bañan etzera sekulan ilko,  
ara zure sorterriya  
nola ari dan oroimengarri  
ipintzen koro berriya.

11 Octubre 1885.

Olerki edo bertso au *acróstico* bat da. Lerro bakoitzeko leen izkia artu eta goitik beera joanda, *Juan Jose Santesteban-i* irakurriko degu. Baiña oker bat du: Ez du *zori oneko* idazten, *sori oneko* baizik, goitik beerako irakurketa ortan *Jose* ager dedin, eta ez *Joze*.

## Erregeak

---

Iru Errege dira  
presaka ta larri,  
amaidu egunian  
Belena etorri,  
adoratziagatik  
Jesus Jauna sarri,  
Birjiña Amagandik  
mundura dan ori.

*Diciembre 1885.*

## Karidadeko Arrebak

---

Castelar-ek esana da  
Karidadeko Arrebak  
dirala eta izango  
aingerutxo lurekoak.

Miserikordiyetan diraden arrebak,  
guzti-guztiyak dira pobriaren amak;  
izugarriyak dira oien biyotz onak,  
ta estimagarriyak beren obra denak.  
Ez ditu ikaratzzen egundaño lanak,  
baizik beti gustora egiten dianak.  
Oiek dira munduban portatzen diranak!  
Zeruratu ditzala gure Jesus Jaunak.

*Enero 1886.*

*Publicada en La Semana Católica,  
el día 28 Setiembre de 1890.*

## Lagunkidedi<sup>1</sup> on bat

---

1  
Edertasun aundiko  
lagunkidedia  
Donostiyan jargoitu  
dute dotoria;  
ezin sortu liteke  
beste bat obia,  
or erakusten dute  
Jaunaren legia,  
eratsiyaz denari  
bear dan fedia,  
amatzat artu degu  
guk Trinidadia.

2  
Lagunkidedi on au.  
moldatzen zan asi,  
Jaunari eskatubaz  
graziya lenbizi,  
zezan pekatariya  
sendatu arazi,  
eta fede santua  
denari eratsi;  
gauza onak dizkigu  
guri erakutsi,  
ori ez bazan izan  
gu nolatan bizi?

3  
Buruzbide aundiyak  
bazituben artu,  
eta pentsamentuba  
askotxo nekatu,  
etzitzaion ala ere  
lanari barkatu,  
baizik azkar zituben  
denak menderatu,  
gero agrakori<sup>2</sup> bat  
zuten bertan sortu,  
eta obispo jaunak  
zuben ontzakaitu<sup>3</sup>.

4  
Jaun batzubek ziraden  
gugatikan asi,  
zortzien bat zituzten  
billatu lenbizi;  
gero genubenian  
gauz ona ikusi,  
sartu gabe egotiak  
etzuben merezi;  
bertan sarturik guztiz  
ondo gera bizi,  
eta gauza ederrak  
ditugu ikasi.

---

<sup>1</sup> Sociedad. (Egillearen oarra),.

<sup>2</sup> Reglamento. (Id.)

<sup>3</sup> Aprobar. (Id.)



5

Onera sartu dira  
txartxoak ziranak,  
erropa moduan len  
bizi oi ziranak;  
bide zuzenian beñ  
jartzen etziranak,  
justubari burlaka  
ibiltzen ziranak,  
bada utzirik beren  
okerbide lenak,  
zuzenekoan ditu  
zaintzen Jesus Jaunak.

6

Jaun batzuben jakinik  
beste askok aña,  
arkitu zuten arbol  
onenaren zaña;  
denari igarriyaz  
neurri eta maña,  
guk ere artu nairik  
berari tamaña,  
prest gaude egiteko  
denok alegiña,  
asko egiten gauza  
ez gerade baña.

7

Etxe santu maite au  
nola duten sortu,  
berealaxe gera  
bertan zenbait sartu;  
biotzak poztu eta  
animak sendatu  
zaizkigu, geralako  
fedian sendotu,  
bada gaur naigo degu  
lenbizi urkatu,  
eta ez artu degun  
bidea ukatu.

8

Egun eta berrogei  
pasiak bagera,  
sarturik gaudezenak  
lagunkidedira;  
zernai gauzetarako  
daukagu aukera,  
eskola ere ikasten  
bertan ari gera,  
anaiak bezelaxe  
konpondutzen gera,  
ez daukagu damurik  
sartuba onera.

9

Lagunkidedietan  
onenetakua  
bada au Donostiyan  
dagonetakua;  
pezta bi pagatzen da  
pagu illekua;  
iñor gelditzen bada  
miñez bertakua,  
pezta bat anparua  
badu kajakua,  
libre dauka botika  
eta medikua.

11

O Ama txit laztana,  
Birjiña Maria,  
izar dizdizaria,  
parerik bagia;  
zeru eta lurreko  
denaren jabia,  
aingeruen Erregiñ,  
anparo guria,  
eskatutzen dizugu  
graziya zuria,  
beti bizi dediyen  
Lagunkidedia.

10

Kristau euskaldun denak,  
atozte onera,  
erlijjiyo santua  
gogoz ikastera,  
fede santua zer dan  
ondo ikustera,  
eta barren mintsua  
pozkiatutzero;  
atozte bada bide  
onetan jartzera,  
ez zuazten betiko  
anima galtzera.

Bertako bat.  
*20 de Febrero 86.*  
*Publicado en La Brecha.*

## Artza eta gu

---

1

Artzaren kondaira  
zeñek jakin nai du?  
Beriala dan gisan  
kontatuko degu;  
zazpi urte Afrikan  
igaro ditugu,  
ta au arrapatuta  
onuntz dakarkigu.

2

Au ezin ezirikan  
ibildu gera gu,  
baño nolabait ere  
menderatu degu;  
bizkarra berotubaz  
baitegu umildu,  
orain atzaparkarik  
botatzen ez digu.

3

Robinson du izena  
animali zarrak,  
ez du ikaratutzen  
au batek bakarrak;  
baño gure makilla  
motzaren indarrak  
gorde arazten dizka  
bere atzaparrak.

4

Gauza asko dizkagu  
erakutsi emen,  
Afrikan etzekiyen  
orrelakorik len;  
orain daki dantzan ta  
panderua jotzen,  
eta ez da batere  
ezertan lotsatzen.

5

Maia serbitzen ere  
guztiz ondo daki,  
fallorikan ematen  
beñ ere ez daki;  
bi ankian jarririk  
polliki-polliki,  
janariya ekartzen  
digu txit ederki.

6

Beste askotan berriz  
gu etxeratzen  
kontuan gelditzen da  
atien atzian;  
umill egoten da txit  
gu luak artzian,  
eta zurrungaz gaitu  
esnatzen goizian.

7

Baldin janari gutxi  
ematen bazaio,  
arrantzaka asten da  
izugarri iaio;  
baño makillazuak  
ematen zaizkiyo,  
eta tripa ederki  
gurututzen zaio.

8

Onen erraziyua  
daukagu jakiña:  
nai du aragi asko  
eta oso fiña;  
bañan guk ezin degu  
sortu onen diña,  
aiskide bearko da  
egin arakiña.

9

Sartutzen bagerade  
tabernen batera,  
gurekin batian da  
sartutzen bertara;  
abiyatzen bagera  
gu zer bait jatera,  
nai du berari ere  
jartzia platera.

10

Fumatzen ere berak  
oso ondo daki,  
ez du iñork erretzen  
onek beziñ ongi;  
bestek eman ezkeru  
tabakua oni,  
egunian erreko  
lituke kintal bi.

11

Eran kontuan ezta  
biziru eskasa,  
eraten daki gogoz  
eta lasa-lasa;  
tinakua betia  
jarrira're aisa  
ustuko du aguro,  
baldin bada beltza.

12

Erriz erri gerade  
etorri onera,  
gure Robinson jauna  
erakutsitzera;  
orain guaz Parisko  
Exposiziyora,  
saririkan onena  
irabazitzera.

*27 Febrero 1886.*

Iñauteriyetan irten ziran Rafael anka-motza artza jantziyan; bestiak Afrikako soñekin, Donostiyan. (Egillearen oarra).

*Publicado en La Brecha.*

## Bilintxen esaera bat

---

Loreziyo kaleko  
kantoi-kantoyian  
anai-arrebak ziran  
elkartu batian;  
arrebak igarririk  
zeukala ark dirua,  
eskatzia zitzaion  
etorri burura;  
esan ziyon frantzesez:  
«Donemua le artxan».  
«Ua nere boltsara  
eta andik artzan».

*Mayo 3 de 1886.*

## Bi dama

---

1  
Ederki jantzi eta  
gañera txukunak  
zerate, txinistatu,  
maitetxo kuttunak;  
gorputz torniatubak,  
grazi ederdunak,  
arrosaren gisako  
kolore legunak,  
abo borobill, ortz fiñ,  
gustoko iztunak,  
zubek ikusitzian  
arriturik denak  
gelditzen dira zuben  
aurrian lagunak,  
mutill gazte, lirañak  
eta dirudunak.

2  
Izen polita dute  
zuben meseriak,  
bataiatzera joan ta  
elizan pariak;  
zerate langilliak,  
oso dotoriak,  
Donostiyan iñoren  
enbiri gabiak;  
zubek dakizkitzute,  
zubek, laboriak,  
naiz dala Maria ta  
berdin Liboriak;  
ezin arki litezke  
beste bi obiak,  
ta gañera zerate  
biyotzez nobliak.

3  
A zer begi ederrak  
dituben Mariak,  
neskatxa gazte, liraiñ,  
tatxarik gabiak;  
dira kristala bezin,  
ai!, dizdizariak,  
baldin begira jartzen  
badira neriak,  
itzaldu ta lajatzten  
dizkitet beriak,  
argitasun aundiko  
oso dotoriak;  
zubek zerate, zubek,  
udara loriak,  
parerikan gabeko  
mirabe ariak.

4  
Mari, sinistra nazu  
esan nai detana,  
mesedez neri adi-  
tu nazazu dana:  
oso txoraturikan  
nago zuregana,  
belauniko jarriyaz  
zure aurrez, dama,  
esan zaidazu ea  
non bizi dan ama,  
joan nediye segiran  
ni berarengana,  
eskua eskatzera  
zure izanena,  
senda zaidatan biyotz  
miñez daukatana.

*Mayo 1886.*

## Joakinaren egun bat

---

1  
Nagusiyak joanikan  
erromeriyara,  
oker ez baldin banaiz,  
noski Parisara,  
guri ere etorri  
zitzaigun denbora  
irtetzeko pixka bat  
egunez kanpora.

2  
Larunbatakin ziran  
emendik atera,  
kotxia zitzaioten  
etorri atera;  
senar ta emaztia  
sarturik bertara,  
goizeko amaiketari  
joan ziran trenera.

3  
Gure biotza laister  
bizirotu zana,  
bati loteri ona  
erortzen dan gisan.  
Pozkida aundigorik  
guretzat zer izan?  
Deus ez, zergatik elkar  
bat-tzeko gebiltzan.

4  
Igandia zan urren,  
ai ura eguna,  
sekulan orlakorik  
izan ez deguna!  
Eguzki ederra zan,  
aize fin, laguna,  
osasun edertzalle,  
aztuko etzaiguna.

5  
Jaiki ta lenbizi joan  
gñan elizara,  
andik irten ta gero  
esnia eratera,  
fidandea<sup>1</sup> aundiko  
baserri batera,  
Loiolako alkate  
jaunaren etxera.

6  
Arratsaldia ere  
ederki pasa zan,  
batzubek pasiatzen,  
bestiak jolasan;  
emakumiak gero  
oblatetan ziran,  
gu berriz zizarrian  
Atari-ederran.

---

<sup>1</sup> *Confianza*. (Egillearen oarra).

7

Arratsa ere noizbait,  
izanik denbora,  
iritxi zan eta joan  
giñan teatrora;  
guztiyak egon giñan  
biziro gustora,  
orrelako gauz onik  
eztet nik gogora.

8

Teatrotik irten ta  
guztiyak batian  
sartu giñan Marinan  
oso goiz artian;  
esnia ta zerbeza  
arturik pakian,  
despeitu giñan denak  
umore onian.

*16 Mayo 1886.*



## Ama falta

---

1  
Ai au bakardasuna  
gañera tristura  
arkitzen zaizkidanak  
sarturik petxura!  
Nere biotz gaxua  
oso illundu da,  
ama jua zaitalako,  
bai, beste mundura.

2  
Ama bat nuben eta  
orain bat ere ez,  
nere begiyak malkoz  
estaliyak daudez;  
biotza ere daukat  
biziro negarrez,  
urratzeko zoriyan  
penaren indarrez.

3  
Munduban dan bitartez  
famili guztiyak  
izaten ditu egun  
biziro eztiyak;  
baña faltatzen badu  
zimendu loriyak,  
goitik bera erortzen  
dira familiyak.

4  
Ama bañan oberik  
munduban al dago?  
Ezer ere ez dala  
igarriya nago;  
familiyan burutzat  
ipiñiya dago,  
arrek paltatzen badu  
gauz onik eztago.

5  
Arkitzen naiz tristura  
ikaragarriyan,  
ama pentsamentura  
dakartan guziyan;  
egun bat onik ez det,  
nago aspaldiyan  
penaren kargarekin  
mintzeko zoriyan.

6  
Nola ez naiz egongo  
penarekin miñez,  
biotza arki bazait  
oñaze samiñez  
betia ta dardara  
sufritu eziñez?  
Penak zoratuko nau,  
esaten det ziñez.

7

O zenbat aldiz gora  
begiraten detan,  
nere ama bein ere  
agertzen ote dan!  
Baña alaz guztiyaz,  
egon arren ontan,  
begiyak jartzen zaizkit  
itzaldu ta lotan.

8

Jaunari eskatutzen  
diyot bertatikan  
ez dezala mugitu,  
ez, zimendurikan;  
baizik graziya emanik  
berak zerutikan,  
gorde dezazkiyela  
luzaro zutikan.

Maiatzian, 21-ean.  
Euskal Erria, 30 Nov. 1915.

## Sagarra eta sagardua

---

Lore ederra mundura zera  
osto tartian etortzen,  
arbol-adarrak zintzilik zaitu  
gustora ongi azitzen;  
denborarekin gorputza zaizu  
txit borobilla gelditzen,  
aize, eguzki eta eudiyak  
zaituztelako mantentzen.  
Baño gerora gerriyetatik  
asitzen zera sentitzen,  
eziñ egonak dituzu eta  
indarrak zaizkitzu aitzen;  
ala gertatzen zeran denboran  
ama arbolak utzitzen  
zaitu, orduan golpez lurrera  
amilka zera erortzen.  
Lurren gañean gelditzen zera  
neke ta penak sufritzen,  
ikusitaren trantze txar ortan  
zutaz ez dira kupitzen;  
usteltzeraño etortzen zera,  
mundubaz dezu etsitzen,  
orduban zutzaz oroiturikan  
noizbait zaituzte jasotzen.  
Jaso zaituzte eta gerora  
zer da zurekin gertatzen?  
Borrero oiek, bai, sententziya  
iltzeko dizute sortzen;

presondegi zar aundi batera  
bultzaka zaituzte sartzen,  
mazoz zanpatuz gorputz guztiya  
dizute bertan urratzen.  
Izerdi odol daukazkitzunak  
azkar dizkitzute kentzen,  
azal utsera biurtu arte  
guztiyak prentsan estutzen  
aritzen dira; eta nola zu  
txetuba zeran gelditzen,  
geiago sufri eziñik zera  
martirizatuba iltzen.  
Zure bertute, da esatea,  
zumoaz zaizuna biltzen,  
zulo batean, au da kupela,  
ondo zaituzte gordetzen;  
juizioko eguna ere  
noizbait zaizu iritxitzen,  
eta mundura bigarren txandan  
piztuba zera etortzen.  
Ai zeñen gauza ederra eta  
garbiya zeran azaltzen,  
euskaldun denok zureganuntza  
pozkidaz gerade biltzen;  
bakoitzak bere aldetik milla  
esker dizkitzu ematen,  
gerora zure zumo gozoa  
gustora degu eraten.

*Junio 12, 1886*

*Publicada en la Euskal-Erria, 10 setiembre de 1886; en La Unión Vascongada, 25 de julio 1893; La Vasconia de Buenos Aires, 30 setiembre de 1894; Eco de la tarde, 10 junio 1908; Pueblo Vasco, 3 diciembre 1917.*

## Santa Febronia martiria

---

1  
Jaungoikoari eskaturikan  
argitasuna lenbizi,  
Febronia santen bitizta nai det  
jendeari ariyazi;  
mundu onetan jaio ezkeru  
zer modutara zan bizi,  
gañera gloriya zeruetan  
nola zuben irabazi.

2  
Dioklezianon kaltarrai<sup>1</sup> denboran  
irugarren gizaldian,  
fedea indartzeko jaio zan  
Sibapolis-en Sirian;  
bakartegi<sup>2</sup> bat zan monjak bizi  
zitezen penitentziyan,  
berrogei eta amar baziran,  
ziranak fede biziyan.

3  
Monja guztiyen agintariya  
zuten jarriya Briena,  
edadez oso aurreratua,  
errespetagarriena;  
illoba bat zan an berarekin,  
au da izenez Febronia,  
emezortzi urteko aingeru  
fama ezin litekena.

4  
Iru urte zitubela sartu  
zuben izebak bertara,  
Jesu-Kristoren etxe santuan,  
bakartegi orretara;  
izebak oso maitia zuben  
bildotx mantxo biotzbera,  
edertasunan bazirudiyen  
Ama Birjiña ber-bera.

5  
Gaztetandikan artu zuben ark  
Jesus maitia senartzat,  
au bakarrikan ark maite zuben,  
oberik etzan arentzat;  
kontsagratzeko botu artu (sic)  
zuben betiko beraentzat,  
mespreziyua mundu ontako  
edertasun denarentzat.

6  
Izugarrizko penitentziyak  
pozez egiten zituben,  
urteak zuben egun geienak  
barau zituben izaten;  
askotan zan deus progatu gabe  
bi egunian egoten,  
lotara berriz erroparekin  
lurrera oi zan etzaten.

---

<sup>1</sup> *Persecución.* (Egillearen oarra).

<sup>2</sup> *Monasterio.* (Id.)

7

Bakartegiko monja guztiyak  
onekin ziran arritzen,  
ikusirikan onek zubela  
gauza geiegi sufritzen;  
bere burua zuben txit gogor  
indartsu illerazotzen,<sup>3</sup>  
alaz guztiyaz edertasuna  
geigo zitzaion azitzen.

8

Askok jakiñik nola bizi zan  
Febronia konbentu ortan,  
itz egin naia izaten zuten  
denak berekin an bertan;  
baña birjiña onek etzuben  
itzik egin nai iñontan,  
baizik beti izan beillaria<sup>4</sup>,  
gordea lau paretetan.

9

Emakume bat katekumena,  
izena zuben Ibiera,  
itz egin eta ezagutzia  
nai zuben bada diena;  
billatu zuben agintariya,  
au zan izeba Briena,  
belaunikaturik eska ziyon  
uzteko sartzen barrena.

<sup>3</sup> *Mortificar.* (Id.)

<sup>4</sup> *Peregrina.* (Id.)

10

Ainbesteraño ikusirikan  
desioz emakumia,  
esan ziyon utziko ziyola,  
baña bestela jantziya;  
kanpoko monja balitz bezela  
oso egoki jarriya,  
sartu zan eta billatu zuben  
desio zuben guziya.

11

Febroniak beregan artu zuben  
biziro modu onian,  
izketan ere prest asi baitzan  
erlijioen gañian;  
Ibiera zebillen ezkontzeko  
laister bigarren aldian,  
baña prest damu arazi ziyon  
oni adi ziyonian.

12

Azkar zuben onek gonbertitu  
Ibiera katekumena,  
berialaxe bataiatu zan  
bera ta pamili dena;  
amoriyua sortu zitzaion  
sutsuba Jesusengana,  
mundu ontatik gordeta bizi  
izandu zan oso dana.

13

Au gertaturik gero izan zan  
bitori aundigokoa,  
biziro gaizki miñ sendoakin  
arkitzen zala gajoa;  
denbora ontan jakindu zuten  
Siriako jaun prefektua  
bere osaba Selenorekin  
zeterrela txit sutua.

14

Abek ziraden kristaben kontra-  
ko agintari gaiztuak,  
enperadoreak ordenakin  
an bertara bigalduak;  
kristau iltzera azaldu ziran  
odolak txit berotuak,  
Elizaren seme denak jarri  
ziraden ikaratuak.

15

Obispo jaunak ikusirikan  
zer gertatzera zetorren,  
agindu zuben al zan lekura  
aldendutzeko lenbailen;  
monja guztiyak ikaratuta  
estura larriyan zeuden,  
al zuten denak al zan lekura  
konbentutik ziran irten.

---

<sup>5</sup> *Resolución*. (Id.)

<sup>6</sup> *Lograr*. (Id.)

16

Agintariyak –au da: Briena–  
illoba gaztearekin  
gelditu nai izan zuben bertan  
fedea indartsuarekin;  
martiriyua logra nai zuben  
izebak bertan beñepin,  
Jaungoikoari eskatzen ziyon  
bere indar guztiyak.

17

Buruan illobaren kontua  
besterik etzebilkiyen:  
«Zer egingo du nere illobak?»  
beti au esaten zuben;  
santa gazteak ausartzia<sup>5</sup> txit  
sendoa artu baizuben,  
eta esan ziyon izebari:  
«Au egin bear det emen.

18

Nere senarra Jesukristoren  
lagundedi onarekin,  
Ama Santisima Birjiñaren  
anparo aundiyarekin,  
Erredentore Salbatzallien  
grazi paregabiakin,  
iritxitzia<sup>6</sup> nai detan dena  
errez nezake nik egin.

19

Sakrifiziyo biyotzarena  
eskeñiya aspalditik  
daukat, orain bizitza nereaa  
eskeintzen diyot bertatik,  
Zer gloria eta ditxa geiago  
espera nezazkike nik  
Jesukristorentzat nere odol  
dena ixurtzia baizik?».

20

Arriturikan laja zituben  
an arkitutzen ziranak,  
egin zituben itz gozoakin  
fedea aundiko kristauak;  
bestiak segi nai zuten baña  
ezin lagundu barrenak,  
esan bezela al zan lekuan  
gorde ziraden dianak.

21

Lisimako zan prefeto Antimon  
seme ogei urtekua,  
onek osaba zuben Seleno  
oso biyotz gaiztokua;  
enperadore Dioklezianok  
zuben oso maitatua  
Lisimako, ta nonbratu zuben  
prefeto Orientekua.

22

Laguntzalletzat eman oi ziyon  
bere osaba Seleno,  
kristabaren kontrako gogorra  
zalako orain ta leno;  
bañan Lisimakok bere ama  
kristaba izanik sano,  
berak agindu nai ezik zuben  
ipiñi lengusu Primo.

23

Palmiran lenengo agindea  
enperadoriarena  
kunplitu zuten sarturik denak  
krueldadian barrena;  
Seleno jauna jarririk buru  
ango tropa guztiyena,  
agindu zuben iltzeko kristau  
arrapatzen zan diana.

24

Aguro bertan ziran jentillak  
juan ziran Selenongana,  
esatera bazala konbentu  
aundi bat kristauarena;  
au aditurik bigal zituben  
gudari asko bertara,  
esanik ate denak autsi ta  
sartzeko azkar aurrera.

25

Esan bezela, autsirik ate  
an zituztenak billatzen,  
arkitu zuten santa gaztea  
belauniko erregutzen;  
izeba ere billaturikan  
denak asi ziran jotzen,  
agertu zan illoba esanaz  
asteko bera're iltzen.

26

Edertasuna ikusirikan  
onena, denak an bertan  
arriturikan gelditu ziran  
erdi nastuak batetan;  
jeneral Primok gudari denak  
arkitzen ziranak ontan  
bigaldurikan, andik asi zan  
Febroniarekin izketan.

27

Primok ziyon au; «Bali nedilla  
gure jaungoiko guztiyak!  
Bestiak igas egiñik zertan  
gelditu zerate biyak?  
Zuek ere aldendu zaitezte,  
denborak daude txikiyak,  
nai ez baldin badezute laister  
emen kentzia biziyak».

<sup>7</sup> *Insulto.* (Id.)

<sup>8</sup> *Immortal.* (Id.)

<sup>9</sup> *Destino.* (Id.)

<sup>10</sup> *Aspirar.* (Id.)

28

Probidentziyak denbora zuben  
eman gañerakoari,  
estuasu eta erasoak<sup>7</sup>  
ez iristeko berari;  
bitarte ontan parte ematera  
joan ziran Lisimakori,  
esanaz: «Aditu nazazu gaur  
zer gertatu zaidan neri.

29

Arkitu det, jauna, konbentuan  
iruritutzen zaidana,  
jaun illezkorrak<sup>8</sup> zure emaztetzat  
señalpenetuz<sup>9</sup> zeukana;  
da dontzella bat izate dana  
pare gabea daukana,  
mundu guztiyan orlakorikan  
sortu izandu eztana».

30

Lisimakok erantzun du: «Jaunak,  
esan izandu dit amak,  
dontzella oiek, konbentuetan  
gordian bizi diranak,  
denak izaten dirala emazte  
bere Jesukristorenak;  
goragotu<sup>10</sup> nai ez det bada nik  
gisara ortako eztaiak.



31

Izketa ortan ari zirala,  
an zeguan gudari bati  
bururatu zitzaion partea  
ematia Selenori:  
nola dontzella kristau ederra  
pare gabekua ori  
konde Primok eman nai ziyola  
andretzat Lisimakori.

32

Kristabaren izen utsak zuben  
berotu ta amorratzen,  
eman zuben agindea laister  
ekartzeko bertaraxen;  
begiragarri aingeru ori  
katez lotua zeukaten,  
bildotx umia beziñ umilla  
bultzaka ekarri zuten.

33

Ikusirikan izeba santak  
illoba zeramatale,  
eta besterik eramateko  
aginderik etzutela,  
esan oi ziyon: «Jesusengatik  
ixuri zazu odola,  
bizi naizela esan dezatan  
illoba martir detala»

34

Geigo esaten etziyon utzi  
negarrak denbora onetan,  
Febronia bakar-bakarrik zeguen  
indarturikan batetan;  
Selenongana eramanikan  
aurrez jarri zuten bertan,  
ikusirikan au ain mantsua  
arriturik gelditu zan.

35

Beriala galde ziyon ea  
libre edo mendekua zan.  
Erantzun ziyon: «Mendekoa naiz».  
«Eta norena bada esan».  
«Nere Jaungoiko maitiarena  
izan naiz ta nai det izan;  
siraskatikan berarengana  
orla kontsagratu nitzan».

36

«Pena da bada –ziyon Selenok–  
orren gatzetandik orla  
engañatuta nola zaituzten  
eruki; baña beriala  
utzi zaizkitzu txorakeriyak;  
gure jainko illezkorra  
adora zazu, eta txinistu  
ondo izango zerala».

37

Lisimako ekarririk ara  
esan ziyon: «Adi zazu:  
nai zaitut nere illoba egiñ,  
au senarratzat artzazu;  
erromatar au arturik oso  
aundi izan bear dezu;  
tira: onek dauzkan kate danak  
berialaxe askatu».

38

Santak orduan, eldurik kate  
berarekin zeuzkanari,  
erregu zuben ez kendutzeko  
alaja aiek berari;  
bere biziyan etzubela ark  
ain gauza onik eruki,  
arren da arren ez kendutzeko  
apaingarri eder ori.

39

«Gañera neri eskeintzen nazun  
onginai edo gauz ori  
ezin nezake, zergatik naguen  
kotsagraturia aspaldi  
gure Jaun Jesukristorengana,  
mundu denen Jabeari,  
gaizki liteke ots-egitia<sup>11</sup>  
mundu ontako iñori.

---

<sup>11</sup> *Convidar.* (Id.)

<sup>12</sup> *Defensa.* (Id.)

40

Zer uste dezu: demoniñuak  
maitatuko ditutala?  
Aditu utsak nazkatutzen nau,  
Jaunak libratu gaitzala!  
Zer uste dezu: aur izan arren  
ikaratutzen naizela?  
Kristau naiz ta penak sufritzeko  
jakin zazu prest nagoala.

41

Erlijiyuen ezkudagoan<sup>12</sup>  
sufritzia det naiago,  
kristaua naiz ta orduan poza  
neretzat da aundiyago;  
Jesu Kristoren gloriya ere  
aundituko da geiago,  
au esaten det itz egitia  
baldin-ta libre badago».

42

Erantzun onek arriturikan  
dianak laja zituben,  
orduan plomoz purrakatzeko  
an bertan agindu zuben;  
oso zanpaka ibilli arren  
au ikaratu etzuten,  
begira zeuden guztiyak penaz  
beterik utzi zituben.

43

Birjiñaren gorputza llaga bat  
egiñik gelditu baizan,  
alaz guztiaz Jaungoikoari  
eskerrak ematen zizkan;  
oñazeak etzuben batere  
au ikaratu, baizikan  
alabantzak zerura kantatzen  
indar denakin ari zan.

44

Selenori iruri zitzaion  
iñakiñez<sup>13</sup> ari zala,  
eta suturik agindu zuben  
bertan beraren azala  
sua eginda lusullatxoan<sup>14</sup>  
azkar para zezatela,  
kiskaldurikan llaga guztiaz  
bertan ill zedideiela.

45

Miñ sendo ikaragarri abek  
ikusirik an zeudenak,  
ezin egonta penatu ziran  
paganorikan geienak;  
santa bakarrik biziro gogor  
ari zan sufritzen penak,  
barrenak laguntzen ez da jira  
egin zuten ango denak.

---

<sup>13</sup> *Insultar.* (Id.)

<sup>14</sup> *Parrilla.* (Id.)

46

Alaz guztiaz an bertan zuben  
agindu tirano zarrak  
beriala urratzeko ortzak,  
abua eta bularrak;  
bañan etzuben asko baliyo  
ez burni, azote, garrak,  
buelta arazteko berengana  
fedea santuben indarrak.

47

Erri guztiaz ikusi zuben  
Selenon gorroto ura,  
Febroniak alaz guztiaz Jesus  
aitatzen zuben mundura;  
azkenerako matxetiakin  
kendu ziyoten burua,  
garagarrillen ogei ta bostan  
ill da igo zan zerura.

48

Laugarren gizaldi asieran  
gertatu zan eriotza,  
Primo ta Lisimakori mugi  
zitzaioten, bai, biotza;  
amak berenak kristau izanik  
au etzan biziro gaitza,  
ordu ezkerro sinistu zuten  
Santa Febroniaren itza.

49

Mandatarí bat korrika oi zan  
etorri ontan zeudela,  
esatera nola jaun Selenok  
zetzua galdu zubela;  
eta eromen gogorra artan  
su eta gar zebillela,  
pillare baten kontra burua  
autsi ta bertan il zala.

50

Lisimako ta Primo aguro  
ziran bada konbertitu,  
beste jende askokin batian  
ziran laister bataiatu;  
Santa Febroniaren ezur denak  
berak zituzten altxatu,  
eta gañera kristauen kontra  
zebillen tropa paketu.

*22 de Julio de 1886.*

Erderatik itzuliya.

*Publicada en La Semana Católica,  
1890.*

## Loiolako inguruan

---

1  
Uztaren emezortzi-  
garren egunian  
iru lagun zar giñan,  
bai, Antonenian;  
sagardua zeguan ta  
umore onian  
ibildu giñan oso  
jan ta eranian.

2  
Partidu bat musian  
Atari-ederren  
bertako semiakin  
jokatu genuben;  
exkaxenak zeñ ziran  
ezagun ziraden,  
merienda aguro  
garbi geniyoten.

3  
Merienda galduta  
etziran kontentu,  
berriz nai izan zuten  
geiago segitu;  
eta nola zizarra  
genuben jokatu,  
beriala geniyon  
pitxar bat garbitu.

4  
Bat beso lotuakin  
ta bestia kojo,  
elkarrekin elkartu  
giñan bi marrajo;  
aiek enbidua txit  
gogor ziguten jo,  
guk berriz ordagokin  
biyak guardabajo.

5  
Irabazi geniyon  
guk nai genubena:  
merienda lenbizi,  
zizarra urrena;  
bi elbarrik geniyon  
egin nai zan dena,  
jokatuko diyogu  
berriz nai dutena.

6  
Markos ta Josek zuten  
kontuak atera,  
Antonenera giñan  
juan labak jatera;  
arraigorri bat zuten  
Txinbari atera,  
au arturik joan giñan  
belardi batera.

7  
Putzu bat nola zeguen  
belardi onetan,  
merendatu ta asi  
giñan jostaketan;  
Josek probatu nairik  
indarrak an bertan,  
erori ta sartu zan  
gerrirañon loitan.

8  
Izokiya ikusita  
asi giñan parrez,  
malkoa geniyola  
algaren indarrez;  
berriya artan ez giñan  
kupitu gu arrez,  
zer itxura zeukan ark  
kontatzen ezta errez!

9  
Putzutatik bakarrik  
zan legorreratu,  
txori izutzallien  
gisa zan gelditu;  
guk orduan, parrikan  
eziñik gelditu,  
gizarajoa oso  
genuben lotsatu.

10  
Konejua igasi  
ibiltzen dan gisan,  
gure artetik oso  
aguro joan zan;  
sasi tartian ere  
ibildurik dantzan,  
ukullutik etxera  
ixillka sartu zan.

9  
Jakitiagatikan  
ill edo bizi zan,  
alkatiarengana  
giñan irurak joan;  
ondo itz egiñikan  
gurasoari an,  
multa pagatu gabe  
gu libratu giñan.

12  
Etxeko denarekin  
giñaden elkartu,  
zer pasa zan guztiyan  
geniyon kontatu;  
gezur ta abar ederki  
zan bera libratu,  
meriendarik ere  
etzuben pagatu.

*Julio 24 de 1886.*

## San Sinfiorano martiria, Galiako ziudadian, Autun erriyan

---

1  
Autun erriyan Galiakoan  
festak ziran bein egiten,  
Ama Zibeles kalerik kale  
juduak zerabilkiten;  
idolo faltso au kalietan  
denak maitatutzen zuten,  
prozesiyuan arturik karro  
ederrian zeramaten.

2  
Prozesiyo au zerabilela  
mutill bat zan an gertatu,  
Sinfiorano izenekua,  
zeñaz bertan zan gelditu;  
bere parera Ama Zibeles  
oi zanian inguratu,  
parrez jarrita etzan batere  
bere aurrian makurtu.

3  
Karroaren ondotik zijoan  
agintariyak onela  
esan ziyon: «Ea jartzen aizen  
belauniko beriala.  
Badakik bada orain baño len  
erregiñ aundiya dala,  
eta makurtzen ez baaiz preso  
laister izango aizela».

4  
Baño mutilla izanik oso  
kristandadean aziya,  
igarri zuben etzala lege  
berari erakutsiya;  
eta ojuka asi zan bertan  
naiz laister kendu biziya,  
esanaz an zebilkiten diosa  
paltsua zala guziya.

5  
Ain ageriyen nolatan zuben  
Ama Zibeles ukatu,  
beste guztiyak beraren kontra  
laister ziraden altxatu;  
ainbesteraño asarraturik  
beriala zuten artu,  
eta arrastan lauren artian  
presondegiyara sartu.

6  
Heraklio zan gobernadore  
paraje aietakua,  
Sinfiorano eraman zuten  
berarengana lotua;  
galdetu ziyon ea zergatik  
egin zuben pekatua,  
«Errendi zaitte Zibelesgana,  
ea jarri makurtua».

7  
«Ez naiz jarriko –mutill gazteak  
erantzun ziyon jaun arri–.  
Zer uste al du: paltsua zer dan  
ez dedala nik igarri?  
Erregu pixkak, nik ikasiyak  
daukazkitanak amari,  
eskeintzen dizkat biyotzetikan  
gure Jesus bakarrari.

8  
Eskeintzen dizkat biyotzetikan,  
bai, Jaungoiko bakarrari,  
pekatariyen Salbatzalle ta  
zeru lurren Jabeari.  
Uste al zuben nik egitia  
erregu lurrekoari,  
idolo paltso buztifñarekin  
beok egintakoari?».

9  
Beroturikan gobernadore  
jauna arrazoi abekin,  
agindu zuben elbarritzeko  
bizkarra zigor batekin;  
eta gerora presondegira  
sartzeko, baña otsegin  
ziyon esanaz eskarmentatzen  
ez al zan orrenbestekin.

10  
Bakardade ta ixiltasuna  
zeukazkiyela barrenan,  
animaturik resoluziyo  
bat artu zuben an bertan;  
governadore jaunarengana  
berriz au ekarririkan,  
itz abek guztiz modu onian  
beriala esan zizkan.

11  
«Kristautasuna uzten badezu  
izango zera txit ongi,  
enpleo eta gauz onak zutzat  
izango dira ugari».  
«Nik desiatzen dedan guztiya  
da zeru eterno ori,  
mundu ontako onak kea ta  
aizea dala diruri».

12  
«Begira ondo zer datorkizun;  
biziya galdu bearra».  
«Ajolik ez dit bedorrek edo  
denborak galdu indarra,  
Jaungoikuak zeruetatik  
egiten dit deadarra,  
aukeratuta goian neretzat  
daukala toki ederra».



13

Ikusirikan gaztea sendo  
bere fedian zegoala,  
agindu zuben erriz kanpora  
ateratu zezatela;  
amak etzuben presondegiyan  
ikusi izan iñola,  
segitu ziyon txit bertaraño  
iltzera zeramatela.

14

Jende tartian ama negarrez  
muralletan zan arkitzen,  
semiak berriz alde denera  
zuben beti begiratzen;  
ama maitia, begira arren,  
iñon ikusten etzuben,  
biotza gora altxatu eta  
itz abek esan zituben.

15

«Ama, banua pozez iltzera  
Jaungoikuaren graziyan,  
laister elkartuko gera biyak  
zeruetako gloriyan».  
Au esanikan iltzera joan zan  
biziro fede biziyan,  
eta bakar-bakarrik jarri zan  
borreruaren erdiyan.

*27 Octubre 1886.*

*Publicada en La Semana Católica,  
1890.*

## Euskerari

---

1  
Izkuntza maitagarriya  
parerik gabia,  
beste guztiyak baño  
askoz ere obia;  
iya artu zenuben  
lurpean obia,  
bañan ostera zaizu  
iriki bidia.

2  
Ez dezu etzan bear,  
baizikan zutikan  
egon bear dezu, bai,  
semeakgatikan;  
Jaunak bedeinkatua  
zaude zerutikan,  
ez beldurrik eduki  
etsaiakgatikan.

3  
Anai maitiak dira,  
bai, zazpi probintzi,  
mendi tartian oso  
paketsuak bizi:  
euskara itz maitia  
dutela nagusi,  
lege ederra dute  
beti erakutsi.

4  
A, Euskal Erri maite  
biyotz nerekoa,  
antzinako denboran  
zori onekoa!  
Arkitzen zera mintsu,  
auldurik naikua,  
senda gaitzazu laister,  
gure Jaungoikua!

5  
Egon arren tristea  
sentirik gaitz otza,  
ez estutu, joango da  
zure miñ zorrotza;  
zuretzat dira nere  
odol ta biotza,  
euskararengatikan  
nai det eriotza.

6  
Zu miñez zaudelako  
nago erdi illa,  
beti nabill zuretzat  
erremedio billa;  
nere odola eman ta  
senda al baziña,  
pozik emango nuke,  
a zer atsegiña!

7

Gurasoak euskaldun  
ni mundura naute,  
eta euskal legeak  
eman dizkirate;  
beti izango zaitut,  
euskara, zu maite,  
azkeneko arnasak  
neri iraun arte.

8

Euskaldun jaio giñan,  
euskaldunak gera,  
ill artean euskaldun  
izango al gera;  
bedeinkatua dago  
euskaldun izkera,  
munduba dan artian  
bizi bedi euskera.

*21 Octubre 1886.*

*Premiado y publicado en la  
Euskal-Erria, 30 Enero 1887.*

*Publicada en La Unión Vascongada,  
el 30 Junio 1896.*

*Ibaizabal, 21 Sete. 1902.*

## Gabon kantanak (Gabonetan kantatuak)

---

1  
Gau on zelebratzera  
gatoz beongana,  
desiatzen diyogu  
denori gau ona;  
bidez nai genuke guk  
bete boltsa dana,  
emango al digute  
denok txanpon bana.

2  
Onuntz gatoz miseri  
ikaragarriyan,  
eta arkitzen gera  
gosiak premiyan;  
ez badigute beok  
laguntzen guziyan,  
sartu biarko degu  
Miserikordiyen.

3  
Gure boltsan badago  
tokiya ugari,  
bañan dirua gutxi  
zaigu or ageri;  
propin ona ematia  
etxe ontan guri  
etzaio gogoratzen  
oraindik iñori.

4  
Eztegu beñere izan  
orlako miserik,  
uste det eztequila  
jango bisigurik;  
ezta gaur gurituko  
tripako esterik,  
gure boltsan eztago  
lau kuarto besterik.

5  
Santero-nian degu  
eman gaur ordena  
guri gaur ipintzeko  
bixigu onena;  
ez baldin bada sortzen  
paga bear dana,  
egin bearko degu  
guk beliarena.

6  
Lau lagun alproja abek  
etxetik etxera  
etorriyak gerade  
diruen eskera;  
orain beokgandikan  
zerbait degu espera,  
orduantxen guztiyak  
aterako gera.

## Estribilloa

Batzubentzat gau ona,  
bestientzat gau txar,  
diru eske gabiltza  
gu lau alproja tzar;  
bekaigute kobria  
zillar edo urre xar,  
alde egin dezagun  
emendikan azkar.

*Diciembre 1886.*

## Donostiarra beti festazale

---

1  
Festarako du fama  
beti Donostiyak,  
aukeraturik dauka  
kanpo guztiyak;  
festaren seaska da  
eta gazteriyak  
beti sortutzen ditu  
ongi jostaldiyak:  
noiznai komeriyak,  
ederki jarriyak,  
kontu pozgarriyak,  
zortziko berriyak,  
zezen edo partidu  
txit egokiyak.

2  
Ongi etorri bitez  
kanpotar guztiyak,  
festa zale diraden  
biyotz eztiyak;  
beso zabaldurikan  
aundi ta txikiyak  
artzen ditu beregan  
beti Donostiyak;  
etxiak utziyak,  
festara jantziyak  
dira etorriyak  
festara larriyak;  
pozez estimatzen du  
gure erriyak.

*Letra de zortziko.*

*Ecos del Oria, Tolosa, Junio 1917.*

## Tolosan gau batian (Berakoetxean kantaren antzera)

---

1  
Gaur Tolosara etorri gera  
umore ederrarekin,  
biziro ondo konpondu gera  
bertako jendearekin,  
zar eta gaztearekin.

2  
Berriro ondo artu gaituzte  
gaur Tolosako erriyan,  
argatik denak lana egin degu  
txit borondate aundiyan,  
egin degun komeriyen.

3  
Oso ederrak dauzka Tolosak  
Tingladu ta Zumardiya,  
eliza egoki, pare gabia,  
alaia eta aundiya,  
eta organo berriya.

4  
Eskerrak orain zaizka ematen  
Aiuntamentu jaunai,  
gañera beste laguntzalliak  
izan ditugun danai,  
eta gañerakoari.

1  
*Hoy a Tolosa hemos beniro  
con el umor muy bueno,  
muy bien nos hemos componido  
con la jente del pueblo,  
con jóvenes y viejos.*

2  
*Muy bien muy bien nos han tomao  
hoy en Tolosa del pueblo,  
por eso toros con borondá  
aquí hemos trabajao,  
comeria quemos echo.*

3  
*Muy hermoso tienes, Tolosa,  
el Zumardi y Tinglaro,  
manifica iglesia  
con sacristía y coro  
y muy nuevo el organo.*

4  
*Izquierdos agora se le dan  
al ayuntamiento senor,  
ademas ayudadores  
que amos tenidos otros  
y a toros, toros, toros.*

Tolosako Biltokiyan, olagara aundiakin Kandelario gaubean kantatuak  
lenengo aldiz, egilleak berak gitarrakin. (Egillearen oarra).

1º Otsaillan 1887an  
(Erdal itzulpena ol-ola dauka Pepe Artolak bere esku-idatzian).

## Pelotariyak

**zortziko berri bat, On Antonio Peña eta Goñik jarriari  
antolatutako itz neurtuak**

---

1  
Pelotariyak gera gaur plazan partiduban asi,  
elkarri indar denak bear dizkagu erakutsi;  
ea, mutillak, orain elkarren kontra bixi-bixi,  
al degun dena saiaturikan zagun irabazi,  
(*Jueces, señores!...*)

2  
Gaizki jo du pelota! Ez, jauna! Ez, jauna!  
Juez jaunari deitu egin dezan dana!  
Eziñ erabakirik guztiyak bada naiko lana,  
azkenerako moldatu dute egin bear zana.  
(Buena omen du, jaunak...)

3  
Ar zak bolian errebeska ta bota zak atzera,  
al baldin badek kontrariyoa or bertan lertzera;  
kontuan egon, or!, bi paretak, baniak artzera,  
al baldin badet puntan artuta ziriya sartzera.

4  
Bi kintze palta, txintxo, txintxo, jo sakia zorrotza,  
saiatu ari oraingo ontan, pozturik biotza;  
ederki joan dek, beste bat oraiñ estuturik ortza,  
zoratu dituk, naiko egin dek, partida, au poza!  
*Partida, señores...*  
Biba Euskal-Erria!

Madrid, 13 de Junio de 1887.

## Lau pintura

### Urtearen lau erak

---

#### Uda berriya

Kanpua alaiak lorez jantziyak,  
zerua oso berdiña,  
kabitxoetan pill-pill txoriyak,  
(au da pintura urdiña).

#### Udara

Gora begira zabal loria,  
fruta aukera guziya,  
argi zerua, egun luzia  
(au da pintura txuriya).

#### Uda azkena

Fruta guztiyak jaso baitira,  
ezkutatzen da loria,  
egunak ere laburtu dira,  
(au da pintura moria).

#### Neguba

Zerua triste, kanpua illa,  
aize miña, egun motza,  
eudiya, kazkabar, arriya,  
(au da pintura beltz-beltza).

*Uba, 23 Febrero 1887.*

*Argitaratua:*

*Euskal-Erria-n, 30 Ne. 1889.*

*eta Galerna-n, 1890-an*

*Correo Guipúzcoa, 14 Marzo 1901.*

*Noticiero Guipuzcoano 17 Ne. 1908.*

*Pueblo Vasco, 13 Mayo 1915.*



## Aita Santu Leon amairugarrenari bere erreztaietan

---

1  
Jargoian ipiñiya  
ara or non dagon  
pare gabeko gure  
Aita Santu Leon;  
zelatari argiya,  
egin du zenbait on  
ez danak ardiyaren  
kontuan lo egon.

2  
Orain dira berrogei  
eta amar urte  
apaiztu zanetikan  
oneraño arte;  
erakutsi du beti  
zenbait borondate,  
orain erre-eztaiak  
izan bear dute.

3  
Nola erregaliyak  
askok dizkan egiñ,  
nik ere gogoz niyon  
lan oneri ekiñ;  
bañon arkiturikan  
deus gabe nerekiñ,  
begiyak busti zaizkit  
sentimentuarekiñ.

4  
Bañan zer egingo da?  
Izan arren pobre,  
nere izate denak  
bedorren gaiñ daude;  
ala utzi nai ezik  
zerbait eman gabe,  
egin bedi gaur nere  
biyotzaren jabe.

Uztaillaren 14-an, 1887-garren urtian.

Argitaratua bi lekutan:

*Euskal-Erria*-n Apirillen 10-an, 1888-an.

## Karmelo Etxegarairi bere egunian

---

1  
Adiskide maitea,  
pare gabekua,  
euskaldun egiazko  
sustraietakua;  
izatia beti zu  
zori onekua  
da detan borondate  
biyotz nerekoa.

2  
Nik ere nola detan  
euskaldun odola,  
nai nizun egin zuri  
nere diesola;  
beti desiatzen det  
izatea orla,  
zure lagun zar maite  
Josepe Artola.

16 Uztaillan, 1887-an.

## Segurako erretore jaunari

---

1  
Segurako elizan  
oso gauza onak  
egin dizkigu gure  
erretore jaunak:  
kandelabro berriyak  
doratuak danak,  
eta beste gauz asko  
ederrak dianak.

2  
Eliza txit ederra,  
alai ta aundiya,  
gañera dauka oso  
txukun ta garbiya;  
parerikan gabeko  
aldare nausiya,  
itz batian da oso  
begiragarriya.

3  
Argi araña dauka  
parerik gabia,  
ezin arki liteke  
beste bat obia;  
eta komuniyoko  
dagon aldaria  
da txit lan aundikua,  
oso dotoria.

4  
Aste Santuan dira  
puntziyuak egin  
izugarri ederrak  
fundamentuakin;  
erretoriak zion  
lan askori ekin,  
elkarturik bertako  
apaiz jaunarekin.

5  
On Prudentziyo degu  
gure jaun ta jabe,  
ez genuke etsiko  
iñork bera gabe;  
ardiyaren kontuan  
dabill txit dotore,  
zori onian zuten  
egin erretore.

6  
Beti dabill erriyan  
apaingarri billa,  
jaun orren talentua  
ez baitago illa;  
orain eritegiyan  
egin du kapilla,  
zeruaren erdiyan  
gertatu dedilla.

7

Alegiñ guztiyakin  
beti dabill ura,  
jendia eramaten  
eliza santura;  
lana prankoren bidez  
poztu du Segura,  
Jaungoikuak eraman  
dezala zerura.

*Julio 27, 1887.*

## **Ignaziyo Urangari bere egunian**

---

1

Desiaturik neguen  
aspaldi onetan  
ematia egun on  
asko txit benetan;  
eta nola luzaro  
eman ez dizutan,  
gaur ematen dizkitzut  
nik itz neurtuetan.

2

Jaiki naizenerako,  
lenengo orduan,  
zure eguna dala  
jarri zait goguan;  
desiatzen dizkitzut,  
askoren moduan,  
gaur bezelako egun  
on asko munduan.

3

Inaziyo, Jainkuak  
dizula egun on,  
goiz ezkeru au zuri  
esan nairik negon.  
Ez al degu zurrutik  
egiñ bear iñon?  
Nik nai det eran, baña  
esan zaidazu non.

4

Nola zure eguna  
dan gaur, zuri ezerk  
etzaitu estutuko  
garesti ta merkek;  
estutu arren iñoiz  
makiña bat nekek,  
alegra gaitian gaur:  
zure lagun Pepek.

*Uztailaren 31, 1887.*

## San Erasmo edo San Telmoren bizitza edo-ta eriotza (Garagarrillen biyan, iruregun ta iruban)

---

1  
Orienteko alderdiyetan  
jaio zan Santu Erasmo,  
birtute paregabekua txit,  
zitubenak zenbait asmo;  
obispo egin zuten pasarik  
bitartian asko tramo,  
(alde abetan deitzen diyote  
guztiyak oni San Telmo).

2  
Irugarren gizaldiyan zuten  
obispotzat aukeratu,  
Antiokiako eliz batean  
zuten guztiyak paratu;  
Dioklezianok nola kristauak  
nai zituben purrakatu,  
Libanoko mendi tarteetan  
juan zan edo ezkutatu.

3  
Ain bizimodu penagarriya  
eta bakardade ura,  
barau biziak, askotan falta  
egarri iltzeko ura;  
alaz guziyaz pozez bizi zan  
utzirikanen tristura,  
begiraturik leku maitera  
desio zuben zerura.

4  
Animali ta pizti guztiyak  
zitzaizkanak inguratzen,  
au ikusirik deus egin gabe  
ziran dianak geratzen;  
iñoiz edo bein otsen bat onek  
egiten baldin bazuben,  
demoniñua bera're laister  
zan andik igasi juaten.

5  
Mintsu eta eriyak askotan  
jakiñik zala aiñ ona,  
sendatzeko asmoan pillaka  
joaten ziran beragana;  
bendiziyuarekin askori  
eman ziyon osasuna,  
arriturikan laja izandu  
zuben inguru diana.

6  
Gero jira zan Antiokira  
zeguan lekutik ostera,  
zeñaz jende geiena zuben ark  
buelatu fede santura;  
ainbeste jentill nola zituben  
jiratu lege onera,  
arren izena zabaldu baitzan  
iya leku geienera.

7

Enperadore Dioklezianok  
aunditasun au jakiñik,  
ezagutu ta itz egin naiaz  
joan zan prest zeguan tokitik;  
arriturikan gelditu baitzan  
aurrez-aurrez ikusirik,  
bere artian esaten zuben:  
«Nereganatuko det nik».

8

Asi zitzaion santu onari  
txit itz ederrak esaten,  
ea engañaturik bertatik  
ote zan bereganatzen;  
bañan San Telmok igarririkan  
zer asmoakin zetorren,  
etziyon batere gusto eman  
itz ederrak esan arren.

9

Orduan igarririk alperrik  
zala ari mintzatzia,  
esan zuben: «Ez du, ez, baliyo  
gaur denbora pasatzia;  
emen onena izango det nik  
pena aundiz betetzia,  
eta ez bada nigan jiratzen  
duben biziya kentzia».

10

San Telmok pagano zeudezenak  
zituben itz onakin an  
illuntasunetik atera ta  
aguro jarri argitan;  
Diokleziano suturik oso  
gauza onentxengatikan,  
agindu zuben ari egiteko  
nai zan dena bertatikan.

11

Au aditurik bere mutillak  
asi ziran guztiz gogor  
makillazoka, asko bultzaka,  
batek jo an, bestiak or;  
ari zauriyak eta zularak  
egin gabe etzan iñor,  
berak esaten zuben: «Jesusi  
mesere abek dizkat zor».

12

Lendabiziko makilka zuten  
denak egiñ alegiña,  
gero bota zizkaten argizai,  
berun, pike, erretxiña;  
gañetik oliyo irakiña,  
gorputza zauri egiña,  
alaz guztiaz aitatzen zuben  
Jesus ta Ama Birjiña.

13

Jesusi eta bere Amari  
deitzen zion bakoitzian,  
zauriyak eta kolpiak ziran  
miñgabetzen gorputzian;  
arriturikan gelditzen ziran  
denak au ikusitzian,  
esaten zuten: «Onek zerbait du,  
ilko zan gañeruntzian».

14

Lan abek egiten ari ziran  
bitartian gizonak an,  
egualdi gogor batek eraso  
zienen denari batetan;  
ikaraturik zeuden guztiyak  
milagro onez an bertan,  
libre uzteko arri ojuka  
denak abiyatu ziran.

15

Enperadore Dioklezianok  
eman nai zion segira,  
zeñaz esan zuben: «Arrastaka  
sartzeko presondegira;  
ala egin zan, bañan gau artan  
aingeru batek, errira  
aterarik, esan zion: «Azkar  
zuaz ontziz Italira».

16

Esan bezela ontzian joan zan  
Napoles-eko kostara,  
gero andikan bertaratu zan  
Fornies-ko parajera;  
ango jendia buelta arazten  
zuben Jaunaren legera,  
arren izena azkar zabaldu  
baitzan leku geienera.

17

Enperadore Maximianok  
jakiñik arren lan denak,  
erbestekua zala jakin ta  
para zituben ordenak;  
atxiturikan aguro preso  
gudari bertan zeudenak,  
bertan ziran asi beriala  
egiten nai zituztenak.

18

Agindu zuben burni arantzaz  
purrakatzeko mamiyak,  
urratutzeko al zan bezela  
gorputzeko aragiyak;  
bañan onek oso pazientziz  
artzen zituben guztiyak,  
batere tristetasunik gabe  
fedezko santu aundiyak.

19

Ikusirikan etzubela deus  
minbererikan sentitzen,  
pazi aundi piketsu batera  
sartzeko agindu zuben;  
oliyo irakiñez betia  
pazi ura egon arren,  
batere bildur gabe sartu zan  
fedez betia barrenen.

20

Bañan, o!, Jaunaren grazi ona  
gertatu zitzaiona emen:  
ziñatu eta sartu zan bera  
pazi aundiyen barrenen;  
irakiten zeuden pikia ta  
oliyo, erretxiña, len,  
sartu zanian presko-preskua  
bertan arkitu baizuben.

21

Enperadoria arriturik  
gertakai au ikusirik,  
berriro agindu zuben preso  
sartzeko sendo loturik  
zulo aundi zar estu batera,  
t'erukitzeko baraurik,  
eta au an ill bitartian ez  
iñor irteteko andik.

22

Bañan gau artan bertan San Migel  
azaldurikan bertara,  
berak deus uste gabe kanpora  
zuben andikan atera;  
eta eraman zuben Molara,  
len egondu zan aldera,  
Fornies deitzen zaion ziudade  
itsaso dun on batera.

23

Fede santua ariyatzitzen  
ari zan erri danari,  
biziro gogor eldu ziyon ark  
Jesukristoren lanari;  
bere apostolua izan zan,  
milagroak txit ugari  
egin zituben, ala gerora  
denak ziraren ageri.

24

Urte askoren jabe egiñik  
eta beti neke ura,  
merezimentuz betia igo  
zan mundutikan zerura;  
Garagarrillen biyan, urtia  
irureun ta irua,  
izan zan iritxi zubena ark  
martiriyoko korua.

Agoztuan 10-an, 1887-an.

*Publicada en La Semana Católica.*



## Okendori

### (Bere ekantzaren lenengo arriya ipintzerakoan)

---

Alaiturikan dago  
gaur txit Donostiya,  
ipintzen zaiolako  
lenengo arriya,  
zeñetan azaltzen dan  
Okendo aundiya,  
egiñikan beraren  
ekantza berriya,  
edertu dezan bera  
jaio zan erriya,  
izan dediyen gure  
oroimengarriya.

Gaur Donostiyak onratu nairik  
Okendo seme aundiya,  
izandu zana bere denboran  
itsas-ontzi gudariya,  
ipintzen diyo erregearen  
eskuz lenengo arriya,  
aren gañian egin dezaten  
bere ekantza berriya,  
izan dediyen edertutzeko  
bera jaio zan erriya,  
eta gañera beraren seme  
denen oroimengarriya.

Ona Okendo lurperatua  
non zaigun berriz azaltzen,  
bera jaio zan erri maitean  
ari dirade jasotzen.  
Erritar denak au ikustea  
zutelarik desiatzen,  
orain biziro pozez beteak  
dira zurekin agertzen,  
zure kondaira guztiyak dira  
zu ikustean oroitzen,  
zeñaz ez diran gure burutik  
iñoiz utziko aztutzen.

Agoztuaren 31-an, 1887-an.  
(Okendoren ekantzaren lenengo arriyan erregiñak gordea).  
Argitaratuak: *Guipuzcoano* eta *Euskal-Erria*-n.

## Dama Rosariori A Rosario

---

1

Begira zaiozute  
dama gazte orri,  
liraiñ paregabeko  
dizdizariyari;  
Donostiyan ez dira  
orrelakoxe bi,  
begiratzen bazaio  
nun-naitik berari,  
bere begiyak bista  
kentzen du denari.

2

Ezin fama liteke  
orrek mereziya,  
gauz danetan du bestek  
ez ainbat graziya;  
bear dan gauza dana  
dauka ikasiya,  
izate guztiya du  
begiragarriya,  
aingerua diruri  
goitik etorriya.

1

*Mirad a esa bella y encanta-  
dora sin par. No hay en San  
Sebastián otras dos que le  
igualen. Si se le mira a ella por  
doquier, quita la vista a cual-  
quiera con sus ojos de cielo.*

2

*No se puede expresar lo que  
ella se merece; en todas las  
cosas tiene una gracia particu-  
lar; todo lo que se requiere<sup>1</sup> a  
ella lo tiene a gran altura, todo  
su ser es encantador, parece un  
ángel que ha venido del cielo.*

*Esta composición está escrita para su álbum, en San Sebastián, de la  
cual se quedó satisfecha: Rosario Hernaiz.*

1887, Agosto.

---

<sup>1</sup> Emen agian *refiere* bearko luke.

**Oroimena,  
zortziko berriya,  
Soraluzek musika jarriya  
(Markes jaun Puignau eta bere emazte D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Cuevas-i)**

---

1  
Donostiarrak maite  
degu Markes jauna,  
bere emazte eta  
alaba txit ona;  
Sebillatikan dira  
etorri gugana,  
desiatzen diyogu  
emen osasuna.

2  
Sebillatikan onuntz  
datozen dienak  
artzen ditu beregan  
Donosti txit onak;  
ala bertako seme  
bizi gera denak,  
estimatzen ditugu  
beon etorrerak.

3  
Sagardua eranaz  
zortziko kantari,  
eta begiratuaz  
Kontxa ederrari,  
biyotza poztutzen da  
kanpotar danari,  
Markes jauna, emazte  
eta alabari.

4  
Emen oso ederki  
ibilli baitira,  
eta orain dijuaz  
nor bere kabira;  
bizi bitez txit ondo  
joanikan errira,  
eta urrengo urtian  
etorriko dira.

5  
Orain umore onez  
despeitu gaitian,  
denok elkarturikan  
gaudezen artian;  
ondo bizi guztiyak  
emendik joatian,  
eta etorri bitez  
datorren urtian.

Agorraren 17-an, 1887-an.

## Egun onak

### Nere koñadugai Migeli bere egunian

---

- 1  
Goiza ezkerro pentsamentuan  
daukat dala zure eguna,  
ala nai dizut diesola egin  
zuri komeni zaizuna;  
nola naizen ni koñadugaia  
eta gañera laguna,  
desiatzen det urte askotan  
bizitza ta osasuna.
- 3  
Alde batera utzi beazu  
gaurko egunaz nekia,  
zelebratuaz bear bezela  
komeni zaizun pakia;  
nik ere nairik erabat utzi  
barrenan dedan ajia,  
jayian denak artuko degu  
zure etxian kafia.

2  
Gaur da San Migel egun aundiya  
ta borondate denakin  
desiatzen det egun ontxo bat  
pasatzia gaur beñepin  
zure emazte andre Isabel  
pare gabekoarekin,  
eta gañera desio dezun  
zure lagun denarekin.

Agoen. 29-an, 1887-an.

## Bizente Elizegi

---

1  
Bizente Elizegi  
da pelotariya,  
sakalari igual non  
errestalariya;  
aire, errebes, bole,  
besagaiñ, guziya  
berekin du, ori da  
gaur jokalariya.

2  
Benetan esango det  
mutill ori ala  
ixilla eta ona  
izugarri dala;  
gañera umilla ta  
biziro formala,  
merezita ematen  
diyote jornala!

3  
Oso egokiya da  
Elizegi plazan,  
ezta iñoiz ibilli  
tranpiyen zalantzan;  
makiña bat alditan  
onek plazan bertan  
utzi ditu ikaraz  
bi lagun batetan.

4  
Nola aritutzen dan  
pelotan aiñ fiñez,  
bestiari odolak  
firme irakiñez,  
onek sendo jotzian  
jiratu eziñez,  
gelditu izan dira  
zoratu ta miñez.

5  
Au mendera nayian  
batzubek asita,  
gelditzen badakite  
ederki etsita,  
onen atzera jua  
jiratu ezinta,  
nekaturikan gogor  
alkira etzinta.

Agorra, 1887-an.

## San Martin Loinazen<sup>1</sup> bizitza eta eriotza

---

1  
San Martin Loinaz gipuzkoatarren  
kondaira nai det esan,  
gipuzkoatarrak onen izana  
zer ta nola jakin dezan;  
milla bostegun irurogei ta  
seigarrenian sortu zan,  
garagarrillen amaseyian,  
Beasaiñen jaio baitzan.

2  
Jaungoikuaren beldur santuan  
gurasoak zuten azi,  
txiki-txikiya zala bertako  
eskolara zuten asi;  
amabost urte zitubedian  
Alkalan sartu arazi,  
doai aundiya zuben eta an  
txit asko zuben ikasi.

3  
Aurreratasun oso aundiyak  
nola zituben egiñ an,  
irtenik andik San Frantziskoren  
soñekuakin jantzi zan;  
Añon deritzaion erriyan  
konbentu batera joan zan,  
milla bosteun larogei eta  
seigarren urtean au zan.

4  
Bizimodu errukigarriyan  
egunetik egunera,  
bere fedian indarturikan  
ekiten zuben lanera;  
barauak eta bizkar jotzeak  
gogoz ordu geienera,  
lotara berriz etzaten zan txit  
gutxi, lurraren gañera.

5  
Jesukristoren zalia zan txit  
beterik pobretasunez,  
erregututzen beti txit gogoz  
ari zan gau ta egunez;  
bere barrena zitzaion bete  
arri aiñ Jaunaren fedez,  
ageturikan egun batian  
Japon aldera joan naiez.

6  
Bere desio guztiya zan an  
jentillan gonbertitzia,  
okertasunan zeuden guztiyak  
bide onetan jartzia;  
Jaunaren lege egiazkoa  
al zan dena zabaltzia,  
eta gañera pozez beterik  
bera martirizatzia.

---

<sup>1</sup> *San Martín de la Ascensión.*

7

Berekin ziran fraile denai  
asi zan ariyazitzen,  
Japon aldera joateko nola  
asmoak artu zituben;  
bere barrena oso piztua  
zitzaiola arkitutzen,  
eta bertara joan gabe onik  
nola izango etzuben.

8

Denbora ontan bertaratu zan  
Pedro Ortiz mixiyua,  
onek segiran agertu ziyon  
zeukarren intentziyua;  
eta nola zan au zebillena  
biltzen jende azitxua,  
beraren listan ipiñi zuben  
prest Martin Loinaz txintxua.

9

Apaiztasuna iritxirikan  
eta arturik baimena,  
iñork ere galerazi gabe  
berak desio zubena,  
oñez abiyatu zan au joaten  
Sebillaraño aurrena,  
non elkartu zan an bertan zeuden  
elizakoiarengana.

10

Ontzi batian sarturik gero  
euskaldun bat zala buru,  
au zan gizon on guztiz azkarra,  
jeneral jaun Aranburu;  
birian oso egualdi ona  
zitzaioleta gertatu,  
Manilan lagun guztiyak ziran  
ontzitik irten ta sartu.

11

Milla bosteun larogei eta  
amalaugarren urtian,  
iritxi ziran oso ederki  
Manilako legorrian;  
beriala jarri zuten maisu  
teolojiko lanian,  
Frantzisko Blanco zuben ikastun  
beste askoren artian.

12

Izugarrizko pama aundiya  
beregianatu baizuben,  
gizon azkartzat erri guztiyan  
laister ezagutu zuten;  
bide onera jendia jartzen  
lan asko zuben egiten,  
jateko denborarikan gabe  
lanari ziyon ekiten.

13

Milla bosteun larogei eta  
amaseigarren urtian,  
Japon aldera joan zan Frantzisko  
Blanco zubela tartian;  
iritxi ziran Nangasaki-ra  
beste askokin batian,  
andik Osaka deritzen zaion  
lurrera denak joan zian.

16

Preso arturik abek Osaka-n  
eta txit sendo loturik,  
eraman ziran Meako-raño  
lagun denak elkaturik;  
barren guztiya poztu zitzaion  
desio au ikusirik,  
presondegiyan sartu ziraden  
biyotza pozez beterik.

14

Abiyatu zan ebanjeliyo  
santua ariyazitzen,  
oker bidean zeguan guztiya  
zuzenetara biurtzen;  
lepradun eta jentill askori  
ziyon biyotza ikutzen,  
fedez beterik ondu ondoren  
zituben prest bataiatzen.

17

Sartu ziraden presondegira  
beren fede aundiyakin,  
zeñak elkartu ziran an bertan  
zeuden preso askorekin;  
San Frantziskoren semeak ziran  
zeudenak an elkarrekin,  
ogei ta lau bat bildu ziraden  
len da oraingurekin.

15

Enperadore bertan zegoanak  
agindu zuben artzeko  
preso arrapatzen zan kristaua,  
denak loturik jartzeko;  
ez kupirarik inorenzana  
batere erukitzeko;  
nai baldin bazan, iritxitzen zan  
lekuan bertan iltzeko.

18

Ilbeltzen iruan denak ziran,  
eskuak sokaz lotuta,  
gudariyaren tartian irten  
errira oso poztuta;  
jende tartian zeramazkiten  
tropen barruan sartuta,  
plaza batera eraman ziran  
denak oiñ utsik artuta.



19

An ebaki zizkaten denai  
ezkerreko belarriyak,  
an iñor etzuben ikarutzen  
ango estura larriyak;  
bata bestia poztutzen ari  
ziran an zeuden guziyak,  
esanaz: «Ordainduko digu au  
zeruetako gloriyak».

20

Egiña aben ondoren denak  
zituzten gurdira jaso,  
eta bertako kale denetan  
jiran erabilli-azo;  
modu onetan ibilli ziran  
erriya jiraka oso,  
jende guziyak ziyen birian  
mespreziyoka eraso.

21

Iritxirikan presondegira  
jira erriyan emanta,  
Martin segiran alderatu zan  
denengana au esanta:  
«Ez ikaratu, jaunak, batere  
gutzat au ezer etzan ta,  
segi dezagun bide onetan  
Jaunarengatikan da ta».

22

Urrengo eguna iritxirik  
bezperan bezela berriz  
erabilli zituzten gurdiyan  
loturikan erriz-erriz;  
egur batzubek jarri zizkaten  
bakoitzari erdiz-erdiz,  
zeñetan jartzen zuben beraren  
sententziya letra andiz.

23

Arturik denak Sankai erriyan  
ilbeltzaren beatziyan,  
Nangasakira oñez joateko  
jarri ziraden abiyen;  
berreun legua baziran eta  
zijoazten oiñ utsian,  
denak batian arturik kontuz  
gudariyaren erdiyan.

24

Alaz guztiyaz tristetu gabe  
denak zijoazten pozez,  
oñeko beatzak zitzaizkaten  
denari gogortu otzez;  
ontan bi gazte aien ondolik  
zijoaztenari, kolpez  
gudari batek galdetu ziyon  
kristauak ziran edo ez.

25

Biyak batean erantzun zuten:  
«Bai, jauna; gu ala gera,  
orreatatik aben ondolik  
erritik gatoz onera;  
aben pagua nai degu izan,  
ikaratutzen ez gera,  
ez degu nai guk iñola ere  
ukatu gure bandera».

26

Lotu zituzten bi gazte abek  
beste guztiyen tartian,  
ogei ta seira iritxi ziran  
zijoaztenak batian;  
Nangasaki-ra etziran bada  
abek iritxi artian,  
non jakiñik bertakuak irten  
ziran biria betian.

27

Irten ziraden kristau guztiyak  
presaka jaun abengana,  
belaunikaturikan bakoitzak  
eman baiziyen muiñ bana;  
iritxi ziran errira eta  
eskatu zuten baimena  
uzteko denbora ill baña len  
konfesatzen bear zana.

28

Ala egin zan: eman ziyoten  
baimena konfesatzeko,  
sokaz loturik zeudela elkar  
bata bestia artzeko;  
pentsatzen zuten gauza guztiyak  
nai bazuten esateko,  
bañan desioa osaturik  
ostera berak deitzeko.

29

Egin zituzten egitekuak  
eta guztiyak segiran  
asi ziraden joaten nor bere  
gurutzerako segiran;  
ogei eta sei lagunarentzat  
ainbeste gurutze ziran,  
lau kana bide batak bestera,  
itsas aldera begiran.

30

Martin Loinazek ikusirikan  
gurutze denak lurrian,  
jaun aientzako zeudela denak  
bata bestien urrian,  
joan zan segiran poza zubela  
bere biyotz xamurrian,  
eta asi zan gurutzeari  
musuka denen aurrian.

31

Gurutzearen gañean zuten  
borreruak prest paratu,  
zezaten an guztiyaren bistan  
azken pagua pagatu;  
eskuak eta gerriya sendo  
loturik zuten altxatu,  
alaz guztiyaz etzan batere  
gauz onekin ikaratu.

32

Jaungoikoari eskerrak zizkan  
zeguan lekutik ematen,  
bere betiko desio ura  
ari zalako ordaintzen;  
Japontarrari oso itz onak  
asi zan andik esaten,  
zeñaz bertatik asi ziraden  
bide onera jirutzen.

33

Modu onetan zegoala Martin  
borrero bik lantzak artu  
eta segiran saietsetikan  
ziyoten batetan sartu;  
bere begiyak malkoz beteak  
gora zituben altxatu,  
eta burua okerturikan  
gorputz egiña geratu.

Urriyaren 17-an, 1887-an.

*El último verso se publicó en la  
Euskal-Erria y en el Euskalzale de  
Bilbao.*

## Nere eztaiak

### Egun on bat

---

1  
Gaur degu egun ona  
parerik gabia,  
egiten naizena ni  
damaren jabia;  
noizbait bear zan eta  
jo du goiak bia,  
noiz izan da guretzat  
egun bat obia?

2  
Sakristira joan eta  
an zan *tenientia*,  
gure zai antxen zeguen  
jaun balientia;  
eman zuben meza ta  
gero errematia,  
esan ziran deitzeko  
nere emazia.

3  
Joakina aurretik zan  
Soto jaunarekin,  
eta ondoren Pepe  
amaidiñarekin;  
Ramon, Isabel, Pako  
Julianarekin,  
eta atzetik aita  
Rosariorekin.

4  
On Frantzisko Soto da  
gure apaidiña,  
eta andre Isabel  
ere amaidiña;  
gugatik egin dute  
oiek alegiña,  
nola ordaindu oien  
guri on egiña?

5  
Urrillaren ogei ta  
beatzigarrena  
eguna, poztu dana  
gu biyon barrena;  
guztiyak elizara  
joan giñan aurrena,  
gero biyak bakarrik  
artutzerera tren.

6  
Bitartian egiñik  
zenbait jira-bira,  
gaur Pepe ta Joakina  
elkartuak dira;  
gero despeiturikan  
joan giñan Frantzira,  
erri eder batera,  
oso urrutira.

7

Burdeos nai genuben  
gu biyok ikusi,  
eta birez an zerbait  
gauza on ikasi;  
ez giñaden ibilli  
entero itsusi,  
andik bueltatu giñan  
sonbrero ta guzi.<sup>1</sup>

Urrillaren 29-an, 1887-an.

Pepe Artolaren leenengo ezkontza egun ortan izan zan, Donostiako San Bizenten. Andregaiia: Joakina Urkola Iraola zeritzan, eta Zizurkilko Zubiaurretxo baserriko alaba zan. Bi alaba izan zituzten. Bigarrena jaio eta andik ogei egunera ama il zan.

---

<sup>1</sup> Sonbrerua ekartzeko emana ango dama batek Joakinari beste batentzat. (Pepe Artolaren oarra).

## Amagiyarrabaren etorrera

---

1  
Azaroaren ogei ta iruban  
gendubela apariya,  
Zizurkildikan etorri baitzan  
amatxo maitagarriya,  
kontsolatzera bere alaba  
Isabel berak aziya;  
komeni da ta egin zaiogun  
denak ongi etorriya.

2  
Etxian denak ongi baiditu  
beren lanetan lajatu,  
zarra izanagatik etzaio  
pausorikanean ajatu;  
bedorri onuntz etorri eta  
guztiyak gerade poztu,  
ama, emen ondo biziko da,  
geiago joan bear eztu.

3  
Gure onduan, ama maitea,  
denak ondo arturikan,  
emen ederki biziko da ta  
eztu, ez, joan bearrikan;  
etzaio emen ñoiz paltako  
bedorren otordurikan,  
gure onduan izan bedi, bai,  
biyotza txit pozturikan.

4  
Ederki jan ta patxaran egon,  
nai dan guztiya aukeran,  
deskantsu ona, nai dubenian  
apaldu ta oiera juan;  
bi suiarekin umore ona,  
bear duben dena eran,  
begira beza bostak batian  
zer ongi biziko geran.

5  
Bere mototsa apaindurikan  
elizara joan goizian,  
nai dan guziya izango du, bai,  
beok nai duben klasian;  
amabiyetan ondo bazkaldu,  
apariya arratsian,  
gero naiko far egingo degu  
denak bertan geratzian.

6  
Konforme bada gelditu bedi  
betiko gure onduan,  
ziñez guztiya esaten diyot  
au jartzen detan orduan;  
disfruta beza falta diraden  
egun pixk abek munduan  
beren aurrakin, beste askotxo  
izaten diran moduan.

Azaroan 27-an, 1887-an.

## Errege bezperan

---

1

Iru Errege gatoz  
presaka ta larri  
Belengo portalera  
gogoz izugarri,  
gure Jesus maitia  
ikustera sarri,  
intzentsu, urre, mirra  
eman nairik Arri.

2

Gaspar, Meltxor, Baltasar  
gera gu irurak,  
gaitza egiten digu  
gu denari urak;  
berotu nairik ondo  
tripa ta buruak,  
falta egiten digu  
gaur beon diruak.

Nola Orientetik  
gatozen onera,  
uste gabian denak  
etxi ontan gera;  
beongandik dirua  
degu gaur espera,  
zelebratu dezagun  
Errege bezpera.

4

Etxekoandre, nagusi,  
zerbait bekaigute,  
etxea degulako  
biziro aparte;  
ez badute ematen  
guretzat da kalte,  
kartzelara gaur denak  
sartuko gaituzte.

4

Despeitu bear degu  
onradamentian,  
gustora denak emen  
daudezen artian;  
emengo diru denak  
ditugu partian,  
etorriko gerade  
datorren urtian.

### **Estribilloa**

Zori onian gera  
etxe ontan gaur gu,  
oraindikan dirurik  
batere eztegu;  
baldin emen ondotxo  
bildutzen badegu,  
apariyentzat diña  
osatuko degu.

*Enero 5, 1888.*

## Ama falta

### On Antonio Arzak jaunari donkitua

---

1

Ainbesteraño maite ninduzun,  
parerik gabeko ama,  
zure denboran ni laztanduaz  
bizi izandu ziñana;  
arkitzen zera mundu ontatik  
gu emen utzi ta joana,  
zutzaz erruki dedilla gure  
Egillea eta Jauna!

2

Nere biotza dago eriya  
malko sendoaz loturik,  
berak daukarren sentimentua  
barrendik ezin botarik;  
miñak lotua dauka ta dago  
pena ta zauri egiñik,  
sosegatzeko eziñ sortu det  
ezer onentzako diñik.

3

Pentsamentuzko sorta bat dizut  
zuri eskeintzen gaur dana,  
au da zugatik seme on batek  
egiñ al lezakeana;  
zenbateraño oroitzen naizen  
ezin esan leike, ama,  
otoitzak ere eskeintzen ditut  
biyotzez beti zugana.

Otsaillaren 21-an, 1898-an.  
*Euskal-Erria*-n argitaratua,  
*el día 20 Febrero 1888.*

*Publicado en La Vasconia de Buenos Aires 1894 Abril 29.*  
Y Álbum vascongado.



## Malko sendo bat gurutze santuari

---

1

O Jaun aundiya, or guregatik  
zaudena gurutzeturik,  
pekatariya libratu nairik,  
esku ta oñak josirik;  
erruki zaite aul onengatik,  
jarri zaite kupiturik,  
bada nator gaur oso pozturik,  
biotza ere suturik,  
galdetutzera barkaziyorik  
izan ote nezaken nik.

2

Txingurritxo bat naiz, ez besterik,  
okertasunez beterik,  
bañan arki naiz txit damaturik,  
ez bezait itxi aterik;  
nere anima garbitu nairik  
gaitz egiña igarririk,  
zure gurutzepean jarririk  
nago begiyak bustirik,  
barkaziyoa eskatzen det nik  
biyotzen erdi-erditik.

1889-ko Aste Santuan (argitaratua).

Egiña Martxuen 20-an, 1888.

*Euskal Errian* argitaratua.

Apirillen 20-an, 1888.

*Publicado en El Correo de Guipúzcoa, 30 Marzo 1899.*

*Baserritarra, 15 Abril 1905.*

*Pueblo Vasco, Jueves Santo, 9 Abril 1914.*

## Donostiarrak Lizartzan

---

1  
Bost donostiar gera lanera  
Lizartzara etorriyak,  
zeñaz ditugun ikusi emen  
txit gauza ikusgarriyak;  
ariyaziko dizkitzutegu  
emengo gauza berriyak,  
gure begira azaldu ditu-  
benak Lizartza erriyak.

2  
Lendabiziko sartu giñaden  
ostatu xatar batera,  
indiyoano bat non azaldu zan  
guri jaten ematera;  
nai aña iñoiz ez digu eman,  
auxen da gauzen aukera!  
Zori gaiztoan sartu giñaden  
Domingo Trekun etxera.

3  
Ojaletazko kutxaria ta  
tenedore mutur motza,  
zopa gorriya ta baba beltza,  
geienetan erdi otza;  
gabian berriz oi zanpatuak,  
oriñalak falta ertza,  
ojaletazko fiña da guztiz,  
ezta austen txit erreza.

4  
Ostalariyen etxian ezin  
bizi liteke gizonik,  
jaten ez dutelako ematen  
sekulan ere gauz onik;  
erdi gosiak erukitzen du  
sartzen diranak kanpotik,  
gu beintzat gauden egun abetan  
eztegu bete triparik.

5  
Ogi erreza, zeziña eta  
baba beltz gaizki egiña  
ematen dute otordurako  
ta ori opa eziña;  
neskatxa degu buruaundi bat,  
izketan biziyo fiña,  
erropak ere baldan jantziyak,  
gañera mutur zikiña.

6  
Nagusiyaren muturrak ditu  
ikaratutzen guztiyak,  
gañera ditu otorduz jartzen  
bestek nai ezik utziyak;  
kanpoko gizon guztiyak gaude  
bildur-bildurraz jarriyak,  
iruriturik emen utziko  
ote ditugun biziyak.

7  
Eztegu iñoiz kaferik artu,  
ez arkume, ez txuletik,  
sagardo, koñak, ollo-salda ta  
egaztiyaren puxkarik;  
erri danetan joan da Gaizuma  
bañan emen ez oraindik,  
gu beintzat erukitzen gaituzte  
egun denetan baraurik.

9  
Sagardua're oiek bakarrik  
ematen digute saltzen,  
orreatikan gera guztiyak  
gabero bertara sartzen;  
iñori bañan obeagua  
digute beti ematen,  
gero beraren farolarekin  
gera etxeraño joaten.

8  
Kasinua da gauzik onena,  
ardua saltzen da ona,  
leialak oso illobatxua,  
Epifani ta amona;  
erri guztiyan famatua da  
etxe eder orren sona,  
oiek dirala meriyo degu  
ona gure osasuna

*Lizarza, 6 Abril, 1888.*

## Ama eta lau aizpak

---

1

Amak: Zer dakartzute onuntz  
orrela negarrez?

Alabak: Zer dakargun?

Amak: Bai; zer da?

Esan emen.

Alabak: Deus ez!

Amak: Bada zuben begiyak  
oso triste daudez.

Miñen bat al dezute?

Alabak: Bai; alaxen gaudez.

2

–Ama Euskara, ni naiz  
alaba zarrena,  
*Nafarroa* deitutzen  
dirate izena;  
gaitzak ni arrapatu  
ninduben aurrena,  
zeñaz daukaten oso  
tristeia barrena.

3

–Ni naiz berriz bedorren  
bigarren alaba,  
pontian jarriya det  
izena *Araba*;  
nere gorputza dago  
aiñ illun non gaba,  
ez daukat sosegurik,  
non-nai daukat traba.

4

–Eta zuk zer dakartzu,  
*Bizkaia* maitia?

–Lotsatu egiten naiz,  
Ama, esatia...

Nik ere daukat barren  
guztiyan katia,  
zeñak egiten diran  
gogorki kaltia.

5

–Ni okerragoa naiz,  
bedorren *Gipuzkoa*,  
burua daukat jo ta  
egiña bi puska;  
etsaiak etorririk  
nigana muturka,  
egin dirate denen  
artian burruka.

6

–Atozte onuntz, nere  
alaba gaixoak,  
zabaldurik ementxen  
daukazkit besoak;  
negarrez jartzen dira  
zuben gurasoak,  
etzautela ikusirik  
len beziñ osoak.

7

–Eziñ mugitu gera  
gauden modu ontan,  
triste pasatzen degu  
eguna frankotan;  
gabaz berriz ez degu  
sosegurik lotan,  
nekien poderioz,  
geren lekuetan.

8

–Ai!, denboraren mudak  
ekartzen du miña,  
pisutzen du gorputza  
len zana ariña;  
Amak senti du zubek  
sendatu eziña,  
alaz guztiz egingo  
du, bai, alegiña.

9

–Ama, ez bedi ola  
gugatik estutu,  
obe luke bedorrek  
au len-bait-len aztu.  
–Ez, alaba maiteak,  
arkitzen naiz estu,  
eta nai det, al bada,  
zuben gaitza poztu.

10

–Bañan erremedio  
guretzat bearra,  
sendatzeko barrenen  
daukagun miñ txarra,  
non billatuko digu?  
Jaun guztiz azkarra  
daukagu zeruetan  
itzaltzeko garra.

11

Erregutu dezagun  
belaunikaturik,  
biyotz-biyotzez denak  
ondo elkaturik;  
ea modu ontara  
Jaunak, kupiturik,  
eratzen ote digun  
erremediyorik.

12

Eta uste bezela  
sendatzen badigu,  
len degun bañan geigo  
maitatuko degu;  
lege erakutsiyak  
gordeko ditugu,  
egiñaz biyotzetik  
argana erregu.

*Mayo 2 de 1888.*

Saritua Donostian, 1890, Abenduan.

Argitaratua *Euskal-Erria*-n, Otsaillaren 20-an, 1891-an.

Correo de Guipúzcoa, 22 Abril 1901.

## Aritz bedeinkatua

---

1  
Jaungoikuak aritz bat  
zuben bedeinkatu,  
eta txit lur sendoan  
Gernikan landatu,  
euskaldunak zezaten  
biyotzez maitatu,  
eta bere frutuak  
sekulan ez galdu.

2  
Ala, euskaldun zarrak  
Jaungoikozko lanak  
gorde izan dituzte  
kontu aundiz danak;  
kunplitzen ere ziran  
Beraren esanak,  
gorderik ondo frutu  
aritz ark emanak.

3  
Etsaia nola beti  
dabillen tranpiyan,  
bota nai izan zuben  
jorikan gerriyan;  
utzi ere baizuben  
estura larriyan,  
oker-oker eginta  
iya eroriyan.

4  
Bañan euskaldun zarrak  
beregana joanik,  
eta zeuzkan zauriyak  
kontuz sendaturik,  
jaso zuten guztiyen  
artian lurretik,  
zeñak sendo loturik  
para zuten zutik.

5  
Orain ere etsaiak  
nairik lurperatu  
ekin diyote, bañan  
ez da lurreratu;  
egin diyotena da  
indarrez okertu,  
bañan zaiñ denak zaizka  
osorik gelditu.

6  
Zer esango luteke  
lengo gizon zarrak,  
lurreratu ezker  
aritzen adarrak?  
Ez, eatsi zaizkagun  
denok atzaparrak,  
sendatzeko gorputzak  
dauzkan atzamarrak.

7

Ea, gazteak, oraiñ,  
len zarrak bezela,  
baturik jaso zagun  
txit gora arbola;  
eman zagun sendakai  
daukagun odola,  
etsaiak ez dezaten  
mugitu iñola.

8

Sendatzen badiyogu  
dadukan zauriya,  
Jaunak bigalduko du  
guretzat sariya;  
izan dedilla koroi  
bat guztiz aundiya,  
berak estali dezan  
Euskaldun Erriya.

*Mayo 2, 1888.*

*Premiada y publicada*

*en Ibaizabal, 13 Abril 1902.*

*Pueblo Vasco, 2 Mayo 1906.*

## Jose Maria Iparragirre

---

1

Euskaldun danak dakigu zein zan  
Iparragirre prestua,  
bere egunetan izandu zana  
ipintzen euskal kantua.  
Zeñek ez dauka goguan arrek  
sortutako itz-neurtua,  
biyotzetikan irten zitzaion  
*Gernikako Arbol* santua?

2

Ori bakarrik asko litzake  
igartzeko Jose Mari  
zenbaterañoiko maitasuna  
zizon Ama Euskarari;  
beragatikan ikus izandu  
zuben, bai, zenbait komeri,  
amoriyozko itz egitiak  
etziran nonbait komeni.

3

Gerta zitzaion penaz betia  
Euskal Erriya uztia,  
au izandu zan aren barrena  
zauriz betetzen astia;  
utzi bearra Ama Euskara,  
ain zuben berak maitia;  
Amerikara joan bear ura  
ai aren barren tristia!

4

Amerikara joan zan bañan ez  
Euskal Erriyatzez aztu,  
etzitzaion, ez, maitasunikan  
sort-erriyagan eskastu;  
baizikan bertan amoriyozko  
asmo on bat zuben artu,  
zezazkiyen an Euskal Erriko  
aunditasunak kantatu.

5

Begiyak malkoz bustiyak eta  
biotza oso suturik,  
euskal gloriyak zituben mintza  
gitarratxo bat arturik;  
doai aundiko gizona zan ta  
zeriyon itza abotik,  
iduritzen zan irtetzen zala  
biyotzen erdi-erditik.

6

Eta nola ez, Euskal Erriyan  
laja baizuben biotza?  
Euskal izkera mintza orduko  
artutzen baizuben poza?  
Andik aditzen zuben emengo  
lege paketsuen otsa,  
esaten zuben: «Euskal Errian  
izan nai det eriotza».



7  
Noizbait bear da Amerikatik  
asi zan ematen jira,  
bere betiko amets gozora,  
bai, bere Euskal Errira;  
eta lenengo jarri zanian  
mendiyetara begira,  
arren pozezko antsi gozoak  
eziñ esan ainbat dira!

8  
Lendabiziko Jaungoikoari  
esker milla eman zizkan,  
osasun onez zetorrelako  
Euskal Errira andikan;  
inguru denak poztu ziraden  
zu emen ikusirikan,  
euskaldunentzat etzan izandu  
poza aundiyagorikan.

9  
Itz-neurtu eta soñu alaiak  
zenituben emen sortu,  
euskaldunaren biyotzetara  
zeñak diran gogoz sartu;  
ainbesterañoko naitasunak  
dizkigu barrenan lotu,  
iñola ere biotz guretik  
ezin dirade urratu.

10  
Igarorikan urte batzubek  
zure sort-erri maitian,  
ill ziñan, bai, zu, Iparragirre,  
euskaldunaren kaltian;  
Zure itz denak biyotz gurian  
dauzkagu ondo gordian,  
zeñak ez diran aztuko iñoiz  
bizi geraden artian.

11  
Zu ziñan gure maisu argiya,  
zu gure gidatzallea,  
Euskal Erriko aunditasunak  
munduan zabaltzallea;  
itz-neurtulari paregabea,  
euskal soñu sortzallea,  
itz batian, zu ziñan euskara  
biyotzez maitatzallea.

12  
Pentsamentuzko koroi bat dizut  
eskeintzen oroimengarri,  
zeña nai nuken beti-betiko  
zedorren gañian jarri;  
au gauza gutxi egitia da  
zure aunditasunari,  
baña biotzez da ta barkatu  
nere eskastasunari.

*Agosto 28, 1888.*  
*Argitaratua Brecha-n bi aldiz.*

# Arrantzalia

---

1  
Jaio orduko itsas aldera  
dijua lagunarekin,  
jostatutzera txalupetako  
arraun aundiyarekin;  
bertatikan da arrantzan asten  
lokarri txuri batekin,  
zeñen gaztetik arrantzarako  
griña dakarren berakin!

2  
Ikusten badu aita beria  
nola kanpora dijuan,  
eldurik diyo: «Aita, nik ere  
bedorrekin nai det gaur juan;  
emen ez det nik deus arrapatzen,  
ikusi nai det kanpuan  
arrai aundiyak nola atxitzen  
dituzten beok amuan».

3  
Aitak diyo: «Ez; beste batian  
etorriko aiz gurekin,  
oraindikanen gaztea ago,  
geldi ari amarekin.  
Zer uste dek ik: jostatutzera  
guazela urarekin?  
Ikaratuko intzake ango  
baga guztiz aundiyakin».

4  
«Ez naute, aita, ikaratuko  
baga ta ur aundi oiek;  
ikara nairik esaten dizkit,  
igartzen diyot neronek».  
«Negarrez ago? Zer gertatzen zaik?  
Esan zak bada prest: zer dek?».  
«Nik berorrekin gaur joan nai eta  
eraman nai ez berorrek».

5  
«Ixillik ago, ator, salta zak  
eta or exeri ari;  
eldu akiyok bi eskuakin  
sendo alki agonari;  
ez ariyen or txorabiyatu  
eta urtara erori».  
«Aita, nigatik ez ikaratu,  
aspaldi dakit igari».

6  
Utzirik ama eta portua  
arraunian joan dira,  
au da lenbiziko irteera  
itsaso zabal aundira;  
ariturikan an arrantzean  
ta gero emanik jira,  
badatoz beren kabi-txulora,  
badatoz beren errira.

7  
Onez aurrera ez du iñori  
ezer esan bearrikan,  
aitari ere deus galde gabe  
an da denen aurretikan;  
beste guztiyen zai egoten da  
bertan bakar-bakarrikan,  
ain borondatez ara sartuta  
zenek atera andikan!

8  
Orra bestiak bezela nola  
egin dan lanian gizon,  
ez da atzera begira egon,  
ez du denborarik itxon;  
lan gogortxua izanagatik  
arek arkitzen du txit on,  
etzaio bada iruritutzen  
lan oberik dala iñon.

9  
Ala munduko egun geienak  
ditu nekian pasatzen,  
ontatik baitu gurasoaren  
ogiya irabazitzen;  
bein edo beste kanpora gabe  
erriyan bada gelditzen,  
biotz erdian gauz txar bat balu  
bezela du ark sentitzen.

10  
Eta nola ez, uren ertzean  
sortua bada mundura?  
Beste gauzarik etzaio bada  
jaiotzen ari burura;  
ate txikiyak jaio orduko  
maite duten gisan ura,  
modu berian onek maitatzen  
du itsaso aundi ura.

*Octubre 17, 1888.*

Argiraratua:

*Euskal-Erria-n, Agorren 30-an, 1889.*

*En La Voz, 23 Mayo 1899.*

*Pueblo Vasco, 4 Mayo 1914.*

## Moiuaren liburutxorako

---

1  
Donostiyako seme guztiyak  
zaitu zu ezagututzen,  
dakizulako borondatia  
denari irabazitzen;  
guztiyak oso zaituzte maite,  
zugatik ala det aitzen,  
zure ondotik beñ edo beste  
baldin bagera pasatzen,  
zure arpegi partsuarekin  
gaituzu diesol<sup>1</sup> egiten.

2  
Biyotz oneko galai prestua,  
soñu jotzalle aundiya,  
musika doñu kantatzallien<sup>2</sup>  
maisu onorezko argiya;  
pare gabeko borondatia  
dezula da igarriya,  
erriko xeme guztiyak zaitu  
biyotzez maitagarriya,  
nere aldetik desio dizut  
urte askoko biziya.

*Octubre 27, 1888.*

---

<sup>1</sup> *Saludo*. (Egillearen oarra).

<sup>2</sup> *Orfeón*. (Id.)

**Euskaldun bat bere erriyan  
On Antonio Arzak jaunari  
(Urzo txuriyen doñuban)**

---

1  
Joanik Euskal Erritikan  
sartu nitzan Amerikan;  
igaro ditut urte batzubek  
biyotza penaturikan,  
iya miñez jarririkan,  
diruz jabetu nairikan.

2  
An izan detan sariya  
zan biyotzeko zauriya;  
pentsamentura beti etortzen  
zitzaidan Euskal Erriya,  
leku estimagarriya,  
ni sortu nitzan kabiya.

3  
Nere mendi ta ingurua  
zitzaizkidan maiz burura;  
ara joateko griña txar batek  
jarri ninduben erua;  
naigo det nere txulua,  
eta ez ango dirua.

4  
Modu berian pentsatzen  
nituben gabak pasatzen;  
nere sorterri maitagarriya  
zitzaidan beti oroitzen:  
zeiñ ongi nintzan bizitzen  
gurasoakin ni emen.

5  
Zori onian naiz sartu,  
biyotza zait txit lasaitu;  
berriz ez det iñora ere  
zuregandikan aldendu,  
baizikan nai det geratu,  
nediyen oso sendatu.

6  
Kanpo guziyen igasi,  
buelta naiz eziñik etsi;  
nere guraso aldamenian  
lasaitasuna zait asi;  
emen nai det beti bizi  
ta nere ezurrak utzi.

7  
O Ama maite Euskera,  
bedeinkatutako izkera!  
Zure mantupe paketsutikan  
irten ta izandu gera;  
bañan gaur degu ezaguera  
ta zugan nator ostera.

8  
Ez naiz, ez, zugandikanen  
asiko berriz aldentzen,  
Euskal Erriko lur gozotikan  
kanpoetara aldatzen;  
an ez nitzan ni arkitzen,  
emen nai det izan, emen.

*Noviembre 4, 1888*

*Euskal-Erria-n argitaratua, Agoztuen 20-an, 1890-an. Unión Vascongada, 3  
Julio 1892. Región Euskara, 9 Mayo 1907.*

## Eguarri-Erregiak

---

1

Urte guzian aritzen gera  
guraize ta labanakin,  
ur bero, otza, orrazia ta  
jaboi apardunarekin;  
apaindu eta gaztetzen degu  
alegin guztiyarekin,  
konpontzen gera aberats, pobre,  
eder, gazte ta zarrekin.

2

Urtero bezela aurten ere  
onuntz datozen jaunari,  
desiatutzen degu morroiak  
osasan ona danari;  
zeñaz biyotzez esaten degun  
zelebratzeko Eguarri,  
despeitu ondo Urte Zar eta  
ongi asi Urte Berri.

3

Naitasuna guk degun bezela  
onuntz datozen denari,  
ala berian nai genuke guk  
beok izatia guri;  
nai baldin badute zerbait beok  
eman Anton ta Joxeri,  
begiratu bezaiote bada  
gure *bandeja* zar orri.

*Diciembre, 1898.*

**Biyotz bi batu  
edo egun on bat  
(Pepe Leclerc eta Karmen)**

---

1  
Alde batera utzirikanen  
gaurko egunaz pozoia,  
zelebratu nai nuben barrendik  
gaur zetorkiran sasoi;  
modu berian goiz jeiki eta  
nik gaur utzi baitet oia,  
entzutatik San Bizenteko  
elizan zuben pregoia.

2  
Gaur da lenengo pregoia eta  
igandian da bestia,  
azkenekua bukatutzian  
au ta urrenko astia;  
biyotz birekin bat egingo da,  
ala det beintzat ustia,  
Pepe Leclerc-ek deituko diyo  
Karmenxori: emaztia.

3  
San Gumersindo eguna da ta  
ilbeltzaren amairua,  
lenengo pregoi izaterako  
igande aukeratua;  
gaurko eguna izango degu  
denok goguan artua,  
gaur urte bete izan dedilla  
aben lenengo frutua.

4  
Ez asarratu emen esaten  
detalako gaur egiya,  
gizon bakoitzak bear du noski  
andre bat maitagarriya;  
orain artuko diyote oiek  
bata bestien neurriya,  
biyotzetikan desio det nik  
urte askoko biyiya.

5  
Gauza geiago esan nai nuke  
bañan, ai!, barrenak eziñ,  
zubengatikan Pepe Artolak  
eztaki bada zer egiñ;  
gauza klarua komeni da ta  
esango dizutet berdiñ:  
biziyo pozez joango nitzake  
neroni zuben apaidiñ.

6  
Aitu dezute nere barrenak  
esan nai zuben kontua,  
(askok nigatik esango dute:  
«Ai ori gizon tontua!»;  
bañan ez dezan iñork izan gaur  
naigabe ta enkantua,  
gitarra juaz ipiñi zagun  
umoria ta kantua.

*Enero 12, 1889.*

## Zelebkeriya

---

1  
Manis-enetik ikusi degu  
gaur komeri bat ederki,  
jiboso batek parroki dena  
aterako digu aurki;  
leio berriya jarri nayian  
zulo bi dituzte iriki,  
andre gaxuarentzat guztiyak  
gerade bada erruki.

2  
Kiskur poltsa bat kolkuan eta  
anketik tiraka ama,  
berriro ere jiboso orrek  
erukiko du, bai, fama;  
gorriz pintatzen egin du Beltzak  
egun ontan naiko lana,  
Exposiziyora juan liteke  
erakutsitzera dana.

3  
Ama anketik tiraka eta  
andria berriz blusatik,  
ez dediyen gizajoa erori  
patin zulora leiotik;  
langille denak egongo dira  
miseriyan oiengatik,  
berak pintatzen eman nai ezik  
pintoriari arditik.

4  
Jibosua ari zan makurka  
tripa lurrian jarrita  
koloria zurari ematen,  
pintura zuben gorrista;  
bere andriak ematen ziyon  
eskura bretxa bustita,  
altxa ta joan zan txoko batzubek  
pintatu gabe utzita.

5  
Kalotadun atsua ta errañak  
diyote ankari eutsi,  
ez dediyen txirrista egin ta  
goitik bera joan igesi;  
oiek orrela luzaro xamar  
ezin litezteke bizi,  
laister bigalduko dituzte oik  
beren kalota ta guzi.

6  
Ama, aita, andri ta bera  
lanian or jardun dira,  
gu berriz beren lan guztiyari  
Manis-enetik begira;  
otzak pasata katarro zarrak  
arrapaturik baitira,  
gastatu nai ezik joan dira  
denak Miserikordira.

*14 Enero, 1889.*



## Justatxori Egiya

---

Ikusten al dezute  
izar bat argiya,  
zeruaren erdiyan,  
txit dizdizariya?...  
Uraxen da Justatxo,  
ara joan berriya.

*18 de Enero de 1889.*

## Dama Beatriz Muñoari eskerrak

---

1  
Ordu banuen eta  
gaur nator zugana  
buelatzera lotzeko  
eman ninduzuna;  
oraindaño ez dizut  
ekarri, zer pena!,  
bañan barka nazazu  
egin detan lana.

2  
Milla esker dizkitzut  
gaur ematen zuri,  
eman ninduzulako  
paper oiek neri;  
oso politak dira,  
letu ditut ongi.  
(orrenbeste denboran  
milagro ez da ori).

3  
Beste bat arte, dama  
begiragarriya,  
biyotz ona dezu ta  
ederra begiya;  
zerbaitez beartzian  
ara esan egiya:  
pozik egingo dizut  
nai dezun guziya.

*24 de Enero, 1889.*

## Brindis edo aboz botia

**Iparragirre: ópera.**

*(Banquete en honor de los autores del Iparragirre).*

---

Gaztea oien borondatea  
nola arkitu eta non?  
Etzait bada, ez, iduritutzen  
izango degunik iñon;  
*Iparragirre* azaldu dute,  
egin diguna guztiz on;  
aurrera segi beti orrela,  
Lopez, Altuna ta Gimón.

*Marzo 9 de 1889.*

Argitaratua periodiko denetan,  
eta *Laurak-bat* Buenos Airesetan.

## Mendiko semia

---

1  
Zori onian bizi dira, bai,  
jaio diranak mendiyán,  
Jaunaren beldur santuan azi  
diranak beren kabiyan;  
pozez beteak arkitzen dira  
nor bere jaio-tokiyan,  
aritu arren lan gogorretan  
beren denbora guztiyan.

2  
Txoritxo batek bere kabiya  
maite duben ta geiago  
maite du gizon menditar batek  
mendiyán zeññtan dan jaio;  
ainbesteraño biyotz barrenan  
maitasuna sortzen zaio,  
zeññaz andikan irten arren au  
iñoiz aztutzen etzaio.

*10 Febrero 1894.*

Publicada en la *Euskal-Erria*, el día 10 de Set. de 1890; en *El Guipuzcoano*, el 6 de Octubre de 1890; *La Vasconia*, de Buenos Aires, 10 Febrero 1894.

## Elkoro apaizak bere lagunari eta familikoari bigalduak

---

1  
Larogei urte, umore ona,  
familiya txit aziya,  
bost illobatxo biziro onak,  
denak dutela graziya;  
izarra bañan ederragoa  
amar urteko Mariya,  
Elisa berriz zortzi urteko  
aingeru zoragarriya.

2  
Argiyagoa du Santiago,  
maitagarriya guztiz da,  
saiatzen dana gauzak ikasten  
eskolan beti, al bada;  
orixen bañan eskaxagoak  
franko bazterretan bada,  
aurten ere ark atera ditu  
eskolan iru *a, a, a...*

3  
Migel da oso mutill bapua,  
zernai gauza du egiten,  
edozer moduz etxeokari  
diyo parra eragiten;  
txintxotasunan lanari diyo,  
diyo txit gogor ekiten,  
ala etxeke nagusitzako  
serbituko du, bai, aurten.

4  
Alaba zarra paregabia  
Jazinta da denarekin,  
txit aur zalia, begiratzen du  
borondate onarekin;  
espillua da familirako  
duben naitasunarekin,  
ezin liteke famatu ori  
euskerak duben itzakin.

5  
Eta non degu andre Manuela,  
fedea santuan aziya?  
Ori da denen alegrentziya,  
denentzat dauka graziya;  
baliyo ditu, bai, Amerika,  
Españiyya ta Frantziya,  
itz batian da mundu ontako  
gure kontsuelo guziya.

6  
Desiatzen det egun ontxo bat  
biyotzetikan bedorri,  
gañera beste jaun Amezaga  
eta jaun On Bernardori;  
egun eder bat goza bezate  
dibertituaz ugari,  
ta eskumuñak nere partetik  
eman lagun guztiyari.

## Sanperio-ri

---

1  
Apirillaren lauba  
gerana juntatu  
kuadrilla egokiya  
biziro kontentu;  
oraiñ umore onez  
biegu kantatu  
eta Sanperioaren  
kontuak kontatu,

2  
Luis da pelotari  
oso egokiya,  
ankak pizkorrak eta  
burua argiya;  
oso elegantia,  
besoa biziya,  
edozein aldetara  
dauka maleziya.

3  
Elizegirekin bein  
zan Luis elkartu,  
ta azpeitiarrari  
pelotan jokatu;  
Mardura ta Baltasar  
ziran kontra sartu,  
etzuten egun artan  
tratu txarra artu.

4  
Partida azkar zuten  
abek irabazi,  
Luisek zobelako,  
bai, zenbait malezi;  
abillidade asko  
zuben erakutsi,  
sekulan ezto orrek  
partiduban etsi.

5  
Portal bi anaiari  
bein Mardurarekin  
elkartu ziran bada  
txit mardularekin;  
gogor ziyoten bada  
lan orreri ekin,  
bañan Luis irten zan  
onoriarekin.

6  
Ain da mutill prestua  
eta txit noblia,  
ezin arki liteke  
beste bat obia;  
lagunarterako da  
oso dotoria,  
nola ordaindu arri  
gure meseria?

7  
Dirua maiz xamar du  
onera bigaltzen,  
lagun guztiyak gaitu  
noiznai konbidatzen;  
dirua bigalduta  
degunian artzen,  
pozarekin guztiyak  
gera dantzan jartzen.

8  
Txanda batian zuben  
bost duro bigaldu,  
zori onian ziran  
onera azaldu;  
genubengan denak  
etxian afaldu,  
komeriyak egiten  
giñaden ibildu.

9  
Beste bost duroko bat  
zanian iritxi,  
alegratu giñaden  
ta ez ere gutxi;  
naiko ardo tripara  
genizaigun jatxi,  
gero dantzan gustora  
Manuel ta Patxi.

10  
Lenengo diruakin  
karakol jatia,  
gogoratu zitzaien  
biltzera joatia;  
gogora giñan zutzaz,  
bai, Luis maitia,  
desiatuko gendun  
emen izatia.

11  
Lagun guztiyen partez  
Eusebiyok zuri  
eskerrak bigaldutzen  
dizkitzu ugari;  
orain zerbait zuk egin  
nai badezu guri,  
kuadrilla egokiya  
gera gaur ageri.

12  
Despeditu nai degu  
gaudezen tokitik,  
oroituaz zugana  
guztiyak gogotik;  
bigaldutzen dizugu  
Errenteriyatik,  
agur gozo-gozo bat  
biyotz-biyotzetik.

*5 Abril, 1889.*

## Arandia

---

1  
Bertso berri batzubek  
nik lagun zarrari  
berak kantatu ditzan  
bear ditut jarri;  
komeni zaizka eta  
argatik naiz ari  
dozenatxo bat bertso  
iskribatzen arri.

2  
Au lenengo zanian  
mendira aldendu,  
onore guztiz onak  
ziran beregandu;  
lagun denen artian  
aguro zan gaindu,  
erregen batalloira  
zuten aukeratu.

3  
Orrelako zenbat gauz  
ditu onek egin,  
lan denari txit gogoz  
diyolako ekin;  
fabrika aundiyan dabill  
egun lanarekin,  
oso kontentu dira  
nausiyak berakin.

4  
Beti egiten baitu  
onek egiñala,  
etzazutela pentsa  
au gezurra dala;  
jendiak txit maite du  
dalako formala,  
noiznai ateratzen du  
duroko jornala.

5  
Koltxoi gaiak egiten  
du modu aundiya,  
anka pizkorrak eta  
begiya argiya;  
latigua ibiltzen  
da txit egokiya,  
Arandia da fabrikan  
azkarrena iya.

6  
Oso doñu ona du  
bertsuak kantatzen,  
berak ere badaki  
puntuak botatzen;  
errebotian ere  
zanian jokutzen,  
ori ibiltzen zuten  
tantuak kontatzen.

7  
Estrañatu zanian  
plaza berri ori,  
Jose Benito zuten  
tanto kontalari;  
donostiarrak zeuden  
begira berari,  
arriturikan bere  
eztarri onari.

8  
Kafian ere noiznai  
astian kantatzen,  
altutik ari arren  
au ezta kantsatzen;  
lotan daudenak ere  
badaki esnatzen,  
denak berari begira  
azkar dira jartzen.

9  
Borondate ona du  
zernai gauzarako,  
ez da jaiua ori  
boltsan gordetzeko;  
askotan daukanean  
zerbait erateko,  
ez du kupirarikan  
dubena emateko.

10  
Iñauteri batian  
denari far eten  
ziyon zalako ori  
pregonari irten,  
esanaz: «*Sale biyar  
el vapor San Miguel;  
amite viajeros,  
pasajeros también*».

11  
Pillotan jokatu du  
gaur Retegirekin  
aixa nastutzen zuben  
bi paretarekin;  
batian jo du onek  
ain indarrarekin,  
pareta karrakatu  
du pelotarekin.

12  
Gauza on bat zait orain  
etorri gogora,  
aprobetxatuteko  
orain da denbora;  
nola Parisen aurten  
jarri duten moda,  
zuaz sugurrarekin  
*Exposiziyora*.

25 Abril, 1889.

**Nere bizimoduba  
Manu kanta saltzalliak  
bere buruarentzat jarri aziyak**

---

1  
Nere bizimoduba  
nai nuke kontatu,  
bizi ez naizelako  
biziro kontentu;  
alargundu nitzan ta  
iya naiz itxutu,  
alderdi egokiyak  
nau orain atxitu.

2  
Itxuba nuben suertez  
lenago senarra,  
izaten nuben gaxo  
arentxen bearra;  
bañan ill zan ezker  
nabill ni bakarra,  
ezer anparo gabe  
ta gañera zarra.

3  
Len kanta zarrak saltzen  
giñaden pasatzen,  
bi txanpon bererikan  
genituben artzen;  
bañan orain neretzat  
ezta ezer azaltzen,  
egun guztiyan ez det  
zortzi paper saltzen.

4  
Gauza berriz ari da  
garextiatutzen,  
pobriarentzat ez da  
iñor urrikaltzen;  
nai duten preziyua  
nola duten jartzen,  
zeñek pagatuko du  
ez badegu biltzen?

5  
Lenago babarruna,  
ogiya ta baba,  
askotan sobratuta  
izan degu laga.  
Bañan orain zer degu?  
Non-naitikan traba.  
Nere bizimoduba  
txarra ezta bada?

6  
Aza, patata, porru,  
tipula, ogiya,  
naiz dala arraia ta  
edo aragiya,  
lukaiñka, urdai presko  
eta odolkiya,  
denari jarri zaio  
preziyo aundiya.



7  
Neurriyak berriz bai len  
zirala aundiyak,  
bañan gaur, Jesus ona!,  
ain dira txikiyak;  
jan gauzak bezelaxe  
ala erariyak,  
urez busti bearco  
gure eztarriyak.

8  
Bada modu onetan  
ezin neike bizi,  
beste zerbait bidera  
bearco det asi;  
ez det koxkak egin ta  
asi nai igasi,  
orduban kartzelara  
traste zar ta guzi.

9  
Ez nuke nai kalian  
ibilli eskatzen,  
ez, ez, ez dit barrenak  
orretan laguntzen;  
eskatu gabe inork  
balira laguntzen,  
ikusiko luteke  
amona pixkortzen.

10  
Bañan suerte txarrak ni  
nola nauen tira,  
beti modu ontara  
bearco det jira;  
nere esanak ontzat  
artzen ez badira,  
orduban sartuko naiz  
Miserikordira.

Manu  
*20 de Junio, 1889.*  
Argitaratua saltzen.  
(Inprentatu eta bertso-paperetan  
saldua izan zala esan naiko du).

1

Modua banu zerbait  
ariyatitzeko  
eta izar orrentxen  
onak zabaltzeko,  
saiatuko nitzake  
zerbait agertzeko,  
merezizak dituben  
gauzak zabaltzeko.

2

Ori beziñ lirañik  
danik ez det uste,  
ezin det ariyazi  
mereziz ainbeste;  
orri begira jartzen  
dira zenbait gazte,  
eta ezkutatzian  
penaturik triste.

3

Nola ez begiratu  
gaztiak berari,  
baldin begiyak deitzen  
badigu denari?  
Eta begiratzian  
bere begiyari,  
bista kendutzen digu  
beriala guri.

4

Ta illia ugari,  
fiña ta beltzara,  
orraziak egiten  
diyo txirristara:  
aiziak ere pozik  
bere zarrastara  
egiten diyo joanik  
gauz eder artara.

5

Arpegi graziduna,  
begiyak izarrak,  
masall borobill, pollit,  
gorritu xamarrak;  
marfilla bezin fiñak  
ortz illera ederrak,  
ta gaztiak txoratzen  
ditu bere farrak.

6

Lenengo gerri mia  
oberik eziñak,  
eta petxu borobill  
moldian egiñak,  
dira torniatuta  
bezela berdiñak;  
begiratzien dunari  
kentzen dizka miñak.

7

Boza berriz, ai Jesus,  
zer gauza gozua!  
Zer eztiya! Diruri  
basoko xoxua;  
bereganatzen daki  
inguru osua,  
abiyatzen danian  
kantatzen *Uxua*.<sup>1</sup>

8

Ariyo, izar eder,  
txori kantariya,  
edertasun aundiko  
espillu garbiya;  
eguzkiyen gisako  
argi mirariya,  
(zu zerala meriyo  
txoratu naiz iya).

*Junio 22, 1889.*

(Bertso bakoitzaren leenengo letra  
artuta, *Montalba* irakurriko degu,  
sorta au eskeintzen zaion andereño-  
aren abizena, alegia).

---

<sup>1</sup> Uso txuriya erraizu... (Egillearen oarra).

## San Juan bezperan Tolosan

---

1  
Aurtengo San Juanetan  
Tolosako erriyak  
azaldu baitizkigu  
txit gauza berriyak;  
ikusi dira plazan  
festa egokiyak,  
kontuan izango du  
gure memoriyak.

2  
Zezenetara giñan  
donostiarrak juan,  
zelebratu nayian  
ango patroï San Juan;  
bapo bazkaldu eta  
sartu giñan plazan,  
kontaktuko dizutet  
zer pasatu zan an.

3  
Toriadore ziran  
sei lagun bakarrak,  
kanpotik etorriyak,  
etziran kaskarrak;  
zezenak berriz lau fiñ,  
odolez naparrak,  
jeniyo bizidunak,  
ankaz txit azkarrak.

4  
Lenbiziko zezenen  
jeniyo biziyak  
ikaratu zituben  
an ziran guziyak;  
eta nola azaldu  
etziran zaldiyak,  
jo ta bota zituben  
gorputz estaliyak.<sup>1</sup>

5  
Gero bere ankeko  
azkazala jorik,  
plaza erdiyan laja  
baizuben osorik;  
gero boina bat zula  
bota baitzan goitik,  
tripara sartu zuben  
maskatu gaberik.

6  
Noizbait ziñu egiñik  
makilla sartzeko,  
batek bi sartu zizkan  
(boina maskatzeko);  
pildoratzat serbitu  
ziyon botatzeko,  
gero jabiak jaso  
zuben gordetzeko.

---

<sup>1</sup> *Burladores*. (Egillearen oarra).

7

Ainbeste gaiztokeri  
nola egin zuben,  
iltzeko sententziya  
atera ziyoten;  
milla ezpatazokin  
purrakatu zuten,  
eta adar bakarra  
andik zuten eten.

8

Bigarren irten zanak  
adar bat osorik,  
esan genuben: «Emen  
etziok gauz onik».  
Ala lenguen gisa  
gaiztoa izanik,  
bertan garbitu zuten  
ezpata sarturik.

9

Irugarrena ere,  
adar bakarrekin,  
jorik ol bat arki zan  
bat ura birekin;  
baña gauz onik nola  
etzeguen onekin,  
bestien gisa zuten  
ill ezpatarekin.

10

Laugarrenengatikan  
zeuden denak pozak,  
esanaz: «Ark izango  
al dizkik zorrotzak».  
Bañan pentsamentubak  
beti aldrebesak,  
onek irten zituben  
adar biyak motzak.

11

Gizon bat azaldu zan  
(au aztuko etzat),  
ai zer mokuara ona  
zezen fiñ arentzat!  
Bañan *aguazill* batek,  
egiñik zezentzat,  
segiturik atxitu  
zuben berarentzat.

12

Aurten aña far ez det  
aspaldiyan egin,  
kontentu gelditu naiz  
zezen naparrakin;  
askoz gustorago, bai,  
sagardo onakin,  
argatik naiz aiskide  
tolosarrarekin.

–Compañero: zezenak onak ziran?

–Ez; gaiztuak.

Donostiar batek  
Argitaratua Tolosan, 1889.

**Santa Maria Magdalena egunian**  
**Ignazio Tabuyo-k**  
**Errenteriko elizan kantatua**

---

*Solo barítono:*

Pozez gatoz zugana,  
Birjiña Mariya,  
Jesus onaren Ama  
oso mirariya;  
izar paregabia,  
zeruko argiya,  
izan zazu guretzat  
miserikordiya.

Mariya Magdalena  
pekatuan zana,  
negarretan urturik  
joan zan Jesusgana;  
gu ere, pekatariyak,  
nairik joan zugana,  
errukiturik artu  
gaitzazu zuk, Ama!

*Coro:*

Zure anparo pian  
geradenak azi,  
beti dizkigutzu gauz  
onak erakutsi;  
argatikan fedea  
ez degu nai utzi,  
baizik Jesusen lege  
ona sendo eutsi.

Erregutu dezagun  
Birjiña Amari,  
egiñaz biotzetik  
otoitzak ugari;  
berak banatu dezan  
emen geranari,  
amorez begiratzuz  
Errenteriyari.

Pekatariyen Ama  
kutsu gabekua,  
eskatutzen dizugu  
zuri anparua;  
erabat utzirikan,  
bai, mundu erua,  
izan dezagun gero  
betiko zerua.

*17 Julio, 1889.*

*La música fue escrita expresamente  
para ese día y para Tabuyo por el  
maestro Cándido de Soraluze, e  
igualmente la letra por José Artola.*

## Ignazio Urangari bere izen egunian

---

1

Zer gertatzen da nere barrenan?  
Auxen da alaitasuna!  
Gaur berritzen da zuri, Inaziyo,  
nik dizudan naitasuna;  
zedorrek ere ondo dakizu  
beti lagun on nazuna,  
bada benetan desio dizut  
luzaroko osasuna.

3

Desio dizut biyotzetikan,  
nere lagun zar maitia,  
gaur bezelako egun on asko  
urtietan izatia;  
zure puska on maitagarria  
asko xamar ikustia,  
gaur urte bete izan dezazun  
betiko zure emazia.

2

Iskribatzalle jostalariya,  
graziz ornitutakua,  
dirudizuna erramu gazte  
oso orritutakua;  
gutxi bezela entendimentuz  
Jaunak irikitakua,  
euskal izkera zabaldutzeko  
onuntz etorritakua.

4

Esanak esan, zure izenez  
bear det alaitu oso,  
pasa dezatan gaurko eguna  
barrendikan gozo-gozo;  
ta nola dagon Erreteriyen  
sagardo ona eroso,  
zure kontura erango ditut  
berrogei ta zazpi baso.

*31 Julio, 1889.*

Bertso aukeratuak duen jauna Juan Ignazio Uranga izango da ziur asko, erreteriarra, 1863-an jaioa eta 1934-an illa; bertso-jartzaille ugaria eta antzerkiren batzuk ere idatzi zituan.

## Errenteriar pilla, zer kuadrilla!

---

1  
Ama Birjiña gaba  
da señalagarri,  
iñulabar aldera  
zirala etorri;  
emen ibilli ziran  
jira eta korri,  
aur txikiyak bezela  
elduta elkarri.

2  
Oso berandu ziran  
Donostira sortu,  
ez dakit nik nondikan  
ziran onuntz sartu;  
ez genuben oiekin  
tratu txarra artu,  
beren marruarekin  
ginduzten txit gortu.

3  
Tabernatik taberna  
sartu ta atera,  
bederatzi alproja  
ziran jo batera;  
eta andik irtenik  
berriz zurrutera,  
azkenik balantzaka  
joan ziran *Nortera*.

4  
Zerbeza ta puruak,  
kopa ta kafiak,  
azkar kendu zizkaten  
denari ajiak;  
aztu zitzaizkaten, bai,  
ango potajiak,  
dena ustutzen zuten  
naiz bestek lajiak.

5  
Arro-arro eginta  
denak berriketan,  
batzubek irrintzika,  
bestiak kantetan;  
marruaz ari ziran  
denak barren artan,  
*Ijinio* jartzeraño  
gogor erriyetan.

6  
Trenak igas eginta  
kotxiaren billa,  
denak erdi nasturik,  
ura da naspilla!  
Orduan ziruditen  
bazirala milla,  
ez eruki bazuten  
tripa zaku illa.



7

Batek ziyon: «Ni oñez  
baniak etxera».

Bestiak: «Goazen kotxe  
bat billatutzera».

Orla ibillirikan  
atzera ta aurrera,  
azkenian joan ziran  
zesto zar batera.

9

Txokolatia zuten  
batzuben eskatu,  
bestiak zerbeza ta  
orla zenbait kontu;  
azkenerako denak  
ziraden mozkortu,  
goizeko labak jota  
ziran etxeratu.

8

Kotxerua mozkorra,  
berak erdipurdi,  
birian ibilliyak  
dirade egoki;  
Ategorritan zuten  
taberna iriki,  
batek miña zubela  
egiaz aitzeki.

10

Naiago det oiekin  
ez naizen ibiltzen,  
argatik oien kontra  
ez naiz ni ixiltzen;  
berriz oiek onera  
badira etortzen,  
lagunduko diyotet  
kartzelara sartzen.

Agoztoko Ama Birjiña gabian,  
1889-an.  
*17 de Agosto de 1889.*

## Parisen egun bat

---

1

Euskaldun bat Parisen  
degu bisitatu,  
ta orfeoiak beren  
etxian kantatu;  
denak geratu dira  
biziro kontentu,  
ango pasadizua  
bear det kontatu.

2

Daniel Artola zan au,  
Donostiyakua,  
erritar denengandik  
oso maitatua;  
lendik zuben desio  
agertutakua:  
aditu naia gure  
euskaldun kantua.

3

Ala kantatu ziran  
euskaldun kantuak,  
Donostiko txuluan  
ikasitakuak;  
bidez soñua jotzen  
gera arituak,  
irurogei bat lagun  
denak elkartuak.

4

Ontan bat, Agirretxe,  
gitarra arturik,  
abiyatu zan jotzen  
erdiyan bakarrik;  
iñoiz ez det aditu  
ain gauza ederrik,  
denak laja zituben  
oso arriturik.

5

Aiñ du esku azkarra  
non bata non beste,  
ez dakit nola jotzen  
duben orrenbeste;  
aiñ goxoro jotzen du  
zeñaz detan uste  
pozez jartzen dirala  
len daudenak triste.

6

Emakume ta gizon  
ziranak arkitzen,  
guztiyak asi ziran  
azkar txalo jotzen;  
nere partetik ere  
det gogoz ekiten,  
dubelako saiua  
aiñ ondo egiten.

7

Buka genubengan  
soñu lan guziya,  
beste soñu eder bat  
sortu zan berriya;  
au da an guri eman  
zigun afariya,  
arrek baliyo zuben  
Igeldon erdiya.

8

Nola genezaguke  
ordaindu jaun arri,  
ainbeste digulako  
egin guztiyari?  
Ez da baliyorikan  
pagatzeko on ori!  
Beti izango degu  
guk oroimengarri.

*Paris, 18 Setiembre 1889.*

## Parisko Eiffel-ko torriaren muturrian

---

1

Desio nuben beti Parisko  
Eiffel torrera igotzia,  
beetikan oñez abiyatu ta  
muturrera iristia;  
ala det gaur nik desio ori  
beterikan ikustia,  
zeiñ ederra dan lan aundi ori  
ezta modu esatia.

2

Iruritutzen zitzaidan egan  
nindutela jaso gora,  
eguzki garbi zoragarriya  
ibildutzen dan ondora;  
ainbeste gauza ikusi eta  
etorri zaizkit gogora,  
poz geiegikin ez dakit nola  
bertan ez naizen ni zora.

3

Muturretikan euskal aldera  
aurren naiz begira jarri,  
ezin aspertu nitzan begira  
egotez andik berari;  
eguzki garbi orrek nolatan  
argitzen zuben lur ori,  
ta lurperatu agur egiñaz  
bere mendi tontorrari.

4

Zori oneko lur maitatua  
garbi zerana arkitzen,  
eguzkiyaren printzak ere zu  
zaitu osoro argitzen;  
inozentziko mantu txuriyak  
soñian dizu luzitzen,  
mantxarrik gabe zeradelako  
jaio ezkeru azaltzen.

5

Nere biyotzak zerbait emendik  
nai lizuke adierazi,  
zure mantupe zoragarriyan  
naizelako ondo azi;  
laister banator aunditasun ta  
edertasunen igasi,  
nere betiko kabi maitian  
naigo det pakian bizi.

Parisen, 19 Setiembre 1899.  
*Publicado:* Euskal Erria, 30 Julio  
1891.

## Xanet-i

---

1

Nexka oso polita  
eta graziduna,  
arpegi biribilla,  
larru fiñ leguna;  
begi argik, masalla  
kolore ederduna,  
abo txit moñoñua  
eta txit iztuna.

2

Ain da zoragarriya  
nexka polit ori,  
eta zenbat dakiyen  
gezurra diruri;  
piano ta kantuan  
moldatzen da ongi,  
Donostiyan ez dira  
beste orlako bi.

3

Edozein zarrek ainbat  
badaki izketan,  
txoraturik lajatzten  
gaitu gu askotan;  
arrazoi egokiyak  
sortzen ditu bertan,  
eta noiznai asten da  
bertso puntuetan.

4

Zure baliyo ona  
askok nai luteke,  
bañan urretan ere  
eziñ lezateke;  
oraindaño bezela  
txintxo izan zaite,  
modu ortan kontentu  
izango da *Pepe*.

29 Octubre 1889.

## Donostiarren eta Pasai San Juanen estropara 1889-garren urtian

---

- 1  
Milla zortzireun larogei eta  
beatzigarren urtian,  
Ama Birjiña Errosariyoz,  
Urriyen seia goizian,  
estropara bat jokatu dute  
gaztelu Mota<sup>1</sup> ertzian,  
Pasai San Juan ta Donostiarrak  
elkarren kontra batian.
- 2  
Lenaztandikan San Juanekuak  
zuten indarra neurritu,  
zeñetan ziran oso atzian  
bestiengandik gelditu;  
bañan nairikan ostera beren  
okertasuna garbitu,  
desafiyua azkarrenari  
ziyoten berak berritu.
- 3  
Esaten zuten Donosti ontan  
etzeguela gizonik,  
berriz pelian asi ezkeru  
etzekatela gauz onik;  
amar bat milla errial pozik  
jarriko zutela andik,  
beste ainbeste nai baldin bazan  
baldin ta jarri emendik.
- 4  
Kondiziyua len abek zuten:  
treñerua abek artu,  
ala berian abek zutena  
Pasaitarrari trukatu,  
esanaz aiek len zebiltena  
kabarra zala gertatu,  
arreatikan zirala bada  
arren atzian geratu.
- 5  
Arretarako lenaztik zuten  
seboz ondo bete killa,  
nairik aurria denai artuta  
ondo irten gizon pilla;  
donostiarrak joan ziranian  
aien kabarraren billa,  
kraka ikusi ziyoten eta  
andik asi zan naspilla.
- 6  
Donostiyako patroiak zuben  
esan arrazoiarekin  
treñero ura etzeguela  
estropararako berdin;  
etzala ondo arrekatzia  
ontzi sebodunarekin,  
alaz guztiyaz irtengo zala  
itz eman zubenarekin.

---

<sup>1</sup> Donostiko gaztelua. (Egillearen oarra).

7  
Azkenerako konpondurikan  
artu zituzten ontziyak,  
jokatu bañan iru egun len  
artzeko beren neurriyak;  
San Juanekuak zuten ekarri  
arraun denak berriyak,  
ziranak leno ondarruarrak  
estropara irabaziyak.

8  
Ustea zuten arraun oiek  
zutela irabaziko,  
Donostiyako zarrak atzian  
zituztelako utziko;  
estropara au jokatu gabe  
ez lutekela etsiko,  
oraingo txandan erdi-erditik  
aixa zutela autsiko.

9  
Esan bezela biyak batian  
emendikan ziran irten,  
indar lanari denak txit gogor  
ziyoten bada ekiten;  
emengo zarrak bala bezela  
zuzen ta bizi zebilten,  
bestiak berriz afar tartian  
esponja ta ura egiten.

10  
Bi puntetara ziranerako  
atzetikan zan Pasaia,  
emengua berriz aurreratzen  
egiñaz kolpe lasaia;  
laister ezagun zan eskuetan  
zeukatela indargaia<sup>2</sup>,  
bestiak berriz alperrik beti  
auxe arrapatu naia.

11  
Donostiarrak aisa diyote  
estropara irabazi,  
lengo txandan bañan atzerago  
orainguan dute utzi;  
obea zuten ez baziraden  
pelian jokutzen asi,  
eskax dirala indar lanian  
berak lezateke etsi.

12  
Estropara ontan ler egiñ eta  
onuntz iritxitakuan,  
beste ontziyan denak sartuta  
beren errira ziran juan;  
lenago deitzen zaion bezela  
arunzko Pasaya *San Juan*,  
Donostiarrak onez aurrera  
deituko diyote *Juan San*.

Igerilari batek  
*Octubre 8 de 1889.*

*Los dos últimos se publicaron en La Unión Liberal.*  
Argitaratua saltzen. (Bertso auek kanta-paperetan banatuko ziran, beraz).

---

<sup>2</sup> Sasoia edo arrankia. (Id.)

Estropada bat 1889-IX-23-an jokatu zan. Treiñeruak, R. Agirrek bere *Donostiako estropadak* (1879-2001) agertzen duanez: Donostia, Luis Karril, patroï; Pasai San Pedro, Ebaristo Inda patroï; Donostia, Juan Kruz Karril, patroï; eta Pasai San Juan. Orden ortan iritxi ziran.

Orregatikan esaten du bigarren bertsoak:

Lenaztandikan San Juanekuak  
zuten indarra neurritu,  
zeñetan ziran oso atzian  
bestiengandik gelditu...

Arantz mingarri ori atera nai izan zuten San Juandarrak:

bañan nairikan ostera beren  
okertasuna garbitu,  
desafiyua azkarrenari  
ziyoten berak berritu.

Luis Karril patroïa zan treiñeruari, alegia. Bigarren estropada ori Donostiako talde onek eta Pasai San Juanek jokatu zuten, eta berriz ere Joxe-Maritarrak nagusi, bertsoak adierazten dutenez.

Seigarren bertsoak treiñero *seboduna* aitatzen du. Ori zer dan Rafael Agirrek argitzen du bere liburu ortan:

*«A los marinos de aquí les causó mala impresión el saber que la lancha que usaron los de Pasajes en el último regateo estaba untada de sebo, porque entendían que habiéndose carenado las cuatro traineras en este puerto no tenían derecho los de Pasajes a retocar la que les cupo en suerte».*

Berak itz oiek *La Voz de Guipúzcoa* egunkaritik artzen ditu.



## Ubako elizatxoan On Domingo Agirreri donkitua

---

1  
Birjiña Ama, emen zaudena  
aldariaren aurrian,  
aingerutxoak zure kontuan  
dituzula txit urrian,  
lagun zadazu mundu ontako  
nere bizi laburrian,  
biyotzetikan eskatzen diyot  
belaunkaturik lurrian.

2  
Zerutik ziñan mundura jatxi  
pekatariyarengana,  
ta aldaretik deitzen diguzu  
alderatzeko zugana;  
ezagutzen det zer ongillea  
zeran guretzako, Ama,  
orreatikan aldera nator  
eskeintzera nere izana.

3  
Mantxarrik gabe izandu zera  
menderaturik subia,  
erakutsiya laja zenduben  
guk bear degun bidia;  
aldaretikan erakutsitzen  
diguzu orain legia,  
esanaz beti maitatutzeko  
miragarrizko fedia.

4  
Zenbat mirari egin dituzu  
mundu ontan orain ta len,  
guzti-guztiyak dauzkagu ondo  
gordiak buru barrenen;  
eskatzen dizut, Ama maitea,  
iltzen naizenian emen,  
zeruan zure mantupe ortan  
ar nazazula lenbailen.

5  
Bitarte ortan eman gaitzazu  
betiko zure graziya,  
kontserba zagun fede santua  
len guri erakutsiya;  
labur-laburra izan dezagun  
mundu engañagarriya,  
gero iritxi dezagun bada  
zeruetako gloriya.

*Uba, 27 Nov. 1889.*

*Publicada en la Euskal-Erria, 10  
octubre 1890; en La Semana Cató-  
lica, el 14 de Se. 1890; en La  
Unión Vascongada el 11 de Abril  
de 1892.*

## Sor Kontzeptzioni, bere izen egunian

---

1  
Ama Birjiña Kontzezioko  
eguna iritxi zaigu,  
arengatikan pozez beteak  
gaur arkitutzen gera gu;  
Ubako etxe santu onetan  
Ama ori maite degu,  
gaur bezelako egun on asko  
denok desio diyogu.

2  
Karidadeko Ama leiala,  
pobrien malko zapiya,  
borondatezko laguntzallia  
oso estimagarriya;  
umezurtzaren anparo ona  
eta guztiz gidariya,  
desiatutzen diyogu denak  
urte askoko biziya.

3  
Pozez diyogu esker ematen  
aingeruaren modura,  
zori onian sortu zalako  
betiko gure ondora;  
Kontzeziyoko Ama Birjiñak  
beti dezala ingura,  
ta gero jaso bere ondora  
beti-betiko zerura.

*Uba 2 Dic., 1989.  
Estos bersos se cantaron en Uba, el  
día de su santo, por las niñas de  
allí, con órgano, en misa mayor.  
(Egillearen oarra).*

## Kontzeziyoko Amari

---

Argiyen printzak diran bezela  
kristaletikan pasatzen,  
zeñetan ez dan arrastorikan  
ezerenikan geratzen,  
ala berean zera, Birjiña,  
mantxarik gabe azaltzen,  
zeñetan zeran argi guztiyen,  
gañian beti altxatzen.  
Sube zatarra ibildu zana  
ingurutikan zulatzen,  
jakin zenuben beti-betiko  
zure oñazpiratutzen;  
bere pozoiak zu ikutzeko  
milla saio egin zuben,  
baña alare aren indarrak  
ezer baliyo etzuben.  
Zure argiyak Luzifer bera  
zuben ezkutaratutzen,  
asten zanian gaitz egin naian  
zugana alderatutzen.

Zeruko Ama, printzaz betea  
zeradena gaur agertzen,  
zureganuntza gera guztiyak  
pozez betiak gaur biltzen;  
pekatariyak gera, baña zu  
gutzaz zerade kupitzen;  
ala gaur egin genezaguken  
onak ditugu eskeiñtzen,  
gure otoitzak zureganuntza  
ditugu pozez bigaltzen;  
ala berian, Ama maitia,  
dizugu orain eskatzen  
ez gaitzazula sekulan utzi  
zuregandikan aldentzen,  
bildotx mantsuak uste gabian  
diran bezela galdutzen;  
modu ontara fedian beti  
ea ote geran bizitzen,  
gero zeruan toki on baten  
jabiak izan gaitezen. *Amen.*

*Diciembre 2 de 1889.*

*Publicada en La Semana Católica,  
y en la Euskal Erria, 10 Dic. 1889;  
y en La Unión Vascongada, el 8  
Diciembre 1892. Pueblo Vasco, 8  
D, 1916.*

## Jesusen munduratzia

---

Zergatik inguruak  
daude alaiturik,  
eta mundutar denak  
orrela pozturik?  
Zer dute itsasoak,  
erri eta mendik,  
oso paketsutuak  
pozkidaz beterik?  
Zergatik dira arkitzen  
gaur orrela garbik  
izar, illargi eta  
beste goiko argik?  
Jesus jaio dalako  
mundura gugatik,  
Mariya Santisima  
Birjiñarengandik.

Portale zar batian  
ara non dan bera,  
guziyak ditezen an  
aurrez-aurrez gera;  
etorri gaitian prest  
geren ezaguera,  
errenditzeko presaz  
Jaunaren legera,  
Guazen bere aurrera  
belaunikatzera,  
gure biyotz osuak  
orain eskeintzera,  
Aurtxo maitagarriya  
ezagutuzera,  
eta kanta xamurrak  
gogoz kantatzera.

*17 De. 1889.*

*Publicado en El Guipuzcoano,  
25 Diciembre 1890.*

1

Zeñen ederki duten txoriyak  
uda-berriyan kantatzen,  
eguzkiyaren printzak basoa  
dutenerako argitzen!  
Zeñen eztitsu eta gozoro  
duten mokoia ibiltzen,  
orri tartean pir-pirakoak  
dabiltzarian egiten!

2

Modu berian zera zu maisu  
euskaldunena azaltzen,  
zeren txoriyak bezelaxen zuk  
jakindu dezun kantatzen;  
euskaldunari ispillu onak  
dizkigutzu azaldutzen,  
zure eskribu pare gabeak  
dituzula erakusten,  
bada aiñ gogor ditugu bada  
gure barrenara sartzen,  
zeñetan sendo loturik iñoiz  
ez degun utziko galtzen.

*Enero 20 de 1890.  
Publicada Euskal-Erria  
el 20 Enero 1890.*

## Gernikako gazteriaren jotia

---

1  
Gernikako gazteriya,  
soñu joaz gogotik,  
Iñauteriz gera irten  
neskatx politagatik.

### Estribilloa

*Ariñ-ariñ jotzen  
vals edo jotia,  
batek bioliña,  
bestiak flautia;  
irten leioraño,  
ai, neure maitia,  
nai badozu pozez  
amendik joatia.*

2  
Okela jango badogu  
zerbait egin bearko;  
leiotik bota zaiguzu  
diru mordoa gaurko  
*Ariñ, ariñ....*

3  
Beltxaran begi ederra,  
pozez gatoz zugana;  
erropia pagatzeko  
emozu pezta bana.  
*Ariñ, ariñ....*

4  
Soñu joaz kalietan  
gabiltza txit ozturik;  
gure poltsian eztago  
zazpi txakur besterik.  
*Ariñ, ariñ....*

5  
Zeñen politak guztiyak  
zeraten gaur arkitzen.  
Zergatikan etzerate  
gaur gugana kupitzen?  
*Ariñ, ariñ....*

6  
Estudiante Gernikaarrak  
ondo daki dantzia;  
baña biotzak zugana  
dauka, bai, balantzia.  
*Ariñ, ariñ....*

7  
Dantzan, kantan, soñua jo,  
parria egin lasai;  
aspaldi geuden guztiyak  
zeubek ikusteko zai,  
*Ariñ, ariñ....*

8

Ara emen zubentzako  
gu, zenbat gazte galai;  
gañera gaude guztiyak  
oraindikan ezkongai.

*Ariñ, ariñ....*

10

Agur, maite biotzeko,  
zeuberi esker milla;  
orain bagoaz aurrera  
beste zerbaiten billa.

*Ariñ, ariñ....*

9

Irrintz gazteak bagoaz  
soñua joaz alai;  
geuk zeuberi asko maite,  
zeubek geuri deus ez nai,

*Ariñ, ariñ....*

*7 Febrero 1890*

*Publicada en Guernica 1890,  
y la música fue expresamente escri-  
ta para esta letra por un gernikaa-  
rra.*

**Egun onak**  
**Donostiyako eskola maestrak**  
**Bitoriyako beren *direktora*-ri**  
**bere izen egunian**

---

1  
Egun sentijan txori txikiyak  
asi dirade kantari,  
esan nayian bezela zerbait  
gauza politen bat guri;  
zer gauza ote zan pentsamentura  
aguro zaigu etorri,  
diyogulako poztasunian  
berialaxen igarri.

2  
Esan nai zuten gizaraxoak  
moko politakin guri  
egun on asko desiatzeko  
geronen *direktorari*;  
beraren egun gozatsua txit  
zitzaigulako etorri,  
Bitoriyara bigaldutzeko  
zerbait gauz oroimengarri.

3  
Ala guziyak degu desio,  
beste askoren moduban,  
egun on asko goza ditzala  
pozez beterik munduban;  
orain artian bezela bere  
famiyaren onduan ,  
grazi onian gaitzikan gabe  
osasun eder senduan.

*11 Febrero 1890.*



## Zer naiz ni!

---

1  
Iñauteriyak zelebra nairik  
Donostiyako gazteriyak,  
asi giñaden zerbait egiten  
(gauza zelebrequeriyak).  
Ala utzirik dendan nituben  
poto ta pazi guztiyak,  
abiya nitzan biltokietan  
egiten txorokeriyak.

2  
Nik uste gabe zer ari nitzan  
teatrora nitzan sartu,  
eta jakintsu asko bezela  
gauzak egiten saiatu;  
eta deus ere nola ez nitzan  
ezertan ere lotsatu,  
komeriante bat nitzalako  
ninduten guztiyak artu,  
eta txaloka guztiyak neri  
askotan ziran aritu.

3  
Bañan gerora kontu aundiyaz  
aguro nuben pentsatu,  
esanaz: «Obe nuke orduko  
mutur zikiña garbitu,  
eta osterera nere lanian  
umillaturik segitu;  
pazi potuak konpondurikan  
*parrokiya* atenditu,  
eta neronen baliyo txarra  
ez orrenbeste aunditu.

4  
Batek esaten ziran bezela:  
*«Tú en trato ya lucir,  
porque has hecho a mucho gente  
con tus piguras erreír  
Xordo, Josepe, Jira y Buelta  
y Musiquero bien hacer,  
pero agora ez garizuma,  
más te vale trabajar ir.  
porque allí con buena jornal  
toro el año bien vivir».*

Otsaillaren 26-an, 1889-an.  
*Publicada en La Galerna  
y en la Euskal Erria,  
28 Febrero 1890;  
en La Vasconia de Buenos Aires,  
2 Abril 1894.*

## Jesus gurutzetuari

---

1  
O Jaun aundiya, kupi zaitia  
aul ta zirtzill onengatik,  
ezagutzen det zeñen okerrak  
ditutan emen egin nik;  
damutasunez nere barrena  
arkitutzen zait beterik,  
onez aurrera ez det egingo  
gauza zuzena besterik.

2  
Nere gisara nebillenian  
arrokeriyaz betia,  
alaz guztiaz kontzientziyan  
neukan trabako katia;  
sentimentu ta pozaren faltak  
egiten ziran kaltia...  
O Jesus ona, zabal zadazu  
salbaziyo atia.

3  
Bada lengo txar eta okerrak  
erabat nai ditut utzi,  
eta munduko politasun ta  
erokeri denaz etsi;  
barkaziyo gurutzeari  
biyotz-biyotzez eutsi,  
eta barrengo kate gogorrek  
pekatuarenak autsi.

Apirillaren 1-an, 1890-an.  
*Publicada en La Galerna,*  
*el 3 de Abril 1890.*

**Karidadea**  
**Pasaian ito diranaren**  
**gañian iskribatua**

---

Atzo pozaren ontasunian  
arkitutzen zan jendea,  
gaur arkitzen da urrikarriya,  
naigabe tristet betea.  
Donostiarrak biyotza beti  
izan du paregabea,  
azaldu zagon beartsuari  
sentimentu on noblea,  
biyotz-biyotzez lagun zaiogun  
egiñaz **karidadea**.

29 Abril

*Publicada en La Galerna, 1890-V-4.*

**Plegaria**  
**Letra de J. A. escrita para la**  
**música de N. Luzuriaga**

---

1  
Atzo pozez beteak  
arkitzen ziranak,  
lutoz estalirikan  
arki dira danak,  
umezurtzurik aurrak,  
eta andreak alargunak,  
txukatu zaizkiyogun  
guk malko dianak.

2  
Oien biyotzak arki-  
tutzen dira eri,  
diralako trantzian  
txit estu ageri;  
poztu zagon al bada  
barren triste ori,  
egiñaz karidade  
umezurtz oieri.

12 Mayo 1890.

*Publicada en la Euskal-Erria,*  
20 Mayo 1890.

## Ernanin jai bat

---

1  
Ernanin kotxero bat,  
izena du Joxe,  
famatu bear det nik  
al bada orixe;  
ezagun da zegoala  
ori atzo gose,  
ez dalako sekulan  
legatzakin ase;  
orren kontua esan-  
go det nik oraintxe.

2  
Atzo goizian legatz  
bat geniyon eman,  
zezan artsalderako  
Ernanira eraman;  
bañan Joxek legatza  
utzi bearrian an,  
ostera Donostira  
ekarriya zeukan,  
an lajatzia aztu ta  
kotxien barrenan.

3  
Artsaldian juan giñan  
Ernanira denak,  
ta asi modu egiten  
gure legatzenak;  
laister arrebak esan  
zigun Joxerenak:  
etzirala an lajiak  
guk gauzak emanak,  
zirala Donostira  
berriz eramanak.

4  
Joxeren zai egonik  
bi orduan iya,  
etsi genuben galdu  
zala gure arraya;  
ala artu genuben  
asmo bat berriya:  
Simonen arrebari  
kentzia jakiya;  
arkumia jan genuben  
illarraz jarriya.

5  
Joxek zer egin zuben  
pentsatzen geundela,  
batek esan zigun an:  
«Dator beriala;  
sinistatu berekin  
onuntz dakarrela».  
Bañan izan bearrian  
gauza ori ala,  
jakin zan Ergobiyan  
ark laja zubela.

6  
A zer mandatariya  
Joxe kotxerua,  
egiteko enkargu  
ondo ta agurua!  
Uste det nastutua  
daukala burua,  
ez fiyatu orrekin,  
ezta segurua,  
uste det daguela  
*Joxetxo erua.*

25 Mayo 1890.

**Pakita Artolak**  
**gurasoari ongi etorriya**  
**Ejiptotik onuntz etorri diranian**

---

Aitari:

Zori onian, aita maitia,  
gaur kanpotik da etorri,  
zeñetan duben amoriyua  
nigan ugari ekarri;  
bedorrek nigan dadukan aña  
daukat bada nik bedorri,  
laztan gozo bat biyotz-biyotzez  
eman zaiogun elkarri.

Amari:

O ama maite biyotzekua,  
nere zoramen eztiya,  
poz geiegiren indarrak nauka  
malko gozoaz busti ya;  
bedorri gabe ez det nai ezer,  
bedorrentzat naiz guztiya,  
musu gozo bat eskatzen diyot  
naitasun aundiz josiya.

Luisitari:

Aizpatxo nere aspaldikoa,  
zuretzat daukat biotza  
gozotasunez oso betia,  
esaten au ez naiz lotsa;  
oraintxen bañan poz aundigoa  
ezin nezake nik goza,  
zori onian etorri zera,  
nere biyotzak au poza!

Anaiari:

Anaitxo nere maitagarriya,  
Jaungoikuari graziyak,  
asko poztu nau nere onduan  
oraintxe zu ikusiyak;  
penaturikan eruki nau ni  
zu gabe ezin etsiyak,  
bañan gaur emen zu ikusita  
joan zaizkit pena guziyak.

Ni:

Ez dakit poza geiegirekin  
nola ez naizen txoratzen,  
zenbaterano alegra naizen  
beok ez dute pentsatzen;  
amets gozo bat ez dala ere  
etzait bada iruritzen,  
nere biyotza beon onduan  
zabaldurik da arkitzen.

*Pakita Artola, 28 Mayo 1890.*  
*Publicada en la Euskal-Erria,*  
*20 Octubre 1890.*

1  
Zezen, partidu, soñu ta dantzak,  
denak oso onak dira,  
jarri azten du jendia pranko  
festa oieri begira;  
bañan ala ere eman orduko  
guk erri denari jira,  
an guaz festa denak utzita  
azkar sagardotegira.

2  
Xortxi-eneko sagardo onak  
jendia jartzen du alai,  
luzaro egon arren artzeko  
txanda, bata bestien zai;  
bañan puztutzen asi ezker  
jarritzen gerade lasai,  
orduán geok festik onenak  
egiten ditugu non-nai.

*22 Junio 1889.  
Publicada en La Galerna,  
el 22 Junio, 90.*

## Tolosan, San Juan aurrian

---

1  
Zezen naparrak Tolosarako  
zekazkitela birian,  
gizon batzuben bide erdiyan  
arkitzen ziran urrian:  
*juez*, sendakin<sup>1</sup>, *prokuradore*,  
bizar-kentzallia ziran,  
gizarajoak ez dakit nola  
ikaraz an ill etziran.

2  
Uste gabian zezen gaizto bat  
bestiengandik zan irten,  
eta asi zan jendia zeguen  
kamiyo aldera jeisten;  
orduan lau jaun tolosar abek  
dute korrika ekiten,  
itxumustuan asnase gabe  
alegiñ denak egiten.

3  
Zumardiraño zilipurdika  
joan ziran nairik libratu,  
*juez* jauna zan sasi tartean  
ezkutatuta geratu;  
*prokuradorea* berriz korrika  
larriturik zan txit auldu,  
eta zitzaion bide erdiyan  
beso postizua galdu.

4  
Sendakiña zan arbol batera  
iritxi biziro justu,  
iyo nai bañan eziñ iyorik  
arkitu zan oso estu;  
aiñ inguruan ikusirikan  
zezena zan oso nastu,  
azkenerako ler egiñ eta  
zan izerditu ta oztu.

5  
Bizar-kentzalle Manuel denetan  
zan larriyena igasi,  
bire erdiyan zituben odol  
eta asnasiak utzi;  
berriz jirarik zezena bertan  
nola baizuben ikusi,  
siñatu gabe putzura zuben  
salta erropa ta guzi.

6  
*Prokuradore* jauna besuen  
billa gerora asita,  
gorputza dardar geldi zitzaion  
berriz naparra ikusita;  
bere biziya galduko zuben  
beldurraz oso etsita,  
bigarren txandan igasi joan zan  
euri-estala<sup>2</sup> an utzita.

---

<sup>1</sup> *Médico*. (Egillearen oarra).

<sup>2</sup> *Paraguas*. (Id.)

7

Jueza eta gañerakuak  
noizbait ziranian bildu,  
zezen gaiztoa kastigatzeko  
asmoa zuten prest artu;  
ala iltzeko plaza erdiyan  
sententziya zan agertu,  
zezaten orla beren ikara  
napar txarrari mengatu.

8

Esan bezela egun birako  
zuten plazan ateratu,  
zezan sententzi penagarriya  
denen aurrian pagatu.  
*Pepete* deitzen diyoten batek  
zuben ezpata bat artu,  
eta sarturik tripetaraño  
an bertan zuben garbitu.

R. I. P.

*Tolosa, 25 Junio 1890.*

*Publicada en La Galerna,*

*el 6 de Julio 1890.*

## Nere opiniyua

---

Zer opiniyo detan askotan  
egin dirate galdia,  
jakin naiari ara erantzun  
nik detan borondatia...  
Biyotz-biyotzez maitatzen detan  
bandera maite-maitia  
izan det, daukat eta izango  
osasan, lan ta pakia.

*2 de Julio 1890.*



Lore ederrik munduan bada  
usai gozoaz betia,  
izango zera zu, Luisita,  
zori oneko maitia;  
izarra bezin dizdizariya,  
tatxarik ezer gabia,  
apirilleko arrosa bañan  
askozaz ere obia.  
Raza guztiyak badakizkitzu:  
turko, frantzes, arabia,  
osoro ere italiano,  
latin, ingeles, guria<sup>1</sup>,  
ainbeste izketa nola daukazun  
kontuz buruan gordia,  
utsunerikan batere gabe  
arritutzen da jendia.

Uztaren 13-an, 1890-an.

Lerro bakoitzaren leenengo letra artu eta goitik beera irakurrita, *Luisita Artolakua* aterako zaigu. Erderaz *acróstico* esaten zaiona, beraz.

Bañan laugarren lerroan *sori* idatzi zuan Pepe Artolak, eta ez *zori*, ala bear badu ere. Arek, izan ere, maiz samar naasten zituan “z” eta “s” letrak, bere esku-idatzian ikus ditekenez.

---

<sup>1</sup> Euskera. (Pepe Artolaren oarra).

**Mariñel konpartsa**  
**Donostian 1890-an, Agoztuaren 3-an**  
**Martxa edo ibill neurriya**

---

1  
Donostiako seme-alabak  
itsas ertzian aziyak,  
elkarturikan kantari gatoz  
gure ontzira guziyak;  
oitura zarrak azaldutzeko,  
ez geunden bada etsiyak,  
dantzara gatoz pozez beteak  
geren etxiak utziyak.

2  
Gaztetandikan itsasorako  
griña artua daukagu,  
beragatikan itsas erdira  
beti etorri nai degu;  
gure biotzak pozez beteak  
orain arkitzen zaizkigu,  
itsas erdiyan gure ontziyan  
arkitzen geralako gu.

**Au egin eta gerora, eskatu zuten  
neurri motzian iskribatzeko au  
bera edo alderatzeko moduan.**

## Himno edo mariñel kanta

---

1  
Donostiko uraren  
ertzian aziyak,  
pozturik guziyak  
arkitzen gera;  
oitura ederraz  
ez geunden etsiyak,  
etxiak utziyak  
gatoz onera.

### Zortzikoa

1  
Zeruak ondo digu  
ontziya argitzen,  
zer poza biyotzetan  
zaiguna arkitzen;  
dantzarako guztiyak  
prestatu gaitezen,  
ote ditugun pena  
lenguak aztutzen.

2  
Belak eta poliak,  
soka ta amarrak,  
urratu izan ditu  
itsaso zakarrak;  
bañan larritu arren  
gau illun beltz txarrak,  
ontziya zuzendu du  
gure atzaparrak.

2  
Txikitatik griña  
ontzira daukagu,  
argatik nai degu  
itsasoratu;  
biyotzak pozturik  
arkitzen zaizkigu,  
geradelako gaur gu  
emen arkitu.

3  
Trumoi ta kazkabarrak  
maiz gaitu easo,  
baga aundiyak ere  
indar aundiz jaso;  
bañan gaur guk ontziya  
daukagu eroso,  
argatik arki gera  
pozturikan oso.

4  
Berga eta txikotak,  
apareju, trezak,  
biratu izan ditu  
aize miñ txar latzak;  
bañan penak aztutzen  
dizkigu gaur pozak,  
eta zortziko ariñ  
doñuaren bozak.

5

Aita Neptunori ere  
asko diyogu zor,  
ura legundu digu  
len zegoana gogor;  
bera ere pozturik  
gaur gurekin dator,  
begira zer gustora  
ikusten dagon or.

*22 Julio 1890.*

*Publicada al público Agosto 3 1890.*

*En la Euskal-Erria, 20 Agosto 1890.*

## Luis Carril, estropara

---

- 1  
Kosta guziyan sonatutako  
estropara da jokatu,  
*Getariar, Pasai ta Oriyo*  
onera ziran elkartu;  
getariarrak ontzi bikaña  
zuben onera agertu,  
bañan Luis zarra bentzututzeko  
modurik izandu eztu.
- 3  
Amalau sari irabaziyak  
baditu legez ta umill,  
aukeraturik treñerorako  
beretzat amairu mutill;  
juan dan jayian beste sariya  
irabazi du txit abill,  
kanpotarraren buru egin da  
Donostiko Luis Karrill.

2  
Zeñek ez daki Luis Karrill-en  
berri aspaldi onetan?  
Aurten ere nagusi jarri da  
jokatu duben onetan;  
oraindañoko itsas apustu  
jokatu diran denetan,  
beti bandera irabazi du  
treñero arraunketan.

*13 Se. 1890.*  
*Publicada en La Galerna,*  
*14 setie. 1890.*

## Jose Maria Iparragirreri bere talluntzaren agerkeran

---

1  
Euskaldunaren izar argiya,  
maisu osoro bikaña,  
egiñ oi dezu euskaragatik  
biyotzez beste bik aña;  
pare gabeko itz eztsua,  
mantxik gabea mingaña,  
gitartxoakin beti kantari  
jo zenuben zuk goi gaña.

2  
Argitaratu zenituben zuk  
soñu dontsu ta eztiyak,  
argitaratu itz neurtu eder  
doai ederrez jantziyak;  
amoriyuak biyotz gurian  
dauzka gordiak guziyak,  
iñola aska ezin litezken  
moduan sendo josiyak.

3  
Argitaratu nola zenuben  
ain gauza eder ta aundiya,  
ala berian argitaratzen  
zaituzte lorez jantziya,  
izan dediyen euskaldunaren  
betiko *oroimengarriya*,  
eta gañera onra dezazun  
zu jaio ziñan erriya.

*Setiembre 28 1890.*

*Publicada en la Euskal-Erria, el  
día 30 Setiembre 1890; La Galerna,  
28 setiembre 1890; La Vasconia de  
Buenos Aires, 20 Octubre 1894.*

*La Galerna-k beste onela ditu:  
1/7: gitartxoakin kankak kantatzen;  
1/8: izan zenuben zuk maña; 2/6:  
gordiak dauzka guziyak; 2/7: iñola  
ezin aska litezken.*

## Urrena arte eta barkatu

---

1  
Nola jaiero aritu geran  
iskribatzen zerbait berri,  
deskantsu zerbait bear diyogu  
eman geren buruari;  
orreatikan ariyazitzen  
diyot irakurleari,  
*Urte Berriyak* artean uzten  
diyogula guk lan oni.

2  
Irabaziyan gaizki giñanik  
etzazutela pentsatu,  
baizikan ondo gure lan abek  
dirade bada agertu;  
despeitzen gera «*Urrena arte!*»,  
au ez beintzat txartzat artu,  
gauza txarrikan nik uste gabe  
len egin bada, *barkatu*.

*Octubre 3 de 1890.*  
*Publicada en La Galerna,*  
*5 Octubre 1890.*

## Egiyak

---

1  
Al dakizute zergatik dagon  
orrelako triste gaur Juan?  
Uste gabian patrikarako  
diruak zaizkalako juan.

2  
–Pillipe, zertan ez intzan atzo  
lagun arterañon jatxi?  
–Nere andriak ziradelako  
atia giltzekin itxi.

3  
–Mañueli ere zerbait gerta ta  
ez ukan geigo jiratu?  
–Bere arrebak ziyozkalako  
bi patrikarak miratu.

4  
Anttoni berriz bere etxian  
bizi duten neska-zarrak,  
aserraturik kendu omen zizkan  
tiraka bere bizarrak.

5  
Aben gisara gertatzen zaie  
oker dabiltzan danari!  
Etzaio bada segitu bear  
beti bide zuzenari?

*18 de Octubre 1890.  
Publicada en la Euskal-Erria, el  
día 30 Noviembre 1890; en La  
Unión Vascongada, 30 Octubre  
1892; Ibaizabal, 27 Julio 1902;  
Euskal-Erria, 10 Agosto 1902.*



## Donostiarraren eta Ondarroarraren estopara

---

1  
Pozturik arkitzen da  
Donostiko erriya,  
gaur jaso dubelako  
sari bat aundiya.  
Biba *Luis Carril* ta  
bere gazteriya!  
Onore aundiyakin  
biba Donostiya!

2  
Lenago sari asko  
ditu irabazi,  
bañan oraingo onek  
geigo du merezi;  
donostiarren kontra  
zenbat diran asi,  
guztiyak atzenduak  
baitirade utzi.

Azaroaren 2-an, 1890-an  
*Esta letra se ha escrito expresamente para el zortzico que ha escrito D. José A. Santesteban. Lleva por título Biba Donostiya y está dedicado al Patrón Luis Carril y sus bravos remeros.*

*Publicado en La Voz de Guipúzcoa, El Guipuzcoano y La Libertad el 3 de Dicie.*

*Publicado al público con el retrato de Luis Carril y con música para piano y cantado en el Teatro Principal el 8 Dicie. 1890.*

## Estropara Donostiarrak eta Ondarruatarrak jokatua, Azaroaren 2-an, 1890-an

---

1  
Estropararik iñon jokatu  
baldin bada sekulan fin,  
Donostiarrak jokatu dute  
Ondarruatarrekin;  
uste bañan lan txarragoari  
ziyoten aietzek ekin,  
toki onian abiya ziran  
Luix Torrekuarekin!

2  
Lenaztandikan milla duruak  
jartzen zituzten ain fiyo,  
nairik beraren indarkeriya  
zeruetaraño iyo;  
bañan emengo jendiak sendo  
aienari eldu diyo,  
beren arrunka urgullutsuak  
ziradelako meriyo.

3  
Bein jokatu nai, bestian uka,  
urrenguan berriz ixill,  
ibilli dute luzaro ontan  
zenbait istillu ta naspill;  
bañan azkenik konpondu ziran  
jokatzeko legez ta abill,  
Donostiarrak pozez joan ziran  
naiz erdiyak birian ill.

4  
Gabez tranpiyan beñ etorrira  
nai zuten proban aritu,  
eta emengo ondarruarrai  
ziyoten zerbait agindu;  
abek irtenik aien bidera  
gabez ziyoten lagundu,  
bañan emengo arrantzaliak  
azkar zuten au jakindu.

5  
Farolarekin aritu arren  
gabez itsaso erdiyan,  
jakiñik aiek zer asmo zuten  
emen zai zeuden guardiyan;  
eta itxonik etorri arte  
jendiak molla berriyan,  
denak arrika eman ziyoten  
zebiltzalako tranpiyan.

6  
Pasaitarrakin zebiltzatela  
ote zuten an pentsatzen?  
Gizarajoak toki onera  
desafiyo egin zuten;  
dirua ere berak momiyo  
aurretik zuten paratzen,  
zazpi urteko lana badute  
orain malkoak sekutzen.

7

Aiek ain gogor ikusirikan  
erriyak zituzten alde,  
nai ez badezute sinistatu  
Tolosarrenari galde;  
Gipuzkoatarren kontra joan dira,  
guretzat askozaz obe,  
orain erdiyak gelditu dira  
txanpon zar bat ere gabe.

8

Bi egunetan egualdiyaren  
beldurraz ziran geratu,  
irugarren goizian ohea  
zitzaioten, bai, gertatu;  
lagun guztiyak patroiarekin  
ziran ontzietan sartu,  
eta nor bere tokiyetara  
jokatutzeko prestatu.

9

Ango patroiak au esan ziyon  
Luis Donostiarrari:  
«Zer uste dozu: kara emotera  
zozala Pasaitarrari?».  
Luisek sendo erantzun ziyon  
erdi parrez Ambrosiori:  
«Zein dan geiago apostur'ontan  
ikusiko degu ori».

10

Abiya ziran *korneta* jota  
biyak batetan lanian,  
Donostiarrak artutzen diyo  
aurria lenen golpian;  
ain gozokiro zetozen pozez  
emenguak iya aidian,  
aietako bi miñez gauz ez ta  
erori ziran birian.

11

Emengo denak oso ta bizi  
iritxi ziran gordiñak,  
bestiak berriz asnase gabe,  
odoltsu eta etziñak;  
bire guztiyan saiatu eta  
abek ingura eziñak,  
eman ziyoten lenaz gañera  
aieri tripako miñak.

12

Larogei ta bat minutu justu  
zituzten pasa birian,  
sosegu onez iritxi ziran  
neurri parerik gabian;  
minutu t'erdiz atzeragotik  
bestiak erdi gordian,  
braketatikan eldu ta jaso  
zituzten denak aidian.

13

Non dute orain lege gabeko  
len jaso zuten bandera?  
Oso altuan bazuten ere  
sartu zaiote lur-pera;  
merezi gabe zeukaten eta  
ekarri dute onera,  
bear dan leku egiazkora,  
Donostiyako kaiera.

14

Urrenarako jakin zazute  
au dala beti nagusi,  
eta Luixek koroi eder bat  
dubela ondo merezi;  
amalau sari onragarriyak  
ditu legez irabazi,  
obe du iñork Donostiarren  
kontra sekulan ez asi.

*Diciembre 1890.*

**Aita Larramendi illezkorrari  
jaiotzako bere bigarren eunkidan  
Zortzikoa**

---

1  
O aita Larramendi  
euskaldun maisua,  
zuk egin zeniguzun  
iztegi osua;  
euskal semiarentzat  
txit baliyosua,  
espillu argiya ta  
baltsamo gozua.

2  
Intza sortzen dan gisa  
udaran lorera,  
ala bana zenduben  
au biyotz gurera;  
lenago joango dira  
mendiyak lurrera,  
ta ez gure barrendik  
au iñoiz atera.

3  
Orain berreun urte  
dirade ingura  
Andoaiñen jaiio, bai,  
ziñala mundura,  
baratzen lore fiña  
sortzen dan modura,  
edertzeko Tubalen  
izkera eder ura.

4  
Beti izan ziñan zu  
iztun txit liraña,  
euskal izkera berriz  
konpontzen bikaña:  
Jaunak berexitua  
zan zure mingaña,  
orain zeruan dezu  
lan oien ordaña.

*Diciembre 12 1890.*

*Escrita para un zortzico de Santesteban, compuesto para las fiestas del 2º centenario de su nacimiento.*

*Publicada en La Unión Vascongada, 20 Marzo 1900.*

## Mendaroren astua

---

1  
Ez al dakizute gaur  
zer dan or pasatu?  
Mendaroren astua  
dala asarratu;  
eta berotasunez  
nola dan gertatu,  
karro ikatz ta guzti  
Bulebarren sartu,  
eta kurpill azpiyan  
aur bi arrapatu.

2  
Arrantzaka asirik  
asto zar arrua,  
beriala jendiak  
egin du korrua;  
jira bueltaka bertan  
egiñik orrua  
dabilela autsi du  
ikutzen karrua,  
orra Mendarorentzat  
nolako porrua!

3  
Ikatzez Bulebarra  
zikindurik dena,  
bi dama bete ziran  
autsez, ai zer pena!  
Zeladore bat joanik  
Mendarorengana,  
eta ikusirikan  
egindako lana,  
biyari para diyo  
multa duro bana.

*Diciembre 1890.  
Publicada en El Canario, 21 Junio  
1891, San Sebastián; en La Unión  
Vascongada, 29 Abril 1899.*

## Nere emazte zanari eriotzaren ondoren ildako urte urrenian

---

1  
Penik sekulan iñork sentitu  
badu bere biyotzian,  
sentitu det nik nere emazte  
onaren eriyotzian;  
arren begiyak nerietara  
begiratu bakoitzian,  
jartzen zitzaidan ezin esan dan  
min zorrotz bat gorputzian.

2  
Iya urte bi oi ditu pasa  
penetan gaitz txar batekin,  
sufriturikan kristautasun ta  
pazientzi onarekin;  
bañan azkenik gaitz zital onek  
bentzutu nairik zurekin,  
eriyo txarra bere ondoren  
ekarri zizun berekin.

3  
Izugarriya da eriyua  
iritxitzen dan orduan,  
alaz guztiyaz zure barrena  
fedez betia zenduan;  
Jesus aitatzen zenuben beti  
azken trantze txar estuan,  
argatik zure anima garbi  
arkitutzen da zeruan.

4  
Nonbait komeni etzan munduan  
bizitzia zu ain era,  
senarra eta aurtxo biyakin  
errendituaz federa;  
Ama Birjiñak igarririkan  
zerutik, ain biyotz bera,  
gu utzirikan eraman zaitu  
egan bere mantupera.

5  
A zer dolore aundiyagoa  
liteke izan neretzat,  
ta batez ere amatxo gabe  
gelditu diran aurrentzat?  
Aundiyagorik izan leikenik  
etzait iduritzen beintzat,  
mundua mundu dan bitartean  
penarik irtengo etzat.

6  
Begira zazu orain zerutik  
emen geldi geranari,  
erregu zaiza guregatan  
Birjiña Ama onari;  
ez dediyela aztu laguntzez  
aurtxo aingeru biyari,  
guk ere otoitz beti egingo  
diyogu pozez Berari.

7

Zutzaz sekulan ez naiz aztuko  
naizen bitarte munduan,  
otoitzak beti izango ditut  
zuga aingeru moduan;  
beti zaitut nik zu irukiko  
arrats ta egun goguan,  
ta imajiñ bat zure izenez  
zintzilik nere kolkuan.

8

Geiago esan nai nuke bañan  
ez dit utzitzen barrenak,  
lasaitasuna laburtu eta  
indarra artzen du penak;  
bañan aitortu ezagatikan  
esan nai ditutan denak,  
kunplituko'itut nere biyotzak  
barrendik dizkan ordenak.

R. I. P.

Donostian, otsaillaren 13an, 1891-an.

Jaio zan 1857-ko Agoztuen 12-an.

Jaunari kontu eman zion Otsaillaren 1-an, 1891-an.

Ezkonduta igaro du 3 urte, 3 illabete ta 3 egun.

*Publicada:* Unión Bascongada, 20 Enero 1892; Euskal Erria, 30 Enero 92.



## Senar baten tristura!

### Nere adiskide On Emeterio Arreseri

---

1  
Zeru garbiya odoi illunak  
zer nola duben illuntzen!  
Ala berian nere barrunak  
illuna du gaur sentitzen,  
pentsaturikan lenago egunak  
nola nituben eztitzen;  
bañan gaur, a bai!, samintasunak  
gogorki nau ni estutzen.

2  
Arrautz barrenan oi dan moduan  
gordetzen zumoa osorik,  
ala berian nere zentzuan  
nituben pozak gozorik;  
bañan azala autsitakuan  
ez da gelditzen zumorik,  
ala izate barrenekuan  
ez det arkitzen pozarik.

3  
Len ez nekiyen nik zer zan pena  
bañan orain det ikasi,  
alegrantziya nuben len dena,  
pozez nitzan beti bizi;  
bañan ontasun denen azkena  
etortzen det gaur ikusi,  
ta biyotzeko atsegin lena  
nigandik joan da igasi.

4  
Mundu ontatik joan da zerura  
nere emazte maitia,  
aingerutxo bat oi dan modura  
merezimentuz betia;  
etzan komeni nonbait pozgille  
nerekin bat izatia,  
kunplitu bedi gure Egille  
Jaunaren borondatia.

5  
Au bakardade mingarritsua,  
biyotz neria estu da,  
nere atsegin maite gozua  
joan zaitalako zerura;  
biyotz neria ain gozotsua  
joan zait larri txit estura,  
nere emazte maite gaxua  
gabe auxen da tristura!

*13 Marzo 1891.*

*Publicada en La Unión, el 4 de  
Octubre 1897; Euskal-Erria, 30*

*Abril 1912.*

## Gaspar Melchor Jovellanos-ko illezkorrari

---

1

Nere biotza gaur arkitzen da  
zerbait aitortu naiean,  
bañan ez dakit nere indarrak  
ote ditutan gaiean;  
lagun zaidazu, o nere musa,  
abiya naizen lanean,  
iskributxo bat egin dezatan  
Jovellanos-en gañean.

2

Gizon jakintsu paregabe au  
jaio zan Gijón errian,  
milla zazpireun irurogei ta  
amalaugarren urtean;  
azkar igarri zitzaion oni  
abilla zala *arte*-an,  
ez izan arren sasoitu eta  
gizon egiña artean.

3

Alkalan zuben Teolojiya  
miragarriri ikasi,  
alako doai pare gaberik  
etzan sekulan ikusi;  
arriturikan zituben bertan  
ziran maisu denak utzi,  
onez aurrera mentegiako<sup>1</sup>  
legietara zan asi.

4

Bere denboran izan zan oso  
gizon aundi batistuna<sup>2</sup>,  
araujarraia<sup>3</sup> gain-gañekua  
pare gabeko iztuna;  
maisuarra<sup>4</sup>re oso bikaña,  
iya berdiñik eztuna,  
ala berian kondairalea<sup>5</sup>  
eztitsu eta leguna.

5

Eta nolako biursariya!  
Zer zan jaun arren graziya!  
Tatxa gabia zan zentzutikan  
irten zitzaion guziya;  
moldaera ta iskribu dena  
zuben ain ondo jantziya,  
pentsamentu ta itz ederrera  
bat bestiai eatsiya.

6

Batez ere zan eagoari<sup>6</sup>  
graziduna ta bikaña,  
artikasleen zuzendariyan  
lagundu zuben bik aña;  
iritarauti<sup>7</sup> txit eztitsua,  
zer zan jaun arren mingaña!  
Jakinduriko lanean artzen  
zizon denari ark gaña.

---

<sup>1</sup> *Carrera del foro.* <sup>2</sup> *Hombre de estado.* <sup>3</sup> *Jurisconsulto.* <sup>4</sup> *Magistrado.* <sup>5</sup> *Historiador.* <sup>6</sup> *Cronista.* <sup>7</sup> *Político.*

7  
Atxurkintzaren<sup>8</sup> gañean zuben  
borondate aundiz ekin,  
iskribu onak zituben jantzi  
jakindurizko itzakini;  
miragarriri baizuben bere  
lantegi zall ori egin,  
espillu gisa azaldu zuben  
egiña ain fiñ ta berdin.

8  
Bere erriyen estalparia<sup>9</sup>  
borondate ta biyotzez,  
etzan aspertzen bere aldetik  
jaioterriya argitzez;  
udan loria preskatutzen dan  
bezela goizetan intzez,  
ala berian zuben erriya  
bete jakinduri printzez.

9  
Ainbesteraño goitaltxaturik  
Jovellanos-ek erriya,  
ordaña diyo erriyak egin  
berari onragarriya;  
talluntza aundi bat izan dediyen  
denen begiragarriya,  
non dan agertzen koroatua  
Jovellanos jaun aundiya.

10  
Españatarrak guztiyak dira  
arkitzen oso pozturik,  
seme illezkor aundi bat orain  
ager dalako pizturik;  
onore eta edertasuna  
bere gañean baturik,  
zeruko printza dizdizariyak  
zentzua koroaturik.

11  
Nik ere zerbait nai nuke egin  
baztar ontatik berari,  
amoriyua berak izandu  
zubelako Gipuzkoari;  
bañan utsa naiz eta ezin det  
egin gauz aundirik arri,  
aren talluntza izango degu  
guk ere oroimengarri.

*Junio 1891.*

---

<sup>8</sup> *Agricultura.* <sup>9</sup> *Protector.* (Pepe Artolaren oarrak).

## Maitasuna baserriko alabari

---

Modestatxo neria,  
pozturik onera  
nator kaletik zuri  
laztan ematera.  
Atoz aitaxogana  
aguro besora,  
ez nediyen poztasun  
geiegikin zora;  
nik nai zaitut laztanka  
ibilli besuan,  
biyotzeko maitasun  
atsegin gozuan,  
milla musu emanaz  
zuri kopetian,  
amoriyozko sugar  
bizirotetan.  
Ni naiz zure aitaxo  
maite zaitutana,  
zugatik zernai gauza  
egingo nukena.  
Ez al dirazu bada  
antzikan ematen

zer pozez besoetan  
zaitutan jasotzen?  
Ez al dezu sentitzen  
pozik biyotzian,  
aitak laztan gozo bat  
eman bakoitzian?  
Bada ain maitasunez  
dizkitzut ematen,  
non begitik malkoak  
zugan diran joaten,  
intza lorietara  
ixurtzen dan gisa,  
Egilleari egin  
dezaion dizdiza;  
bada zure egillea  
nola bainaizen ni,  
biyotzera dizdiza  
sartzen nazu neri;  
argatik zugan daukat  
naitasun ain fiña,  
arintzen dezulako  
aitatxoren miña.

*Noviembre 14, 1891.*

Emen ikusten danez, emaztea il ondoren, alaba Modesta, jaio eta ogei bat egunera amarik gabe gelditu zana, baserriren batera bialdua zuan aitak, an azi zezaten.

## Santo Tomasko feriya

---

1  
Baserritar bat feriyara zan  
urrutitikan etorri,  
bide guztiyan geratu gabe  
pozakin korri ta korri,  
esanaz: «Ai zer feri ederra  
gaur nik nere andreari  
erosi eta aiskidetzeko  
emango diyotan arri!».

2  
Lendabiziko bazter miratzen  
asi zan arturik gauzak,  
bañan andreari emateko  
denak zituben eskasak;  
gauzen jabeai esaten ziyon:  
«Bear dekana eska zak,  
bañan or dekan gauzik onena  
andrearentzat ekatzak».

3  
Arekin erdi aserratu ta  
joaten zan beste norabait,  
eta aguro billatzen zuben  
an ere aitzeki zerbait;  
esaten zuben: «Gaur feri ona  
erostia gogora zait,  
bañan ikusten detan gauzetan  
bat ere gustatzen etzait».

4  
Gauzak ikusten aspertu eta  
asi zan txorizo jaten,  
azal ta guzi erdi gordiñak  
igual zituben tragatzen;  
eta ainbeste txorizok nola  
ardua ziyon eskatzen,  
denda batera joan ta asi zan  
baso arduak ustuten.

5  
Azkenerako zan txit mozkortu  
ta abiya zan etxera,  
bañan bidean bi lapur irten  
zitzaizkan arri aurrera;  
eta ziyoten patrikarako  
diru guztiyak atera,  
bai ere bota zilipurdika  
txit golpatuta lurrera.

6  
Nola berandu zan emaztia  
zeletan zeguen jarriya,  
esanaz: «Ai zer gauza ederra  
ekarko nauen feriya!».  
Onla pentsatzen dagola aitzen du  
«ai!» triste penagarriya.  
irtetzen da ta ikusitzen du  
bere gizona elbarriya.

*19 Diciembre 1891.  
Publicada en El Guipuzcoano,  
21 de De. de 1891.*

## Gure izaera

### Nere adiskide Frantzisko Lopez jaunari donkitua

---

1  
Arbol on batek lore ta fruta  
ematen duben modura,  
ala berian gizona ere  
sortutzen baita mundura:  
orritz betia ta prexkotasun  
ona dubela ingura,  
gero aundiya izan dediyen  
denborarekin fruta ura.

2  
Txikitan gera oso biguñak,  
prexko, polit ta biziyak,  
txoratzen gaitu edozer gauza  
ikusten degun guziyak;  
lotuta ere ezin iduki,  
dantzan ezur ta mamiyak,  
aizea beziñ fiñ memoriya  
eta ernaiak begiyak.

3  
Gerora zerbait kozkortutzian  
besotik gera irtetzen,  
eta bakarrik geren modura  
nolanai gera ibiltzen;  
jostatutzia beste gauzarik  
etzaigula bururatzen,  
ibiltzen gera gure soñeko  
zarpa zar denak urratzen.

4  
Ondoren gera oso ornitzen  
fruta sasoian bezela,  
geronen lan ta kontuetara  
zuzen etortzen gerala;  
onez aurrera gure denbora  
joaten da uste ez dala,  
aiñ azkar nola sutunpatikan<sup>1</sup>  
aidean joaten dan bala.

5  
Illia joaten abiyatzen da,  
bista ere bai laburtzen,  
pauoa oso nagitu eta  
ezurak berriz gogortzen;  
belarriyak len ernai ziranak  
erdi itxi edo gortzen,  
ala berian itza moteldu  
eta bizkarra makurtzen.

6  
Indar guztiyak uste gabeen  
gorputzetik dira galtzen,  
memoriya're pixkabanaka  
medaturik da txit aultzen;  
akulluakin zulatuta ere  
ez da errezki mugitzen,  
ara gizonen aunditasunak  
zertara diran biurtzen!

*Enero 1892.*

*Publicada Euskal Erria, 20 Enero 1892; La Unión Vascongada, el 14 de Agosto de 1895; Pueblo Vasco, 27 Abril 1914.*

---

<sup>1</sup> *Cañonazo.* (Egillearen oarra).

## Iñauteriyak

---

1  
Sasoi onetan gorputza txoro  
jartzen zaio gazteari,  
lanak utzirik dibertsiyua  
besterik ez da ageri;  
zezenak, dantzak, muzorro, soñu,  
jolas, igortzi ugari,  
aserre, neke, bultza ta bulla  
eta tripa guri-guri.

2  
Mutill geienak neskaz jantzi nai,  
bañan zer neska trakatsak!  
Abanikuen ordezkuan  
eskoba edo erratzak;  
iñoren gonak petraldu eta  
arra-betian lokatzak,  
eta gonaren azpitik krakaz  
betiak ageri galtzak.

3  
Ala berian neskak gizonen  
galtzarekin dira jazten,  
igortzi, bultza eta ojuka  
lagunari dira asten;  
esku batekin muzorroari  
beti diyotela eusten,  
bildur-bildurraz batak bestia  
ez dute al bada uzten.

4  
Arrantzaliak kulubiza ta  
zesto, sare ta sokakin,  
galtza-zira zar, amu pilla ta  
mokollo ederrarekin;  
iriyen aurrez belaunka jarri  
eskuan eskobarekin,  
andik puntura sagardoteira  
txunbo aundien batekin.

5  
Gorputza oso ondaturikan  
zikiñ ta lo faltarekin,  
azkerenako txit okertuak  
gelditzen dira penakin;  
bestiak berriz zurrutak jo ta  
gero buruko miñakin,  
orla bukatzen dute gaztiak  
beti iñauteriyakin.

6  
Nekiarekin asko txartzen da  
gizonaren osasuna,  
baita ere du berak sentitzen  
biyotzez damutasuna;  
muzorro gabe igualekua  
da beste paketasuna,  
gañera zintzo ibildurikan  
barrengo lasaitasuna.

*Febrero 1892.*

*Publicada: Unión Bascongada,  
28 febrero 92.*

## Agur denari

---

1  
Suertian kinto gera  
gu erori aurten,  
eta Zaragozara  
bear degu irten;  
penarekin biyotza  
iya zaigu eten,  
tristura senti degu  
biyotzen barrenen.

2  
Ariyo, ama maite  
eta senidiak,  
soldaduskara deitu  
digute legiak;  
zenbat penetarako  
gerade pobriak,  
ojala bagiñake  
aberats nobliak!

3  
Penaren kargarekin  
gaude penatuak,  
ikusirik gaudela  
txit katiatuak;  
begiyak beti malkoz  
daude pegatuak,  
sufrituko ditugu  
gure pekatuak.

4  
Gure lur gozo on au  
penaz utzirikan,  
arkituko gerade  
txit penaturikan;  
kanpuan ez degu guk  
izango onikan,  
Jaunak lenbailen buelta  
gaitzala andikan.

5  
Gogoratuko zaigu  
maiz guri erriya,  
eta lagun arteko  
zelebrequeriya;  
baita ere pozezko  
sagardoteriya,  
itz batian, guk maite  
degun Donostiya.

6  
Jai eguneko bromak  
an ez dira izango,  
kuartelera txit zintzo  
bearko da joango;  
eta ogi erreza  
ere an da jango,  
bai ere *zentinela*  
gabetan egongo.



7  
Emen pintore gera  
blusa txuriyakin,  
an ibilduko gera  
galtza gorriyakin;  
txaketilla, gerriko,  
ros ta pusillakin,  
kunplitu bitartian  
pazientziyakin.

8  
Zoramenak aztuta  
zintzo bear da an,  
ematen dutena're  
ixill-ixillik jan;  
agintzen duten leku  
guztiyetara juan,  
ta lanbide txar denak  
pazientziz eraman.

9  
Danbolin soñu eder  
ta erromeriyak,  
sagardo, umore ta  
sokadun iriyak,  
an gogoratutzian  
emengo berriyak,  
penak jarko zaizkigu  
malkotan begiyak.

10  
Agur, neska politak  
aiskire guriak,  
agur, Donostiyako  
lagun pintoriak;  
agur, guraso eta  
senide guriak,  
lagun dezaigula  
denori suertiak.

11  
Emengo notiziyak  
bigaldu maiz guri,  
biyotza poztutzeko  
donostiarrari;  
guk ere maiz andikan  
kontubak ugari  
bigalduko ditugu  
lagun zar danari.

*Febrero 92.  
Publicada en La Brecha,  
Carnaval 1892.*

## Diosala edo saludoa

---

Badakigu gaur zure  
egun ona dala,  
argatikan egiten  
dizut diosala;  
Jaunak bere eskutik  
eruki zaitzala,  
ala berian grazi  
eziñ esan ala  
zerutik familira  
banatu ditzala.

## Tomasari

---

Tristurik iñoiz ez dezu izan,  
oso umoredun zera,  
makiña bat far eta kontutxo  
aotik zaizu atera;  
soruan lore ainbat grazizko  
ateraldi ta pozkera,  
guri kontatu eta azaldu  
izan diguzu aurrera;  
sartu liteke ikasitzera  
aldamen gozo zurera,  
soratu nairik zenbat alditan  
oso gustora egon gera,  
lege polita txit zumoduna  
aiñ fin ta ona zu zera.

*Marzo 18 de 1892.*

*Publicada en la Unión Vascongada, el 18 Abril 1892.*

Bertso au *acróstico* bat da: leenengo letra artu eta goitik beera irakurrita, *Tomasas Gisasola* aterako zaigu. Ori bai: *zoratu* bearrean, *soratu* idatzita.

## Zuzen gaitian denbora dan artian

---

1  
Pekatuaren indarrak gaitu  
neke gogorrian jartzen,  
biyotz gureko lasaitasuna  
du laburtu edo aitzen;  
poz gozo eta atsegiñ ona  
gugandik dira aldentzen,  
zakarkeri ta desegokizko  
gauzaz gerade jabetzen.

2  
Oroiturikan zeñen exkaxak  
geraden mundu onetan,  
zuzendutzeko asmo bat artu  
zagun guztiyak batetan;  
bestela gure bizi laburra  
igaroko da neketan,  
eta ondoren beste munduan  
beti-betiko penetan.

3  
Okertasunak utzirik oso  
guazen zuzengarri billa,  
oroi gaitian guregaitan  
nola dagon Jesus illa;  
gure pekatu barrenekua  
lenbailen ager dedilla,  
beso zabalik guretzat antxen  
zai dago ardi umilla.

4  
Orren gogorak izango gera  
ez biguntzeko federa?  
Pekatu denak utzirik guazen  
lenbailen zuzenbidera;  
belaunkaturik umill gaitian  
Jaungoikoaren legera,  
bestela gero denbora joan ta  
betiko galduak gera.

*Abril 12 de 1892.  
Publicada; Unión Vascongada,  
15 abril 1892, ostiral santuan.*

## “Artesana”

---

1  
Desio nuben gaur erritarrak  
emen elkar ikustia,  
eta erabat tristetasunak  
bazterturikan uztia;  
ala izanik barren nerian  
borondatezko ustia,  
despeitu zagun umorez eta  
kantari gauden astia.

2  
Erriko xeme egiazkoak  
au degu gure kabiya,  
au da lenengo jostaketaren  
seaska edo tokiya;  
elbarri xamar arkitu arren  
zartasunarekin iya,  
berriro zaigu indartu eta  
jarri len bezin loriya.

3  
Zeñek ez daki onek zer fruto  
ederrak dituben eman,  
ibilli gabe zakarkeri ta  
baliyo gabeko teman?  
Ala berian bear degu guk  
usariyua eraman,  
iskribaturik *pake* ta *poza*  
gure banderaren leman.

4  
Emendik dira irten dantzari,  
toriatzalle iaiuak,  
*Aita Josepe, Praisku*, iñure,  
mediku eta paiuak;  
alkate, *Xordo*, tanborlariyak,  
*gastadore, lakaiuak*,  
ain itxuradun non ziruditen  
egiyaz ala jaiuak.

5  
Nola ez izan leku maite au  
lagunkidedi gozua,  
baldiñ onera bildutzen bazan  
zelebrekeri osua?  
Iñauteritan au izaten zan  
egiyaz *paraisua*,  
nola ez, emen izaten bazan  
Bilintx, euskaldun maisua?

6  
Ura asko zan ixkin batetik  
abiyatzia jostatzen,  
eta *Prol* berriz beste aldetik  
jende guztiya tentatzen;  
ainbeste poz ta zelebrekeri  
zuten bertara azaltzen,  
jende guztiya lajatzen zuten  
parrez kostillak urratzen.

7

Gaztiak orain saia gaitean  
egiten gogoz al dana,  
etzagun utzi erortzen zarrak  
irabazi zuten fama;  
oitura zarrak sendo eutsi,  
zuzendu oker dagoana,  
bizi dediyen urte askuan  
gure kabi “*Artesana*”.

*7 Mayo 1892.*

*Leída en la velada*

*de La Unión Artesana, 7 Mayo.*

*Publicada en La Libertad*

*8 Mayo 1892.*

## Tolosan gertatua lengusu baten etxian

---

1  
Lenguan zuben etxe  
barrenara sartu,  
eta baztar guztiyak  
nituben miratu;  
eta nola nik iñor  
ez nuben billatu,  
zuben galdez ojuka  
bainitzan aritu.

2  
Bein joan leio batera,  
gero sukaldera,  
andik urrena berriz  
salako aldera;  
gela denak miratu,  
gero komunera,  
ori da San Isidro  
Peperen sarrera.

3  
Ezagun zan lapurren  
bildurrik etzala,  
edo armaiuetan  
dirurik etzala;  
ain libre zegoen gela,  
sukalde ta sala,  
ta gañera Martinaen  
soñeko mantala.

4  
Jatekua nai aña  
bazeguan txit eran,  
erariya ere bai  
nai banuben eran;  
etzan au ditxa txarra:  
guztiya aukeran;  
gañera oiak libre  
nai bazan gera an.

5  
Galtza pare ederrak  
nituben ikusi,  
neretzat modukuak,  
boltsillo ta guzi;  
ekartzeko asmuan  
artzen nitzan asi,  
bañan gero oster  
damutu ta utzi.

6  
Alakorik batian  
luzeruan: «Je! Je!»,  
ojuka ari nitzan  
ta sentitu naute;  
goiko bizitzatikan  
irtenik bi andre,  
galdetzen ditet: «Zein da?».  
«Donostiko Pepe».

7

*Esan niyon: «Oiga usted:  
muy chocante es esta cosa;  
hoy aquí se han descuidado,  
pues la patrona no es sosa;  
ya que yo esta mañana  
he venido a Tolosa,  
de paso quise yo estar  
con José o con su esposa.*

9

Ezer faltatu bada  
ez det nik kulparik,  
nik ez det ezer artu  
besteren gauzarik;  
ez erropa, ez janik,  
ez ere dirurik,  
bestela konta gauzak  
badago dudarik.

8

*Y me encuentro que esta casa  
está muy abierta y sola,  
y todos están de farranda,  
hasta Martina la pochola;  
le dice usted de mi parte  
que he andado como una bola,  
y que le ha dado expresiones  
para todos: Pepe Artola».*

10

Etzabiltzate txarrak  
etxia utzita,  
ederra izandu da  
Peperen bisita;  
geiago esango ditut  
urrena ikusita,  
etzerate ordaintzen  
ezurrak autsita.

*Mayo 18 de 1892*

## Donostiko “Oroitza”

---

1  
Donosti eder maite  
txit gustagarriya,  
biyotzez dizut egiñ  
“oroitza” etorriya;  
zera pare gabia,  
txukun ta garbiya,  
kanpotar guztiyentzat  
estimagarriya.

2  
Dituzu kanpo eder,  
mendi ta zelaiak,  
kale, plaza ederrak,  
etxiak galaiak;  
inguruko bazterrak  
ere txit alaiak,  
batez ere apaintzen  
du erriya plaiak.

## Euskal Errira Andaluziyatik

---

1  
Agur gozo-gozo bat  
Andaluziyatik  
Euskal Errira egi-  
ten det biyotzetik;  
naitasunak eragin  
azten dit barrendik,  
maitatzen detalako  
lur gozo ori nik.

2  
Ain det maite lur ori  
non bertan aziyak,  
gustatzen zaizkit berak  
dituben graziyak;  
gustagarriyak dira  
bere alderdiyak  
eta berak dituben  
oitura guztiyak.

*Junio 14, 1892.*

*Estos dos zortzicos son escritos para dos músicas escritas (por) el Sr. Romero, de Andalucía, y publicadas a la venta el año 1892.*



## Karidadea

---

1

Sasoirikan onena  
ustez zutenian,  
betiko ezkutatu  
dirade urpian;  
negarra ta tristura  
indar gogorrian  
denari sartu zaie  
biyotz barrenian.

3

Oien barrenak oso  
arki dira eri,  
diralako trantze txar  
estuan ageri;  
txukatu zagun bada.  
negar putzu ori,  
egiñaz karidade  
umezurtz oieri.

2

Aurtxoak aita falta,  
andreak senarra,  
barrenetan sartu da  
gogorki negarra;  
eta ainbeste dauka  
miñ orrek indarra,  
komeni da guztiyak  
lagundu bearra.

Octubre 25, 1892

Cantada en el concierto del Casino  
por el tenor Manuel Vidart.

Publicada en los periódicos locales  
el 27 de Octubre de 1892.

## Zer mundua!

---

Nola ontzi bat  
itsas aundiyan  
larri ibiltzen  
da gau erdiyan,  
galdurik bide  
zuzena agiyan?  
Ala gabilta  
gu legorrian;  
asko salbatzen  
dira fedian,  
bestiak galdu  
pekatu-pian.

Azaroaren 25-an, 1892-an.

*Publicada en la Euskal Erria, el 20 de Mayo de 1893.*

*Publiucada en la Unión Vascongada el 24 junio de 1896.*

1

Gitarra jotzen abiyatzian  
lanak egin ondorian,  
etxeko denak jartzen dituzu  
oso umore onian;  
eta zedorren kanta politak  
kantatzen dituzunian,  
txoraturikan egoten gera  
zedorren aldamenian.

2

Ezta komeni anaiak orla  
arreba famatutzia,  
bañan alare pena litzake  
isilikan geratzia;  
nik nai detana ez da besterik:  
egiya aitortutzia  
eta merezi dezun neurriyan  
zure izena onratzia.

3

Bertsuak jartzen zera iaiua,  
batez ere ipuiyak,  
ilbanatuta jartzen dituzu  
pentsamentu egokiyak;  
askok leitu ta esango luke  
denak dirala egiyak,  
ain grazi onez antolatutzen  
dituzu kontu berriyak.

4

Itz jostalluan<sup>1</sup> ez da sortuko  
zuretzat punto gaitzarik,  
ezta iñon zu ikaratuko  
zaituben batezgoarik;<sup>2</sup>  
Jatortasuna zintzilik dezu  
erdi parrez ezpañetik,  
zenbat alditan uzten dituzu  
lagunak abo zabalik!

5

Txintxotasuna zure lanetan  
beti dezu zuk izaten,  
gero denbora dezun guztiyan  
zerbait lan eder ikasten;  
*solfa* kantatzen, bertso egiten  
edo gitartxua jotzen,  
bestela berriz libro onen bat  
ikasbidez irakurtzen.

6

Senire denak maite zaitugu,  
au da biziro egiya,  
zure begitik ikusten degu  
etxeko denak argiya;  
Jaunak goitikan emana dezu  
orlako doai graziya,  
Berak dizula komeni bada  
luzaro emen biziya.

*Pepe, 5 Febrero 1893.*

*Publicada en La Voz, 5 Mayo 1900;  
en la Euskal-Erria, 10 Mayo 1900.*

---

<sup>1</sup> *Chiste.* (Egillearen oarra).

<sup>2</sup> *Consonante.* (Id.).

## Maite detan bati “Pasaian” serenataren doñuan

---

1  
Maite neria, zu zera nere  
bizi moduko laguna,  
desiaturik nago etortzeko  
pozez zai nagon eguna,  
bata bestia maitaturikan  
igaro bear deguna,  
eskaturikan Jaun Goikoari  
pakia ta osasuna.

2  
Zuri dizuten maitasun fiña  
sortua det lenaztandik,  
eztakit nik zer gauza egingo  
ez nuken bada zugatik;  
maita nazazu nik zu maitatzen  
zaitutan gisa barrendik,  
amoriyozko su-gar biziyan  
biyotzaren sustraietik.

## Sor Josefari bere egunian (Manteoko Madria)

---

Gaur da San Jose egun aundiya  
Aita gloriosuena,  
Jaunak senartzat Birjiñarentzat  
aukeratutakuena;  
Jesus onaren munduko Aita,  
gidatzallerik onena,  
Jaungoikuaren serbitzurako  
berak paratu zubena.  
Bada guk ere segi zaiogun  
berari bide zuzena,  
degun ezkerro berak bezela  
mundu onetan izena;

berak mantxotzen digu askotan  
barrengo larritasuna,  
eta pizkortu erdi mintsua  
badaukagu osasuna;  
bera da gure gidatzallea,  
bera da gure laguna,  
zeruetatik begiratuaz  
beti laguntzen diguna;  
orreatatik desio diyot  
bedorri gaurko eguna,  
San Josek goitik lagundurikan,  
izan dezala leguna.

Bedorren serbitzari umill:  
Pepe Artola  
18 Marzo 1893.

**Gau tristema!**  
**Urbietta kalia erretakoari zortzikoa,**  
**Martxoan 19 gabea**

---

1  
Triste arki da Donostiya  
gerta dalako desgraziya;  
lagun zaiogun beartsuari  
al degun guziya.  
Au da bada desgrazi  
ikaragarriya!  
Zer eriotza triste  
ta penagarriya!

2  
Pake santuan arki  
ziradenak lotan,  
uste gabea sua  
arkitu zan bertan;  
eta suak indarra  
arturik batetan,  
ogei ta bost lagun dira  
gelditu garretan.

3  
Tristiak izango ziran  
agoni orduak,  
zizpiriyo, negarra,  
antsi ta orruak,  
ikusi ziranian  
zirala galduak,  
eta ezin libratu  
norbere buruak.

4  
Biyotzez eska zagun  
Jaungoiko onari,  
kupira izan dezala  
erre diranari;  
ta guk lagun zaiogun  
gañerakoari,  
*karidadea* egiñaz  
beartsu oieri.

Martxuan 24-an, 1893-an.  
*La música de esta letra  
es de Dn. José Urtubi.*

## Erreteriyān (Gertatua)

---

1  
Suerte txarra gertatu  
zait Erreteriyān  
asi geranerako  
geren lantegiyan;  
blusa zintzilik utzi  
nik nuben tokiyan,  
zerri zikiñ gizen bi  
zeuden an azpiyan.

2  
Biyetan batek ziyon  
blusari prest eutsi,  
ta bestiak ortzakin  
joskuratik autsi;  
bertan jango zutela  
nuben oso etsi,  
bañan zikindu arren  
etzuten nai utzi.

3  
Botoiak falta eta  
zikiñez betia,  
etzan posible blusa  
soñian jaztia;  
pena ematen zuben  
orrela ikustia,  
pentsatu nuben bertan  
berentzat uztia.

4  
Kaltia egitiaz  
etziran aspertzen,  
alaz guztiz burlaka  
zuten easotzen;  
zurrungaka *gru-gru-gru*  
etziran isiltzen,  
eskolatasun ona  
dute ikasitzen.

5  
Ai zer ongi-etorri  
egin digutena!  
Etzait zazpi urtean  
juango neri pena;  
libre banu egitia  
desio detena,  
biyak ilko nituke  
(ta gero jan dena).

6  
Eskerrak neskatx onak  
dirala gertatu,  
berak blusa jaso ta  
ziraten garbitu;  
botoiak jarri, josi,  
gañera legortu,  
eta arditik ere  
ez ditet kobratu.

*Abril 19, 93.*

*Publicada: Unión Vascongada,  
23 Abril 1893.*

## Errenteriko Pilartxori (Piñal)

---

1  
Pilartxo da neska txit  
ona eta fiña,  
zernai gauzetako du  
maña eta griña;  
jende artian oso  
ondo itzegiña,  
gurasoarentzako  
a zer atsegiña!

2  
Txit ondo ikasi du  
pianua jotzen,  
biatz politarekin  
ondo da moldatzen;  
egunero txit gogoz  
da leziyatutzen,  
gañera berak diyo  
ez dala aspertzen.

3  
Solfa kantatzen ere  
gutziz ondo daki,  
maisú biarrik eztu  
izango, ez, aurki;  
orren edadeko bat  
ez liteke arki  
dakiyenikan orrek  
ainbat gauz egoki.

4  
Zortzi urte bakarrik  
oi ditu munduan,  
eta moldatutzen da  
aundiyeñ moduan;  
gauzak egiten ditu  
txintxo bere orduan,  
ta zoratzen bizi da  
amaren onduan.

5  
Kolore gorri eder  
diruri arrosa,  
ibilleran da berriz  
biziro airosa;  
izugarriya dauka  
kanturako boza,  
ditxa obeagorik  
ezin leike goza.

6  
Amona txoraturik  
du, bai, erukitzen,  
abiyatzen danian  
kontuak kontatzen;  
etxeko guztiyakin  
ondo da moldatzen,  
orkakorikan ezta  
munduan billatzen.

*Abril 20 de 1893. Rentería.*

## Mariatxori

---

1  
Mariatxo moñoña,  
aur zoragarriya,  
dirurizu aingeru  
goitik etorriya;  
begiragarriya da  
zure arpegiya,  
Jaungoikuak dizula  
luzaro biziya.

2  
Ezpaiñtxo borobillak  
su kolorekuak,  
ortz illera ederrak  
perla modukuak;  
begi dizdizariyak  
izar añakuak,  
argitasun aundiko  
pare gabekuak.

3  
Illia urrezkua  
fiña ta ugari,  
dizdiza dariyola,  
bai, zaizu ageri;  
Jaun Goikuak beraiez  
egiña diruri  
trentza eder oparo  
eta apaiñ ori.

4  
Mingañan zer graziya  
Mariatxok duben,  
non izketan astian  
txoratzen gaituben!  
Frantzes, euskal, erdaraz  
astian mintzatzen.  
aitzen dauden guztiyak  
dirade arritzen.

5  
Argitasun aundiko  
zentzuak dituzu,  
amaren arraza, bai,  
munduratu dezu;  
edertasun guztiyak  
zerekin dauzkatzu,  
zori onez onera  
etorri ziñan zu.

6  
Jeniyua ta farra  
dezu guztiz ona,  
beti ibiltzen zera  
jartzen non-nai broma;  
pozez irrikiturik  
daukazu amona,  
batez ere geiago  
txoratzen aitona.

*Rentería, Abril 1893.*

*Dedicado a la niña María Kraffs. Escrito para un zortziko de C. Soralu-  
ce, que se ejecutó en Rentería por la música de la misma por Magdalena  
1893.*



## Eladiari (Errenteriyari)

---

1  
Mirabe fiña zera  
Ernanin jaiua,  
gogoz egiten dezu  
lanian saiua;  
zernai gauzetan zera  
biziro iaiua,  
etzera zenbait gazte  
bezela paiua.

2  
Oso zera neskaxa  
fiñ ta graziduna,  
euskal izkeran berriz  
moduzko iztuna;  
larru azala fiña  
dezu txit leguna,  
Jaungoikuak deizula  
luzaro osasuna.

3  
Arpegi borobilla  
graziyaz betia,  
gorputz ondo egiña  
eta txit tentia;  
ille ederra legun  
atzera botia,  
zer atsegiñ ona dan  
zukin egotia!

4  
Biyotza borondatez  
betia daukazu,  
ontasuna besterik  
azaltzen etzaizu;  
ontaraño bezela  
segitzen badezu,  
ditxarrik onenian  
izango zera zu.

5  
Izketan asitzian  
non-nai farrez-farrez,  
izarra dirurizu  
betia su-garrez;  
ta nor ezta gustatzen  
zure ortz ederrez?  
Oberikan billatzen  
ezta bada errez.

6  
Umore ona dezu  
beti erukitzen,  
orreatik zera  
pozkidaz bizitzen;  
Errenteriyari ere  
dezu zuk etsitzen,  
zori onak dizkitzu  
Pepék desiatzen.

Errenteriyari, Apirillen 28-an,  
1893-an.

## Ganborenari

---

1  
Jokalari eder ta  
oso airosuba,  
ondo manejatzen dek  
pelotan besua;  
amaikari ematen  
badakik izuba,  
argatik ezagutzen  
aute i maisuba.

2  
Aurretikan jokatzeko  
asteko aizenian,  
bildurrez lajatzeko dek  
bat aldamenian;  
ziriyak sartzen dituk  
nai ditukanian,  
eta *kintzia* berriz  
nai dekan darian.

3  
Atzetik, berriz, Jesus,  
ori jokatzia  
eta kontrariyua  
aixak txoratzia!  
Naikua dek pelota  
boletik artzia,  
ta nai dekan tokiyan  
tantua sartzia.

4  
Errebes, aire, bole,  
besagain, botian,  
denak artutzen dituk  
partida batian;  
ez aiz aspertzeko kontra-  
iua neka artian,  
ta *rau!* pelota gero  
sartzen dek tartian.

5  
Madrident ari aiz i  
partidak jokatzeko,  
lagun gogorren kontra  
igual aute jartzeko;  
bañan alaz guztiaz  
ez aute bantzutzen,  
nik beintzat paperetan  
ala diat letzen.

6  
Segi, Biktoriano,  
zuzen bide ortan,  
gelditu gabetanik  
iñon erdi lotan;  
i añakorik ez dek  
orain joku ontan,  
laister aberastuko  
aiz oso pelotan.

7

Madriden maite aute  
bertako guziyak,  
alaxe dizkiagu  
emen notiziyak;  
gorde zaizkik txit kontuz  
orko irabaziyak,  
eta eman akizkak  
Jaunari graziyak.

8

Irabaziya kontu  
ta ez iñon laja,  
ez deien bere moduz  
gauz on ori aja;  
ori dek gizonentzat  
betiko alaja,  
orain biari gaitzik  
ortik puro kaja.

*1º Mayo 1893.*

## Gernikako arbola gazteari bere aurrian (Nere adiskide On Ramon Pinagari donkitua)

---

1  
Gaur zuri nago aurrez  
begira gustora,  
gerri, adar, zaiñ, ezkur,  
lore ta ostora;  
ari zera loditzen  
ta luzatzen gora,  
zu ikusi ta zenbat  
gauz zaizkit gogora!

2  
Ama gaxua oso  
okertu danian,  
bere ordañaz asi  
zera zu lanian;  
argatik arki zera  
txit aldamenian,  
euskaldun Junta-etxe  
leku onenian.

3  
Txit grazi onez zaude  
liraiñ ta tentia,  
orri ederrez eta  
ezkurrez betia,  
malura kutsu denak  
gerritik botia;  
desio det beti zu  
orla egotia.

4  
Zeñen itzal ederra  
baitezun banatzen,  
euskal biyotza pozez  
da prest zuganatzen;  
atsegiñez betia  
orain naiz arkitzen,  
zuk dizkiratzu pena  
guztiyak aztutzen.

5  
Beti nuben desio  
zu ikustekua,  
eta zure gerriya  
laztandutzekua;  
orain naiz, bai, orain ni  
zori onekua,  
ordaindu detalako  
zor barrenekua.

6  
Zenbat eta geiago  
begiratzen detan,  
poz geiago senti det  
(au diyot benetan):  
zori onez jarriya  
zaude lur onetan,  
ama zarrak zaiñ onak  
dauzkan leku bertan.

7

Dituben indar pixkak  
dauzka zuretzako,  
bera len zan bezela  
zu loratutzeko;  
al dan indar denian  
beti goratzeko,  
eta euskal legeak  
gogoratutzeko.

8

Aurrez aurre gaur pozez  
arkitzen naizela,  
Jaunari nago eska  
gordekai zaitzala;  
zugañ graziyak beti  
banatu ditzala,  
eman dezazun amak  
bezela itzala.

Gernikan, 1893-an.

Publicada en venta pública.

*Id. en la Euskal-Erria,*

*30 Julio 1893.*

*Id. en La Unión Vascongada,*

*el 7 de Agosto 1893.*

## Nere arreba maite Rosariori bere egunian

---

Gaur eguna,  
guk deguna,  
desio dizut  
txit leguna;  
nola dan jai,  
oso alai  
igarotzia  
pozez det nai,  
ibilliyaz  
poz aundiyaz,  
betia grazi  
egokiyaz;  
oroituaz  
Jaungoikuaz,  
gañera bidez  
eskatuaz

osasuna,  
ondasuna,  
ta biyotzeko  
poztasuna;  
al banuke,  
au nai nuke  
zuret zat beti  
bazenduke;  
bai, maitia,  
pozt zaitia,  
au da nere bo-  
rondatia;  
ta garaiak  
txit alaiak  
gaur nai dizkitzu  
zuri anaiak.

*29 Setiembre 1893.*

*Publicada: Unión Vascongada,  
1º Octubre, día de N.S. Rosario,  
1893.*

## Kontzezioko Amari

---

Birjiña Ama mantxa gabea,  
kutsu gabeko argiya,  
naigabe denen pizkor bidea,  
zeru atsegingarriya;  
zuk pizkortutzen diguzu gure  
barren ontako larriya,  
zu zera gure laguntzallea.  
zu, bai, gure gidariya;  
zugana pozez makurtutzen da  
biyotzez pekatariya,  
zuk lagunduaz zeruetatik  
gozoago da biziya,  
zergatik zeran mundutar denen  
anparo txit mirariya;  
bana gaitzazu orain artean  
bezela goitik graziya,  
errukiturik aul abengana  
naiz ez izan mereziya;  
lagun gaitzazu goitikan guri,  
izar on dizdizariya,  
zure mantupe gozotsu ortan  
egin gaitzazu tokiya,  
orruntz joatian kanta dezagun  
birjintasunen gloriya.

Abenduaren 8-an, 1893-an.

*Publicada en la Unión Vascongada, el 8 de diciembre 1893.*

Euskal-Erria, 10 Febrero 1894.

Novedades, 7 Diciembre 1913.

**Jesusen jaiotza**  
**(Euskarazale apaiz on Ramon Irazusta jaunari)**  
**Villancico - Zortzikoa**

---

1

Illaren ogei ta lau  
gau Abendukoa  
da gure Jesus ona,  
bai, jaiotakoa;  
mirarizko jaiotza  
zori onekoa,  
glorियaz zerutikan  
etorritakoa.

2

Argi denen argiya  
jaio da munduan,  
San Jose ta Maria  
daukazki onduan;  
aingeru pilla berriz  
bere inguruan,  
zerutik etorriyak  
jaio dan orduan.

3

Zeru lurren Jabea  
Belen portalian,  
ara non ageri dan  
pobretasunian;  
astua ta iriya  
dauzka aldamenian,  
goxatu dedin aien  
berotasunian.

4

Oso soñu ederra  
entzun da biziro,  
biyotz pozgarria ta  
xamurra guztiro;  
aingeruen abotik  
aditzen da gero  
miragarrizko itz au:  
*Gloria in excelsis Deo.*

5

Artzai pilla bat dator  
menditikan bera,  
gure Salbatzallee  
non dan ikustera;  
bere aurrean pozez  
belaunikatzera,  
eta fede biziyan  
adoratutzera.

6

Dantza, poza, soñua  
da bere urrian,  
inguru denak datoz  
sasoi ederrian;  
denak gelditzen dira  
belaunka lurrian,  
biyotza pozturikan  
beraren aurrian.



7

Pillaka dakazkite  
txit gauz egokiyak,  
Jesus maitiarentzat  
prest erregaliyak:  
sagar, intxaur, babarrun,  
gaztaiñ, egaztiyak,  
eta bizkar gañetan  
zintzilik ardiyak.

8

Non-nai entzuten da gaur  
alaitasun otsa,  
erabat botarikan  
naigabe ta lotsa;  
kanta zagun guk ere  
pozturik biyotza  
mirariz betetako  
Jesusen jaiotza.

*Publicado en La Unión V<sup>a</sup>,  
el 25 Dicie. 1893.  
Ibaizabal, 28 Die. 1902.*

## Euskal Batzarre

---

1  
Euskal Batzarre deritzen zaio,  
au da lagunkidediya<sup>1</sup>,  
bere berdiñik inguruetan  
ez dubena bada iya;  
koroï eder bat lenaztandikan  
dauka, bai, irabaziya,  
goitaltxatzen du bear bezela  
guztiz ondo Donostiya.

2  
Euskara-zale prestubak dira  
bertan diraden gizonak,  
beti egiten dituztelako  
izugarrizko gauz onak;  
jabetu dira saiaturikan  
txit baliozko direnak,  
zeñek kontatu bertan arkitzen  
diran ikusgarri denak?

3  
Noiznai irtenik baso zokora,  
arkaitz-tarte ta mendira,  
baliyo duten gauzik onenak  
billatzen saiatzen dira.  
Erliak nola zumo gozua  
ekartzen dute kabira?  
Ala berian oiek eztiya  
ekartzen dute errira.

4  
Borondatezko graziya dute  
oiek berenez ekartzen,  
sinistu ezin leiken moduan  
dira guztiyak alkartzen;  
biyotzetikan arreta ona  
nola duten denak artzen,  
beragatikan seme on oiek  
dute erriya onratzen.

5  
Oiez gañera badute oiek  
beste grazizko putzua:  
soñulariyen maisutasuna  
dago batera jasua;  
aiñ egokiya eta ederra,  
aiñ eztiya ta gozua,  
noiznai entzuten danian pozez  
jartzen da biyotz osua.

6  
Eta nola ez soñu orkuak  
egiñ bati barrenen on,  
musikalari maisu oberik  
ez baldin badago iñon?  
Oiek aditzez aspertu gabe  
luzaro liteke egon,  
aurrera beti, *Leo de Silka*,  
*German Cendoya* ta *Guimon*.

*Abril 11 de 1894.*

*Publicado en la Euskal-Erria, 20 Abril 1894; y en La Semana Euskara,  
el 29 Abril 1894.*

---

<sup>1</sup> *Sociedad.* (Egillearen oarra).

## Umoria

---

1  
Jaungoikuak munduan  
geran guztियari,  
grazi on bat berexi  
diyo bakoitzari:  
bati jakinduriya,  
poza besteari,  
politasuna beste  
zenbait arloteri;  
orrela umoria  
eman ziran neri.

2  
Jaikitzen naizenetik  
badet umoria,  
ta ez nolanaikua  
baizik dotoria.  
Nola uda berriyan  
sortzen da loria,  
eta ark izaten du  
berez koloria?  
Ala berian det nik  
grazi au neria.

3  
Noiznai nere modura  
asten naiz kantatzen,  
edo bestela bertso  
berriyak botatzen,  
beste askotan berriz  
kontuak kontatzen;  
gauza txarrikan ez det  
beñere pentsatzen,  
orrela det beti nik  
denbora pasatzen.

4  
Okasiyorik etzait  
beñere gustatu,  
baizik beti pakia  
dan lekuan sartu;  
umore onarekin  
beti an aritu,  
al bada soñua jo  
edo-ta kantatu,  
modu ortara naiz ni  
izaten kontentu.

5  
Beñ zitzaidan aunditu  
masalla barrena,  
eta joan nitzan *Migel  
Valderrama*-engana;  
galde niyon: «Zer det nik  
emen daukatana?».  
Eta ark ala diyo:  
«Pepe, ai au lana!  
*Umoria* dezu zuk  
or daukazun dana».

*Publicado en el Thun-thun, 8 de  
Julio de 1894, y con mi fotografía.*

**Banquete**  
**en honor de Dn, Juan Guimon,**  
**en el Casino de San Sebastián, el 14 de Julio 1874**

---

**Brindis**

Barrenen arkitzen zait  
neri poz aundiya,  
atxitu degulako  
Panplonan sariya.  
Onek onratu digu  
gaur guri erriya,  
biba gure alkatia,  
biba Donostiya!

14 Julio  
Publicado en La Unión Vascongada y en  
La Voz de Guipúzcoa

**Himno a la Euskaria**

---

**Octava real**

Mendi artetik irten da  
zeruraño garbi-garbi,  
Euskaria da azaltzen  
aiñ fiña eta aiñ argi.  
Bere diz-diz errañuak  
ditu bazterrak edertzen,  
jaiki guztiyak, ikusi  
zeiñ ederra dan agertzen.

**Zortziko**

Euskal Erri gozoa,  
baltsamo guriya,  
Jaunak berexitu ta  
lurrian jarriya;  
zera leku eder ta  
estimagarriya,  
alai, dontsu, noblea,  
txukun ta garbiya,  
atzerritar guziyen  
begiragarriya.

12 Agosto 1894.

## Kontzezioko Amari

---

Ama Kontzepzioko,  
Birjiña Mariya,  
zeruetan tronuan  
zaudena jarriya,  
dontsu eder gozoa,  
gutziz mirariya,  
aingeruen erregin  
eta gidariya,  
eguzki eta izar  
guztiyen argiya,  
mantxa kutsu gabeko  
ispillu garbiya,  
fedesantu biziyen  
lenengo arriya,  
zu zerade, bai, mundu  
ontakuen giya.

Zuk kendutzen diguzu  
barrengo larriya,  
ala berian senda  
dagona eriya,  
zeralako ain ona  
eta aiñ aundiya,  
sendotutzen diguzu  
aultasun guziya;  
zure esperantzetan  
da pekatariya,  
izan zazu guretzat  
miserikordiya!  
Zure mantupe ortan  
egizu tokiya,  
guk ere goza zagun  
Zeruko Gloriya.

Abenduaren 8-an, 1894-an  
*Publicada en La Unión Vascongada, el 8 Die. 1894; y*  
*en El Correo de Guipúzcoa, el 8 Diciembre de 1899.*

## San Jose

---

Aita San Jose gloriyosua,  
birtute denen arriya,  
zeruko intzez guritutako  
lore txit dizdizariya;  
Ama Birjiñen senar on eta  
Jesusen aita garbiya,  
eriotzeko azken orduko  
mundutarren gidariya;  
guk ere Jose nola izena  
degun munduan jarriya,  
eta izanik San Josegana  
barrengo fede biziya,  
eskatzen degu lur triste ontan  
izan zazula errukiya,  
emanaz guri azken orduko  
ondo iltzeko graziya,  
utzirik gure barrenetatik  
erru txar degun guziya;  
egizu, arren!, zeru on ortan  
gu izateko tokiya,  
goza dezagun beti-betiko  
pare gabeko gloriya.

*Publicada en La Unión Bascongada,  
el 19 Marzo 1896.  
Correo de Guipúzcoa, 19 Marzo 900*

## Magdalena Larralde (Sarakoa)

---

Lema: «Bizi bedi fedia  
eta euskaldun jendia».

1  
Neronek nola detan  
memori txikiya,  
Jaungoikuari diyot  
eskatzen graziya,  
goitik bigaldutzeko  
zentzura argiya,  
argiratu dezatan  
nai detan guziya.

2  
O zeñen gozotsua  
dan Euskal Erriya,  
zeñak badirudien,  
bai, uda berriya!  
Zeñen dontsua eta  
zeñen ongariya,  
zer dizdizaria ta  
zer zoragariya!

3  
Uda berriyan lora  
sortzen dan modura,  
Saran lore eder bat  
sortu zan mundura;  
aiñ dizdizariya zan  
lore eder ura,  
berdintzeko etzala  
besterik ingura,

4  
Magdalena Larralde  
da lore aiñ fiña,  
baratz denetan ez dan  
bezela berdiña;  
munduko lore eder  
denen erregiña,  
usai gozoz betia,  
famatu eziña.

5  
Fediak nola duben  
indarra ugari,  
zeruko printzak sortzen  
zitzaizkan berari;  
ta nola Jaunak eman  
ziyon grazi ori,  
beti esker ematen  
ari zan Jaunari.

6  
Jaunak ala berian  
goitikan graziya  
banatutzen baiziyon  
berak mereziya;  
laguntzen ziyon bada  
arrek mereziya,  
izan zedin kutsu txar  
gabea jantziya.

7

Milla zazpireun la-  
rogei ta amairuan,  
frantzes ta españolen  
guda zan orduan;  
txit zalla zan bizitzen  
biyen inguruan,  
gaxuak naiko lana  
bazeukan buruan.

8

Apaiz bat nai zuben ark  
benetan billatu,  
zediyen maiz bezela  
fedez konfesatu;  
bañan nai arren eziñ  
zubela arkitu,  
beste buruz bide bat  
zitzaion argitu.

9

Pentsatu zuben pozaz  
txit goiz jaikitzia,  
eta bere erriya  
Sara lajatzia;  
Españiara oñez  
presaz pasatzia,  
Nafarroako Bera  
erriyan sartzia.

10

Esan bezela jaiki  
zan egun sentira,  
eta abiyatu zan  
menditik mendira;  
oñez emanik bide  
guziyari jira,  
sartu zan Magdalena  
Berako errira.

11

Zer poztasun aundiya  
Berako erriyan  
arkitzia pake ta  
Jaunaren graziyan!  
Elizara sartu ta  
an egun guziyan  
konfesatzeko pozaz  
gozozko antsiyan.

12

Belauniko jarririk,  
begiyak malkotan,  
biyotza ernai eta  
burua ez lotan;  
Jesus izen gozoa  
zubela frankotan,  
egon zan erregutzen  
Berako eliz ortan.



13

Berak ziyon: «Zer poza,  
zer alaitasuna,  
zer alegrantzi eta  
zer gozotasuna!  
Zer pake eder eta  
zer zorotasuna,  
zer ezin esan leiken  
zoriontasuna!

14

Zorioneko Bera  
erri gozotsua,  
atsegiñaz egiñ det  
onera pausua;  
emen kendu zait neri  
len neukan lausua,  
eta erru txar denak  
neukaten kutsua.

15

O Jaun aundiya, dizut  
eskerrak ematen,  
dirazulako goitik  
orrela laguntzen;  
zure aurrez gustora  
naiz belaunikatzen,  
nere biyotza dizut  
bertatik eskeiñtzen.

16

Birjiña Ama ona,  
zeruko izarra,  
eman zaidazu orain  
bezela indarra;  
beti daukat barrenen  
nik zure bearra,  
zuk piztutzen dirazu  
nere fede garra».

17

Miragarriya zan txit  
Larralden otoitza,  
jasorikan zerura  
fedezko biotza;  
ain zuben barrendikan  
sentitzen ark poza,  
non eztitasuna geigo  
ezin zezan goza.

18

Bada desio zuben  
jauna billaturik,  
eta bere aurrian  
belaunikaturik,  
zentzuak oso ernai  
zerurontz jasorik,  
konfesatu zan, Jaunak  
goitik lagundurik.

19

O zer bildotx mantsua,  
zer mantxa gabia,  
orrela maitatutzen  
dubena fedia!  
Biyotzian zeukan ark  
(zer gauza obia!)  
zeru eta lurraren  
guztiyen Jabia.

20

Ditxa oberik etzan  
arentzako izan  
nola izandu zuben  
Berako elizan;  
birtutez jabeturik  
aingeruen gisan,  
Jaunaren amoriyoz  
berriro jantzi zan.

21

Indar berriturikan  
dontsutasunakiñ,  
eta bere barrengo  
kristautasunakiñ,  
Sara bidera berriz  
zuben oñez ekiñ,  
fiyaturik Jaunaren  
laguntasunakiñ.

22

Bañan ara zer gauza  
zitzaion gertatu,  
frantzes lurreko mугan  
oi zanian sartu:  
ispien bat zalako  
zuten preso artu,  
eta buruzagien-  
gana bertaratu.

23

Buruzagiak zizkan  
gauz asko galdetu:  
ea nondik zan ara  
orla alderatu;  
obe zubela gezur  
bat bertan asmatu,  
eta beste lekuen  
batera aldatu.

24

Gero ziyon: «A, gazte  
dontsu ta umilla,  
oker jiran dabiltzu  
zuk zure kurpilla;  
onuntz etorri zera  
eriotzen billa,  
obea dezu beste  
lekuen bat billa.

25

Amazazpi urteko  
gazte ona zera,  
eta gauza bat nua  
zuri esatera;  
emen leku txarrian  
arkitzen baizera,  
lengo lekura jira  
zaitia ostera.

26

Ez al dakizu emen,  
atxitu ezkeru,  
ez dezula gauz onik  
iñola espero?  
Zure zelatan ortxen  
dira onezkeru;  
azkar ibilli, ez da  
denborarik gero.

27

Kupira detalako  
dizut au esaten,  
ixiltxo<sup>1</sup> irakurtza<sup>2</sup>  
bat dizut ematen;  
iñork non ziñan baldiñ  
badizu galdetzen,  
esan Beran ziñala  
lagun bat ikusten.

28

Bestela badakizu,  
ispitzat arturik,  
ez dezula izango,  
ez, barkaziyorik;  
eta egin dezun lan  
dena ukaturik,  
gezurra esan ta libre  
zerade bertatik».

29

«Estimatzen det asko  
bedorren esana,  
eta nereganako  
kupira zeukana;  
bañan eziñ nezake  
gezurtu nik, jauna,  
Beran biyotzetikan  
egin detan lana.

30

Izan dedilla gauza  
nai duben bezela,  
ez pentsa deusengatik  
bildurtzen naizela;  
nai dan oker guziya  
nigan datorrela,  
jasotzeko zai nago  
bere-beriala.

---

<sup>1</sup> *Secreto*.

<sup>2</sup> *Lección*. (Egillearen oarrak).

31

Aitortuko det denen  
aurrian egiya,  
bildurrik gabe daukat  
txit barren garbiya;  
Jaun onak egingo dit  
zeruan tokiya,  
gozatzeko betiko  
beraren gloriya».

32

Pinet agintariya  
zan guztiyen buru,  
an zer gertatutzen zan  
ziyoten kontatu;  
eta ark beriala  
bai zuben agindu  
ekartzeko argana  
zediyen bigundu

33

Jarririkan Magdalen  
Pinet-en parean,  
abiyatu zitzaion  
txit modu onean:  
«Zein erritatiek zatoz?  
Esan zazu geran».  
«Egiya esateko,  
izandu naiz Beran».

34

«Eta zer egin dezu  
Españi lurrian?».  
«Belaunikaturik egon  
Jaunaren aurrian;  
eta nola dakartan  
biyotz xamurrian,  
Berarekin arki naiz  
oso indarrian.

35

Ez det mundu ontako  
iñoren beldurrik,  
ez da fedetasun au  
kenduko diranik;  
Berari otoitz gabe  
ez det nik egunik,  
ez da deus Beragatik  
egingo ez nukenik.

36

Ta nola ez maitatu  
ta izan fedia  
aingeru ta mundutar  
denen Erregia?  
Berak biyotz barrenan  
sortu dit labia,  
ura det gordekari  
ta nere Jabia».

37

Odolak beroturik  
agintariyari,  
agindu zuben preso  
sartzeko dam ori,  
esanaz berotzeko  
bizkarra berari,  
zigorraren kolpiak  
emateko ugari.

38

Ea modu ontara  
ote zan biguntzen,  
eta ark egin zuben  
lan dena ukatzen;  
baña alaz guztiyaz  
au etzan izutzen,  
baizik Jaunari ziyon  
beti erregutzen.

39

Ikusirikan sendo  
fedian zegoala,  
eta ezergatikan  
bildurtzen etzala,  
agindu zuben Pinet  
jaunak beriala  
erriyan erakusten  
ibill zezatela.

40

Eskarmentagarritzat  
beste guztiyari,  
ta bildurra sartzeko  
gañerakuari,  
lotuta denen aurrez  
zuten an ibilli,  
gaizkille bat bezela,  
denen farragarri.

41

Alaz guztiyaz etzan  
au fedian oztu,  
baizik naigabe abek  
zuten geigo poztu;  
berak ziyon: «Orañ naiz  
oso aberastu;  
badakit Jauna nitzaz  
etzaitala aztu.

42

Kalte au da neretzat  
oso gustokua,  
zori onian nabill  
onela lotua;  
zerua jabetzeko  
badaukat asmua,  
pozez jarraituko det  
nik azken ordua».

43

Gero eraman zuten  
gillotinatzer,  
labanaz gorputzetik  
burua kentzera;  
munduko eginkaien  
zorrak pagatzera,  
Pinet-en agintea  
gogoz kunplitzera.

44

Umill-umill gaxua,  
ardiyen modura,  
sartu zan urka mendi  
edo ill-lekura;  
begiyak jasorikan  
Jaunari zerura,  
kunplitzera sententzi  
penagarri ura.

45

Otoitz ta erreguak  
zituben goguan,  
*Salve, Regina* zuben  
aitatzen orduan;  
jarririkan umilki  
bear zan lekuan,  
sartu zitzaion laban  
zorrotza lepuan.

46

Zer eriotza triste  
eta zer gogorra  
azken pagutzat eman  
ziyotena, orra!  
Galdu nai ezik bere  
inozentzi ta onra,  
modu ontara zuben  
pekatua borra.

47

Begira jende asko  
zan antxen arkitu,  
onen fedetasunaz  
ziraden arritu;  
askori zitzaioten  
biyotza mugitu,  
eta berialaxen  
bertan konbertitu.

48

Zer ejenplo ederra  
ta onragarriya,  
fedia maitatuaz  
galtzia biziya!  
Nola zuben beti ark  
zeruko antsiya,  
bertaratu zan bada  
birtutez jantziya.

49

Sarako erriyak du  
guztiz onoria  
izatia orlako  
alaba beria;  
oraiñ ere saiatu,  
bertako jendia,  
maitatzen, ark bezela,  
Jaunaren legia.

50

Txit borondatez ditut  
itz abek neurritu,  
eta Madalenaren  
omenak argitu;  
iñork uts egiñikan  
billatzen baditu,  
biyotz-biyotzez diyot:  
meserez barkatu!

*Junio 18 de 1895.  
San Sebastián.*

## Magdalena Larralde

---

1

Zori oneko Euskal Erria  
lur gozo eta eztiya,  
baztar paketsu pare gabia,  
leku begiragarriya,  
lore garbiyen baratz ederra  
guztiz estimagarriya;  
zure tartian azaldutzen da  
Frantziko Sara erriya,  
Magdalena Larralde dontsua  
munduratu zan kabiya.

2

Milla zazpireun larogei eta  
amairugarren urtian,  
frantzes-español guda gogorra  
zerabilela artian,  
Larraldek apaiz jaun bat nairikan  
billatu, naiz apartian,  
konfesatzeko fedetasunen  
indar sendo ta betian,  
Saratik oñez irten ta sartu  
zan Berara goiz batian.

3

Bere biyotza Beran poztuta  
konfesaturik gustora,  
oñez asi zan berriro mendiz  
bere errira ostera;  
bañan bidean zitzaizkan arri  
gudari pill atera,  
ispitzat preso arturik zuten  
eraman beren aldera,  
loturik sendo besoetatik,  
buruzagien aurrera.

4

Buruzagia kupiturikan  
asi zan gauzak galdetzen,  
al bazan amazpi urteko  
damatxoari laguntzen;  
esan ziyon: «Zu leku txarrian  
zerade emen arkitzen,  
nondik zatozen gaur iñork zuri  
badizu galde egiten,  
esazu, arren!, Beran ziñala  
adiskide bat ikusten.

5

Bestela emen utzi bearra  
dezu laister zuk biziya».  
«Ez det bildurrik, denen aurrian  
aitortuko det egiya;  
ez det iñola ukatu nai nik  
zeruko Jesus aundiya;  
Berak egiño dit goi on ortan  
betiko neri tokiya,  
eriyotzaren zai pozez nago,  
egin nai duten guziya!».

6

Orduan Pinet zan agintari  
ango gudari denena,  
agindu zuben bertartzeko  
Magdalen al zan lenena;  
esan bezela argaturik  
asi zan galdetzen dena,  
ta ikusirik sendo zeukala  
fedetasunan barrena,  
biziya bertan arri kentzeko  
prest eman zuben ordena.



7

Larralde etzan deus ikaratu  
sententzi gogorreakin,  
baizik begiyak gora jaso ta  
otoitzari ziyon ekin,  
esanaz: «O Jaun maite neria,  
arkitutzen naiz Zurekin,  
egiyetako amoriyo ta  
fedetasun denarekin,  
nere biyotza eskeintzen dizut  
borondate onarekin!».

8

Eraman zuten gaizkille txar bat  
balitz bezela iltzera,  
Pinet-ek lenaz agindu zuben  
sententziya kunplitzera;  
laban zorrotzak gorputzetikan  
bere burua kentzera,  
ona besterik egin etzuben  
aurra gillotinatzera,  
biyotz barrendik ain maite zuben  
zerua irabaztera.

9

Bakar-bakarrik jarri zan bada  
ill bear zuben lekuan,  
Jesus onaren izen gozua  
zeukala beti goguan;  
*Salve, Regina* esaten zuben  
eriotz azken orduan,  
laban zorrotza sartu zitzaion  
kolpez bere garronduan,  
azken pagua orla izandu  
zuben gaxuak munduan!

10

Zer eriyotza gogorra zuben  
gaxuak bada sufritu,  
nairik Jaunaren fedetasuna  
eriyotzakin aunditu!  
Bada Larralden dontsutasunaz  
jende dena zan arritu,  
askori kolpez beren barrenak  
zitzaiozkaten mugitu,  
zeñak ziraden Jaungoikoaren  
federa prest gonbertitu.

Garagarrillaren 22-an, 1895-an.

## Uda berriya

---

Uda berri gozoa  
danian etortzen,  
zer atsegintasunak  
diraden sentitzen!  
Eguzkiya oso goiz  
asten da jaikitzen,  
eta bere printzakin  
bazterrak argitzen;  
errañu denak ditu  
medartu ta urtzen,  
dirala denak ezer-  
ezera biurtzen.  
Zeru zabal urdiña  
oso da agertzen,  
txoriyak asten dira  
pozturik kantatzen,

eta Egilleari  
eskerrak ematen;  
mitxirrika txuriyak  
eguak zabaltzen,  
eta lore tartian  
gustora egatzen.  
Kanpoak guri-guri  
dira bada jartzen,  
goiko gozotasuna  
dutelako artzen.  
Nekazariyak ere  
dirade poztutzen,  
kanpoari begira  
ez dira aspertzen.  
Jaun onak zenbat grazi  
dizkigun bigaltzen!

*Octubre 95.  
Publicada en La Unión Vascongada,  
el 27 de Abril 1896;  
y en la Euskal-Erria, 30 Mayo 1896;  
La Vasconia, de Buenos Aires,  
10 Enero 1899;  
Eco de la Tarde, Julio 1908;  
Pueblo Vasco, 25 Mayo 1919.*

## Kontzezioko Amari

---

Ama Mariya,  
izen aundiya,  
dezu gloriya  
zure jantziya;  
zera argiya,  
dizdizariya,  
printzaz josiya,  
maitagarriya  
aiñ ongariya  
ta pozgarriya,  
legun, eztiya,  
txit maitatiya;  
gure antsiya  
eta larriya,  
aulduba iya,  
Zugan da fiya  
ala eriya,  
pekatariya  
ta elbarriya;  
gaur eskariya  
degu berriya:  
Ama Mariya  
garbi-garbiya  
izanik giya,  
egin tokiya  
zure gloriya!

Abenduaren 7-an, 1895-an,  
Donostiyan.

*Publicada en La Unión Vascongada,  
el día 8 de Diciembre de 1895.*

## Gabon kantak

---

1

Gabon gaba dalako  
gatoz gu onera,  
euskal lege zarrean  
gabon ematera;  
borondate onakin  
guaz kantatzera,  
ez bildurtu gurekin,  
ezagunak gera.

2

Oso urrutitikan  
gatoz orla biyak,  
miseriyaz betiak,  
orrela jantziyak;  
kupigarriyak dira  
biyoren antsiyak,  
kanpo ta barren gaude  
biziro autsiyak.

3

Onuntz iritxi gera  
gorputzak ozturik,  
beon esperantzetan  
biyotzak pozturik;  
guretzako ez dauka  
gaur iñork kupirik,  
gure boltsan ez dago  
tokiya besterik.

4

Bixigu batentzako  
nai genuke osa,  
Gabon gaba dezagun  
zori onez goza;  
bañan erdi kraskatu  
zaigu orain boza,  
beok zerbait eman ta  
izango da poza.

5

Agur, etxeko denak,  
eta ondo bizi;  
agirandotxo zerbait  
ez al da merezi?  
Beste norabaitera  
baguaz igasi,  
preso sartu bañon len  
zarpa zar ta guzi.

### Estribilloa

Santeronian degu  
ustez apariya,  
izango degu antxen  
naiko egaztiya;  
bañan ez eiztariyak  
onuntz ekarriya,  
baizik plateretara  
egan eroriya,

Etixerik etxe kantatuak  
*Diciembre 9, 1895.*

**Gabon kantanak**  
**(Bromakuak,**  
**kuadrilla ona baita etorri onera)**

---

1  
Osasuna diyogu  
desio denari,  
etxe onetan arki-  
tutzen diranari;  
pakea, poza eta  
dirua ugari,  
beok dezaten gero  
zerbait eman guri.

2  
Erdi katarratu ta  
erdi elbarriyak,  
onera sartu gera  
oso egarriyak;  
beon aurean pozez  
gaude gu jarriyak,  
bustiko ote ditugu  
emen eztarriyak.

3  
Zarpatsu xamar gaude  
irurak jantziyak,  
kupigarriyak dira  
gaur gure antsiyak;  
erropa berririk ez,  
lenguak autsiyak,  
gutzaz gaur kupituko  
al dira guziyak.

4  
Apetitu ona ta  
jatekua falta,  
au da gaur arratseko  
guk dakagun planta;  
debididadiakin  
indar denak joanta,  
pizkortuko gerade  
bixigua janta.

5  
Gure ondo nai denak  
eskasak dirade,  
gañera artakuak  
oso ez gerade;  
gure barrenak oso  
penatuak daude,  
ikusirik aurean  
orrenbeste jende.

6  
Ariyo, etxeukuak,  
gabon bat pasatu,  
ez guregatik ezer  
txarrikan pentsatu;  
beongandikan guaz  
biziro kontentu,  
gaizki esan guziyak  
meserez barkatu.

## **Estribillo**

Afari batentzako  
bildu nai genuke,  
au dalako meriyo  
orra zenbat neke;  
gañera bixigua  
ez dago gaur merke,  
zardiñ zarra biarko  
jan bixigu truke.  
Agirandoooo!

## Zarautzen

---

1  
Sekulan artu badet  
biyotzian pena,  
izango da nik orain  
sentitzen detena;  
gogorra da gaur neri  
gertatu zaitena,  
segiduan esango  
det nola dan dena.

2  
Zarauztik ziraten bart  
neri gaztiatu  
ez nedilla etorri  
gabe gaur gelditu;  
*arrasta* bear zala  
gaur emen urpetu,  
eta gero millaka  
arraiak atxitu.

3  
Ustez gizon fiñaren  
itzak sinisturik,  
eta arrai biltzea  
guk ikusi nairik,  
beriala lagunak  
an elkar arturik,  
pozez etorri gera  
lan denak utzirik.

4  
Birian guazela  
esaten genuben:  
«Zer egun ona pasa-  
ko degun Zarautzen!  
Erdi jai izango du  
jendiak gaur emen;  
ea, mutillak, guazen  
bertara lenbailen!».

5  
Noizbait iritxi gera  
Zarauzko lurrera,  
eta segiran egiñ  
bertan galdeera:  
ea *arrasta* bota  
duten gaur urera,  
gero dezaten bildu  
arraia ondarrera.

6  
Erantzun dute ezetz,  
ez dala *arrastik*,  
eta ain gutxi bota-  
tzeko arrastorik;  
itz onek laja gaitu  
guztiyak suturik,  
eta biyotz barrenak  
oso penaturik.

7

Jakin izan bagendu  
etzala *arrastik*,  
ez giñan mugituko  
geren lanetatik;  
urrenguan egiya  
esanta're, ez nik,  
ez det beintzat jarriko  
erri ontan anak.

8

Au da pake-gizona  
engañatutzia,  
eta oso ederki  
illia artzia;  
merezi luteke gaur  
preso sartutzia,  
eta urrengorako  
eskarmentatzia.

9

Zer esango digute  
errira joatian,  
ta emen pasa dana  
bertan jakitian?  
Bada zabilzatela  
zedorren kaltian,  
iñor ez dala etorko  
urrengo batian.

10

Baserritarrak ere,  
or diranak bizi,  
txit pozez etorriyak  
dituzte ikusi;  
bañan beren buruak  
jarririk itxusi,  
ostera buelta dira  
pardela ta guzi.

11

Gaurko pasadizuak  
ez dirade txarrak:  
agindu ta egin ez  
aziyo kaskarrak;  
txoruen fama dute,  
bai, donostiarrak,  
bañan aien antza gaur  
dute zarauztarrak.

12

Gezurrikan ez det nai  
al bada iñola,  
pasa dana esaten det  
dena zer ta nola;  
iñoren bildur gabe  
azaltzen naiz orla,  
nere izena berriz  
da *Pepe Artola*.

Zarautzen, Otsaillaren 13-an, 1896-an.

Len lenago izena duben gisa *Zarautz*, orain jarri diyote erri oni *Sare-uts*.  
(Egillearen oarra).



## Juanita Etxeberriari (Erreterriyan)

---

1  
Neska polita zera  
eta txit argiya,  
izar dizdizariya  
onuntz etorriya;  
inozetziko mantu  
txuriyan jantziya,  
aita eta amaren  
kontsolagarriya.

2  
Izketan dezu oso  
grazi egokiya,  
Ameriketatikan  
onuntz ekarriya;  
zu izketan astian,  
ai ori graziya!  
Zera erretxiñola<sup>1</sup>  
bezin pozgarriya.

3  
Zure begiyak berriz  
ai oiek begiyak!  
Oiek dira izar bi  
txit dizdizariyak,  
lañurikan gabeko  
biziro argiyak,  
espillua bezela  
legun ta garbiyak.

4  
Gorputz torniatua  
moldian egiña,  
ezin esan liteken  
bezelako fiña;  
illia urrezkua,  
legun ta berdiña,  
dirurizu zerala  
zeruko imajiña.

5  
Graziz guztiz betia  
zerade agertzen,  
zure onduan ezta  
iñortxo aspertzen;  
oiez gañera dizu  
grazi batek eltzen:  
ontasunakin beti  
zerala elkartzen.

6  
Ontasunak berekin  
dauka beti fama,  
orain arte bezela  
izan zaite, Juana;  
birtute onak beti  
elkartu zugana,  
pozez bizi ditezen  
aita eta ama.

*Publicada en La Unión Vascongada,  
Mayo 1896.*

---

<sup>1</sup> *Ruiseñor.* (Egillearen oarra).

## Nere maisu eta lagun On Juan Gimoni

---

Ziñez esaten dizut  
nik biyotzarekin  
pozkidatzen naizela  
zure ezkontzakin;  
bizi zaite luzaro  
emaztiarekin,  
osasuna, poza ta  
pake onarekin,  
eta desio dezun  
gauza denarekin.

## San Pelaio

---

1  
Gaur degu San Pelaio,  
Zarauzko eguna,  
igaro bear dana  
al bada leguna,  
Jaunari eskaturik  
aurren osasuna,  
zeña dan lendabizi  
guk bear deguna.

2  
Goizetik asten dira  
soñuak kalian,  
esnatzen lo daudenak  
artian oyian;  
gerora San Pelaion  
dagon zelayian,  
zortziko eta dantzak  
umore onian.

3  
Inguru denetatik  
zelai ederrera  
biltzen da jolastera  
ta merendatzera;  
pakez gozatu eta  
illunabarrera  
jendia jiratzen da  
berriz Zarautzera.

## Aurtxo bati

---

Amak:

Baratzako arrosa,  
liriyo, jazmiña,  
pentsamentu, bost llaga  
eta krabeliña,  
gañerako lore ta  
beren erregiña,  
aien gañetik zera  
zu lore ain fiña,  
non eztan famatzeko  
letrarikan diña.

Zu zera erru gabe  
munduan aziya,  
zu zera poz guztiyen  
koroiaz jantziya;  
zu zera orniturik  
dezuna graziya,  
zu zera printzaz bete-  
ta zauden argiya,  
zu zera nere izar  
ta nere eguzkiya.

*Publicada en El Correo de Guipúz-  
coa, 3 Julio 1901;  
Euskal Erria, 20 Agosto 1901;  
Pueblo Vasco, 1914 Diciembre 14.*

## Txarmangarriyari eatsiya liburu berriyan

---

Munduko gora-berak  
dirala meriyo,  
biotzean sortzen da  
zenbait amoriyo;  
ez liteke geiegi  
itz onetaz fiyo,  
len pozez zana jarri  
liteke seriyo.

## Oroitza

### Kuban gudan dabiltzan españatarrari

*(Poesía premiada con 50 pesetas y diploma en Mondragón,  
publicada a expensas de la Diputación)*

---

1  
Sorterriyak<sup>1</sup> bularra  
emanik aurrari,  
magalian laztanka  
goxatuaz ongi,  
sasoyikan onena  
osaturik oni,  
Kubarako eskatu  
diyote amari,  
eta borondatez du  
eman amak ori.

2  
Guda txar bat dalako  
semeak baturik,  
dijoaz bentzutzero,  
etxiak utzirik;  
sorterri eta ama  
aurren laztandurik,  
dierriari<sup>2</sup> agur  
gozo bat egiñik,  
Jaunaren esperantzan  
biyotza jarririk.

3  
Fedia zimendutzat  
arturik aurrena,  
lur maiteaz pentsatzen  
dutela urrena,  
osatuko dute prest  
amaren ordena,  
garaiturik bertako  
jende zital dena,  
jaso dezaten gero  
pozezko omena.

4  
Española beti da  
noblea eta fiña,  
oraiñ artean iñork  
bentzutu eziña;  
badirudi jaiotzez  
gudarako egiña,  
bada onek artzian  
barrendikan griña,  
ill artean egingo  
du fiñ alegiña.

---

<sup>1</sup> *Patria*. (Egillearen oarra).

<sup>2</sup> *Nación*. (Id.)

5  
Españolik ez dute  
iñoiz menderatu,  
milla bider naiz eta  
gogotik saiatu;  
baizikan beti denen  
gañez da altxatu,  
eta omen aundiyak  
beti etxeratu,  
betiko dezan gero  
erriyak gozatu.

6  
Orain ere emengo  
seme joan diranak,  
alde batera utzirik  
naigabe ta penak,  
onoretsu ibilko  
baitirade denak,  
amagatik lanean  
suturik barrenak,  
deituaz: «Bizi bitez  
gure lege onak!».

7  
Ama gaxua emen  
ez baitago lasai,  
besoak zabaldurik  
bere semeen zai,  
bañan laister andikan  
etorko dira, bai,  
oinperaturik legez  
makiña bat etsai,  
guda garaiturikan,  
sorterrira alai.

8  
Orduan zer igortzi  
ta laztan gozoak,  
zabaldurik benetan  
biyotz ta besoak,  
semeari emango  
diyozkan gaixoak,  
ordaintzeko an eman  
dituben pausoak,  
ibilli, naigabe ta  
neke penosoak.

9  
Bitartean Jaunari  
guztiyok erregu  
biyotz-biyotzetikan  
egingo diyogu;  
Berak goitikan guri  
lagunduko digu,  
esperantzetan bada  
egon bear degu,  
gero pozaren jabe  
egin gaitian gu.

*Junio de 1896*  
*Publicada en la Euskal Erria.*  
*Julio 1896;*  
*y en La Unión Bascongada, id. id.*

Bizi bedi euskera,  
pare gabeko izkera

1  
Euskal Erri gozoa,  
baltsamo guriya,  
Jaunak berexitu ta  
lurrian jarriya;  
zera leku eder ta  
estimagarriya,  
alai, dontsu, noblea,  
txukun ta garbiya,  
atzerritar guziyen  
begiragarriya.

2  
Bulartzat zumo ona  
eran baitizugu,  
argatik naitasuna  
biyotzez dizugu;  
eziñ esan dan ainbat  
guk maite zaitugu,  
euskaldun gera eta  
euskaldun nai degu,  
ill artian euskaldun  
izango gera gu.

3  
Beti izkuntz ederra  
zerade azaldu,  
zimendutzat zaiñ onak  
dituzu zabaldu;  
zure garrik beñere  
ez baita itzaldu,  
baizik geruago ta  
indar aundigo du,  
aurrera ere orla  
Jainkuak nai badu.

4  
Mendi, zelai, erreka,  
iturri, basoak,  
baserritxoak eta  
bide erosoak,  
denak dira guretzat  
eztitsu gozoak,  
erru kutsurik gabe  
txit baliosoak,  
ager ditezen garbi  
euskaldun pausoak.

---

<sup>1</sup> Bertso-sail au bi tokitan dago Pepe Artolaren esku-idatzian: 415 eta 335 orrialdeetan. Guk 415 orrialdekoari kopiatu diogu. Bestean, 335 orrialdean, zortzi bertso daude: 1 eta 8-garren falta. Gaiñontzeko bertsoak aitatzetik merezi duan aldaketarik ez dute. Baiña izenburuaren azpian eskeintza du: «On Antoine d'Abbadie jaunari donkittua». Etxeberria eta Gimonen kanta-bilduman ere lau bertso datoz: 1, 2, 4 eta 5-gna; baiña aitatzetik merezi duan aldaketarik gabe.

5  
Euskarak famak ditu  
ondo mereziyak,  
onoriak daukazki  
len irabaziyak;  
ala berian dauzka  
Jaunak berexiyak  
Españi ta Frantziko  
zazpi probintziyak,  
elkar baturik izan  
ditezen guziyak.

6  
*Zazpiak bat* deitzen da  
gure barrenian,  
benazko borondate  
bizirot onian;  
zazpiak bat nai degu  
guk indar denian,  
argatikan zazpiak  
daude aldamenian,  
katiaturik sendo  
anaitasunian.

7  
Leial ta sendo beti  
gure oiturretan,  
odol bat senti dala  
guztizon zañetan;  
baturik segi zagun  
geron izanetan,  
elkarri lagunduaz  
bear dan gauzetan,  
euskara maitatuaz  
denen biyotzetan.

8  
Gure aurreko zarrak  
munduan ziranak,  
euskaldun txit nobleak  
baiziran dianak,  
pozez egiñ zituzten  
euskararen lanak,  
bada orain lur ontan  
arkitzen geranak,  
aien orde z guk egiñ  
zaizkigun lan onak.

9  
Zarrak esaten zuten  
maitatzeko euskera,  
zalako kutsu txarrik  
gabeko izkera.  
Bada ontzat arturik  
aien esaera,  
zeña dagon sartua  
gure biyotzera,  
iñola ere maitatzez  
aspertzen ez gera.

10  
Len izan arren zerbait  
gauz txar edo naspill,  
orain omena ederrak  
goitaltzarrik dabill,  
erakutsiyaz lege  
ona guztiz abill.  
Zu maitatuaz pozez  
mundu ontan nabill,  
euskara galdu bañan  
naiago nuke ill.

*Publicado en El Correo del Norte,*  
*4 Marzo 1901.*  
*Pueblo Vasco, 7 Enero 1919.*

## Tolosan San Juan eguna

---

1  
Goizian goiz irtenik  
musika kalera,  
soñua banatzen du  
inguru denera  
ariyaziyaz: «Egun  
aundiyen gaur gera,  
etxietan zautenak  
etorri onera».

2  
Ziri-suzko, tipulak,  
ezkillaren otsa,  
tanbolin soñu goxo,  
umore ta poza;  
abek alaitzen dute  
triste dan biyotza,  
baita berotu ere  
len dagona otza.

3  
Prozesiyo ederra  
da gero erriyan,  
eta kantari onak  
meza nagusiyan;  
ondoren *Iru-ixkiñ*<sup>1</sup>  
deritzan tokiyan,  
soñulariyak jotzen  
dute eguardiyan.

4  
Artsaldian zezenak  
nola diran lasa,  
bertako ta kanpokoz  
betetzen da plaza;  
gero Igarondoko  
Zumardiyan dantza,  
gabian suak eta  
naikua jolasa.

*Junio 23 de 1896*  
*Publicado en La Voz de Guipúzcoa*  
*y La Unión Vascongada*  
*el 24 de Junio de 1896*  
*En La Vasconia, de Buenos Aires,*  
*Junio 20, 98*  
*San Sebastián taurino, Julio 1912*

---

<sup>1</sup> *Triángulo (plazuela)*. (Egillearen oarra).



## Aitona eta billobatxoa

### Airea: Uso txuriya...

---

1  
Aitonatxo bat mendiyán,  
gaztañ arbolén azpiyan,  
billobatxoa laztandurikan  
bere besuen erdiyan,  
eseririkan alkiyan,  
zeguan patxara aundiyan.

2  
Aurrari ziyon: «Kuttuna,  
zera nere poztasuna,  
naigabe, neke, pena guztiyak  
kendutzen dizkirazuna;  
aitonaren osasuna  
luza arazten dezuna.

3  
Zu besoetan laztantzen  
ez naiz beñere aspertzen;  
atsegiñ aundiz nik magalian  
zaitut zu beti goxatzen;  
zeñen gustora orlaxen  
detan denbora pasatzen!».

4  
Maiz emanikan musua,  
esaten diyo: «Gaxua,  
biyotz nerian sartuta zauden  
pare gabeko usua;  
auxen da ditxa osua,  
nere maitetxo gozua.

5  
Badaukat erregaliya  
kanpotikan ekarriya:  
imajiña bat zillarrezkua,  
erosi berri-berriya;  
egiten dizut sariya,  
ibill dezazun jantziya».

6  
Aurrak diyo aitonari:  
«Badakit zer duben ori:  
*aita gurea* euskarazkoa  
esan detalako ongi,  
pozturikan det ekarri,  
erregali on au neri».

7  
«Bai, izar eder maitia,  
gozotasunez betia;  
orain artean bezela beti  
euskaldun izan zaitia;  
au nai det nik izatia  
aitonen borondatia».

8  
Euskaraz mintza gaitian  
munduan geran artian;  
Jaunaren lege onak gorderik  
geronen borondatian,  
anaitasun ta pakian,  
euskaldun denak batian.

*Publicada: Euskal Erria, 10 Marzo 1897; Unión Vascongada, 17 Enero 1898. Ibaizabal 30 noviembre 1902 Baserritarra 1907-IX-28. Eco de la tarde, 9 Junio 1909. Pueblo Vasco, 2 Nov. 1914.*

## Magdalena Larraldekoari

---

1

Lore ederra sortzen dan gisa  
lur azpitikan argira,  
zeña beti dan zutik egoten  
Egilleari begira,  
ala berian azaldu ziñan  
garbi Sarako errira,  
euskal lurreko baratz eder ta  
oso begiragarrira.

2

Milla zazpireun larogei eta  
amairuan zan gertatu,  
gerra nola zan elizatarrak  
arunt ziran ezkutatu.  
Larraldek fedez konfesatzeko  
apaiz bat nairik billatu,  
Saratik oñez irten ta Beran  
egun batian zan sartu.

3

Beran pozturik biyotza oso  
konfesaturik gustora,  
oñez berriro asi zan mendiz  
bere errira ostera;  
bañan ispitzat eraman zuten  
preso Pinet-en aurrera,  
zeñak baizizkan berari egiñ  
bertan zenbait galdeera.

4

Ezagaturik ispiya etzala  
eta salbatu nairikan,  
diyo: «Esazu gezur bat eta  
libre zera bertatikan».  
Bañan Larraldek, uka nai ezik  
egiñ zuben lan onikan,  
diyo: «Ez det nik ezerengatik  
ukatzen gure Jaunikan».

5

Ikusirikan beraren itzak  
au etzutela bigundu,  
eta ain gutxi bere barrenan  
zeukan fedia arindu,  
Pinet-i laister zitzaion bere  
odola txartu ta mindu,  
eta segiran kupira gabe  
iltzeko zuben agindu.

6

Bakar-bakarrik Doni Juanen zan  
jarri iltzeko lekuan,  
*Salve, Regina* esaten zuben  
azken trantze txar estuan;  
laban zorrotza sartu zitzaion  
kolpez bere garronduan,  
ill zan munduan, bañan sartu zan  
beti-betiko zeruan.

Uztaren 31-an, 1896-an  
*Publicada en La Constancia,*  
28 Enero 1898

**Agur, agur!**  
**On Gregorio Irastorza**  
**ta bere familiari**

---

1  
Itsazoz bazuazte  
Buenos Aires-era,  
len lenago izaten  
ziñaten lurrera;  
zubek aruntz juatiaz  
gu penatzen gera,  
laister jira zaitezte  
berriro onera.

2  
Zubek zer on dezuten  
egiñ Zaldibiyen,  
goguan izango du  
jendiak agiyan;  
beñ zenuten ipiñi,  
esan dan erriyan,  
zagi ardo betia  
plazaren erdiyan.

3  
Erriko gizonentzat  
zagiya betia.  
On Gregoriok nai zuben  
au ala izatia;  
Gaintzan berriz izan zan  
zuben gonbitia:  
emakume denari,  
bai, txokolatia.

4  
Emengo adiskide,  
aide ta lagunak,  
ta beste emen diran  
zuben ezagunak,  
pasa izan ditugu  
pozez ta legunak  
gozozko gabak eta  
gañera egunak.

5  
Badakit zuaztela  
penaz beterikan,  
pare gabeko erri  
polit ontatikan;  
bañan gogoratuko  
zerate andikan,  
oroitzak bigaldurik  
zauten lekutikan.

6  
Jaunari eskatuaz  
graziya lenbizi,  
(zeñak dezuten bada  
guztiya merezi),  
urez aruntza joaten  
baizerate asi,  
agur, agur denari  
eta ondo bizi!

*Diciembre, 1896*  
*Publicada en La Voz de Guipúzcoa y La Unión Vascongada,*  
*Enero 18, 1897*

## Gabon kantak

---

1  
Gabon etxeuari  
desio diyogu,  
borondatez kantura  
onera gatoz gu;  
mixeriya besterik  
gurekin ez degu,  
emen guretzat zerbait  
sortuko al zaigu.

2  
Martin Tipulas da au,  
bestia Garratza,  
irugarrena berriz  
Krakas gizon latza;  
guk nai genuke egiñ  
legorrez arrantza,  
gero pasa dezagun  
ederki arratsa.

3  
Zerbaiten usayian  
jira eta bira,  
gure ezurrak oraiñ  
nekatuak dira;  
laister gutzaz kupitzen  
emen ez badira,  
eramango gaituzte  
Miserikordira.

4  
Agur, etxeko denak,  
baguez emendik,  
ibildu bear asko  
daukagu oraindik;  
iñork galdetzen badu  
zer eman digunik,  
gutxi (asko) eman dutela  
esango diyot nik.

### Estribilloa

Zori onian sartu  
gerade onera,  
urtero bezelaxen  
gabon ematera,  
birez apariyentzat  
dirua biltzera;  
asko emanagatik  
konponduko gera.

*4 de Diciembre, 1896*

## Kontzezioko Amari

---

1  
Kontzeptzioko Ama  
Maria Birjiña,  
zeruko aingeru ta  
denen Erregiña,  
zuzenduten dezuna  
gure utsegiña,  
alaitu ere guk maiz  
senti degun miña,  
zerutik lagunduaz  
beti alegiña.

2  
Argi denen argiya  
zera zu, Maria,  
lore guztiyen lore  
parerik gabia;  
aiñgeru ta zeruko  
guztiyen Jabia,  
laguntzalle ona ta  
anparo guria,  
sube zatarra oiñpez  
bentzututzallia.

3  
Eguzki, illargi ta  
gañera izarrak  
diralarikan argi  
printzadun ederrak,  
zure onduan dira  
biziro zatarrak,  
bada moteltzen ditu  
aietxen indarrak  
zuk banatzen dituzun  
suzko dizdizarak.

4  
Mantxa kutsurik gabe  
garbiro aziya,  
tronuan zeruetan  
zaudena jarriya;  
izan ezazu gutzaz  
beti errukiya,  
zure mantupe ortan  
egizu tokiya,  
gero goza dezagun  
betiko Gloriya.

Unión Vascongada, 8 de Dic., 1896  
Pueblo Vasco, 8 Dic. 1918

## Villanciko-kantak Errenterirako egiñak

---

1

Abenduen ogei ta  
laugarren gabian,  
jaio da Jesus ona  
Belen portalian;  
Birjiña ta San Jose  
dauzka aldamenian,  
Berari kontu artzen  
txit zorionian.

2

Azaldu da mundura  
gu Salbatzallea,  
pake ta poztasuna  
ekarritzallea;  
fedea garbi ederra  
zabaldutzallea,  
pekatu txarra oiñpez  
bentzututzallea.

3

Aingeru bat agertu  
da Belen aldean.  
iskribu bat dubela  
esanaz aurrean;  
Gloriya zeruetan,  
pakea lurrean  
borondate oneko  
jendien artean.

4

Bizirotz pozez datoz  
ara artzai denak,  
utzirikan artalde,  
etxe eta lanak,  
egitera Jesusi  
pozezko omenak,  
ekarriaz gazta ta  
ardirik onenak.

5

Poza, dantza, soñua  
ta alegrentziya,  
oiu, oju, deadar  
eta irrintziya,  
bertaratzen da laister  
inguru guztiya;  
denak dute Jaun ona  
ikusteko antsiya.

6

Guk lenguaren gisa  
senti degu poza,  
ta Jesusen izenez  
bear degu goza;  
kanta zagun guztiyak,  
pozturik biyotza,  
mirariz betetako  
Jesusen jaiotza.

**Koroa**

Guazen guztiyak pozez  
Jesus ikustera,  
eta bere aurrean  
belaunikatzera.

Abenduan, 1896-an  
*Publicado en La Voz de Guipúzcoa.*

**Nere kuttuna**  
**Música de José Larruquet**  
**Orfeón Donostiarra-ri**

---

**Zortzikoa**

Aingeru eder zoragarriya,  
izarra bezin dizdizariya,  
barrenen daukat amoriyozko  
gar oso biziya,  
zuregatik txoratu naiz iya.

Gabaz eta egunaz  
zurekiñ pentsatzen,  
nere biyotz gaxua  
daukat nik penatzen.  
Ez bazerade laister  
zu nitzaz kupitzen,  
ikusiko nazu ni  
oso miñez jartzen;  
koloria galdu ta  
mamiyak medartzen,  
ezur utsaren<sup>1</sup> antza  
beriala artzen.

Maite nazula esan  
dirazu, ederra!  
Zuk paketu dirazu  
biyotzeko gerra;  
bi biyotz baturikan  
prest izango gera,  
zu nere emaztia,  
ni zure senarra!

Ilbeltzian, 1897-an

Publicada: *Euskal-Erria* 20 Abril 1900.

---

<sup>1</sup> *Esqueleto*. (Egillearen oarra).

**Arrantzale kupigarriyak**  
*Coro noruego y sueco*  
*Música de Eduard Griek*

---

**Koroa:**

Arrantzalien bizitza  
da txit penagarriya,  
aurtxoari ekarri nairik  
eguneko ogiya;  
kazkabar, aize, elur eta  
gañera tximisten argiya,  
biyotza penaturik,  
noiznai bustiya,  
sufritutzen du, bai, guztiya.

**Koroa:**

Aur gaxuaz itsasuan  
dute beti pentsatzen,  
aiengatik dira orla  
egunero penatzen;  
naiz nekatu bizirikan  
badira etxeratzen,  
naigabe ta pena denak  
zaiozkate aztutzen,  
aztutzen, aztutzen.

**Solua:**

Olatu txar aundi aiek  
ez dute ikaratzen,  
ontziya du seaskaren  
gisa urak ibiltzen;  
lasto baten moduan maiz  
bagak oi du mugitzen,  
Itziarko Ama onak  
diye goitik laguntzen.

*22 Enero 1897*  
*Cantada por la Sociedad Coral de*  
*S. S. en Bellas Artes.*  
*Publicada en La Unión Vascongada,*  
*el 11 de Junio de 1897*  
*En Ibaizabal, el 29 Marzo 1902*



## San Joserren zazpi gozoak

---

### Kantartea

Gure aita San Jose  
leial ta umilla,  
zuregana gatoz gu  
laguntzaren billa.

1  
Gozo ederra zan txit  
zuk izantakua,  
aingerutxoen bidez  
jakindutakua:  
Espiritu Santuak  
milagro sortua  
zala Birjiña Amak  
zeukarren frutua.

2  
Gozo pare gabia  
zenuben sentitzen,  
ikusirik artzaiak  
pozkidaz etortzen,  
erregearekin bat  
belaunikatutzen,  
eta Jesus maitia  
pozez adoratzen.

3  
Atsegin onez bete  
zitzaizun barrena,  
aditurikan Jesus  
ipintzen izena;  
mundu-Salbatzallea  
gugan zetorrena,  
zalako au zuk lenaz  
eman zenubena.

4  
Gozagarrizko poza  
nabaitu zenuben  
entzunik Simeonek  
nola esan zuben:  
señalia jarriya  
zegoala Jesusen,  
ipintzeko mundua  
berdiñ eta zuzen.

5

Gozo egiazkoak  
zinduben betetzen,  
ikusirikan Jesus  
Ejiptora sartzen,  
jainko gezurrezkuak  
zituztenak antxen  
lurrera erorita  
denak txirtxillatzen.

5

Poza senti zenuben  
zure barrenian,  
aingeruak berriya  
eman zizunian:  
irtetzeko Ejiptotik  
nai zenubenian,  
ta Galilean izan  
paketasunian.

7

Eziñ liteke bada  
iñola're esan  
zer atsegiñ gozoa  
zenuben zuk izan,  
arki zenubenian  
Semia elizan,  
erakusten denari  
maisú baten gisan.

*22 Febrero 97.*

*Publicada en la Euskal Erria el 20*

*Febrero 1897,*

*en la Unión Vascongada el 19 de*

*Marzo 98,*

*Pueblo Vasco 19 Marzo 1919.*

## On Ramon Gaitan Ayala-ri ongi etorriya

---

1

Utzirikanen koskak  
eta Donostiya,  
kanpoan egin dezu  
denbora aldiya;  
sekulan ez bezela  
zatoz egokiya,  
pozez egiten dizut  
ongi etorriya.

2

Estados Unidos-en  
dagon enbajadan,  
guregatican egin  
dezute naiko lan;  
*Xerriman* ta gosete  
asko nola dan an,  
eztakit nola bertan  
etzaituzten zu jan.

3

Aiek egin bazuten  
berak nai zutena,  
etzan sententzi txarra  
zuretzat zeguena.  
Nola zeran bapua,  
gañera gizona,  
golpian garbituko  
zinduten diena.

4

Ni beintzat pozen nago  
emen zaudenian  
osasun onarekin  
gure aldamenian.  
Emen bizi zaitia  
pozkida betian,  
zedorren emaztetxo  
onakin batian.

5

Zedorri nola zeran  
gizon txit eztiya,  
leial, noblea eta  
jakintsu aundiya,  
zure adiskide da  
Donosti guziya,  
eta dezu dena zuk  
ondo mereziya.

Martxoan 30an 1897.

Kuba zala-ta, Estadu Batuak eta  
Españia ikamikan asiak ziran garai  
artan. Kontuan artu bearrekoa da  
ori, bertso auek ulertuko badira.

## Jesus Gurutzetuari

---

O Jauna, gurutzean  
zaudena jarriya,  
esku ta oñak iltzez  
gogorki josiya;  
biyotzian daukazu  
llaga bat aundiya,  
iturri baten gisa  
oso irikiya,  
zeñetan ageri dan  
odol txit garbiya.  
Guregatican dezu  
sufritu guziya,  
Zugana biurtzen da  
gaur pekatariya,  
damuturik benetan  
lengo ibilliya.  
Barka gaitzazu oker  
egiñ dan guziya,  
izan ezazu gutzaz  
miserikordiya.

*Publicado en el Heraldo de San Sebastián el 18 de Abril 1897, y en el Euskalzale marzo 28 1899; Pueblo Vasco 15 Marzo 1913.*

## San Jose egunian Zarauzko Velasco-ri

---

1  
Jaiki naizenerako  
lenengo orduan,  
zure eguna dala  
jarri zait goguan.  
Bizi zaite pozkidaz  
luzaro munduan,  
zure puska Luisa  
naitien onduan.

2  
Iritxi da pozezko  
San Jose eguna,  
denak biotzetikan  
maitatzen deguna;  
nola benetan zeran  
zu gure laguna,  
desiatzen dizugu  
zuri gaur eguna  
igaro dezazula  
biziro leguna.

3  
Zori onian izan  
dedilla goiz fiña,  
zelebratu dezazun  
pozez alegiña;  
egñ amaiketako  
biziro berdiña,  
eranik (zure kontu)  
naiko txakoliña,  
tripa jarri artian  
mugitu eziña.

4  
Bazkari gomazkua  
luzatutzen dana,  
tira ta tira iñon  
bukatzen eztana;  
artu nai dan lekutik  
bear dezun dana,  
klaserikan onena  
plateretan jana,  
alaberian ere  
nai dezun erana.

5  
Gero bazkal onduan  
kafe ta ron fiña,  
ekin bildurrik gabe,  
egin alegiña;  
arrek kenduko dizu  
nunbaiteko miña,  
ondoren izango da  
(au gauza jakiña)  
dantzatu nai badezu  
naiko tanboliña.

6  
Emazte Luisari  
kiñu egiñikan,  
pozez egon zaitezte  
soñua aiturikan,  
gaztetan bezelaxe  
arrimaturikan,  
ezkon berri bezela  
ere oraindikan,  
beti orla izateko  
itza emanikan.

7

Arratsaldian aupa!  
A zer umoria!  
Milla duro jasota  
baña're obia.  
Azaldurik musuan  
suzko koloria,  
dirurizula uda  
berriko loria,  
egongo zera gizon  
oso dotoria.

8

Lagun artean pasa  
denbora eztiya,  
oparik gorputzari  
nai dezun guztiya;  
kunplitu zuk goguan  
dezun kutiziya,  
nai izan arrantxua  
oso garestiyan,  
libre da gaur jartzia  
barrendik bustiyan.

9

Gero *discursos buenas*  
*en francés y en vasco,*  
*musiu de bon cuadrille*  
*el gorputza se atascó.*  
*Italiano bon bin,*  
*franchute ere asko,*  
*a vous santé, mon ami,*  
*merci y eskerrik asko,*  
*mal de tripe, ji, ji, ¡ay*  
*plust! José Velasco.*

10

*En arratsa la zumit*  
*eses y balanzas,*  
*medio de plaza corres*  
*andas y te dantzas;*  
*toros bromas libersions,*  
*andar como artzas,*  
*luego toros retiras*  
*txintxo a sus casas,*  
*y con polaina y toros*  
*en cama descansas.*

16 Marzo 1897.

**Euskera**  
**(Música de José Larruker**  
**Coro para orfeón)**

---

**Koroa**

Zeñen ederra dan euskera,  
pare gabeko izkera,  
Jaunak goitikan bedeinkatua zu zera,  
zu maitatzez iñor aspertzen ez gera.

**Solo de barítono**

Tubal lur abetara  
zanian etorri,  
izkuntz gozo au zuben  
berekin ekarri;  
gure burutzat nola  
zuben berak jarri,  
maitatzen degu pozez  
izkera on ori.

Izkuntza gozo eta  
estimagarriya,  
euskaldun seme onak  
txit maitagarriya;  
zu zera gure biotz  
atsegingarriya,  
bizi bedi euskara  
ta Euskal Erriya!

**Denak**

Orain arte bezela  
garbi izan zaite,  
zu galdutzen bazera  
guretzat da kalte;  
beti izango zaitut  
biyotzetik maite,  
azkeneko arnasak  
guri iraun arte.

*2 Junio 1897.*

*Publicada en Euskalzale,*

*Julio 1899.*

*Id. en el Correo de Guipúzcoa,*

*9 Agosto 1900.*

*En la Euskal-Erria,*

*10 Agosto.*

## Itsas ibillera (Musika Etxeberriarena)

---

1  
Itsasuan gau erdiyan,  
bai gure ontziyan,  
gera arkitzen:  
illargi musu zabal ederrak  
goitik gaitubela argitzen,  
olatuak noizik beñ  
gaitu mugitzen.

2  
Munduko gauza guziyak,  
aundi ta txikiyak,  
dira ixiltzen;  
olatuaren mur-mur gozoak  
dira inguruan aditzen,  
ixiltasun, pakea  
dirala nabaitzen.

*Mayo 22, 97.  
Bellas Artes-en kantatua,  
kantari-taldeak, orfeoia.  
Publicado en La Unión,  
11 Junio 1897.*



## Bedeinkatua izan dedilla beti ta beti pakea

---

1  
Guda gaiztoak erru txarra du  
bere ondoren ekartzen,  
aserrea ta gorroto txarra  
diradelako elkartzen;  
negarra, pena ta naigabea  
du baztarretan zabaltzen,  
lenago ondo diran lekuak  
zapuzturik ditu galtzen,  
iñola ere gozakairikan  
nai arren ez da billatzen

2  
Gizonak zenbat sufritzen duben  
guda bat sortzen danian,  
bere etxe ta lur maitatuak  
laja bear diranian;  
samintasuna sartutzen baita  
biyotzaren barrenian,  
pentsaturikan, gizarajoak!,  
noiznai uste eztanian,  
beren biziya galduko dala  
usterik gutxiyenian.

3  
Pake santua. zu zera goitik  
bedeinkatutako itza,  
luza arazten dezu gizonen  
atsegiñezko bizitza;  
ondasun eta gozagai ona  
beti banatzen zabiltza,  
zu zera belar sendakariya,  
zu zera menda portitza,  
itz batian zu zera munduko  
ontasun guztiyen giltza.

4  
Pakerik gabe lur onak ere  
ez du izaten gozorik,  
erru txar guztiz kaltagarriyak  
beti dauka easorik,  
zañetatikan zumua janaz  
ez du lajatzten osorik.  
Pake ederra danian, berriz,  
lore guztiyak pozturik  
egoten dira Egilleari  
beren buruak jasorik.

5  
Bazter alaiak, lur loratuak,  
dira osoro ageri,  
eguzkiyaren dizdirazuak  
argi egiñaz berari;  
txori txikiyak adar puntetan  
beren izkuntzan kantari,  
errekatuak ura jarraitzen  
zuzen beren bideari,  
eta gizonak esker ematen  
biyotzez Egilleari.

6  
Zer atsegiña, zer poz bidea,  
zer paketasun gozua!  
Zer alaitasun pare gabea,  
zer izaera dontsua!  
Zer gozaera maitatiya ta  
zer izankai eztitsua!  
Au da biyotza lasaigarriya,  
on guztiyaren putzua!  
Au da pakea, mundu ontako  
zoriontasun osua!

7

Ontasunaren zumo gozoaz  
beterik zera arkitzen,  
eguzkiyaren errañu gisa  
dituzu lurrak argitzen;  
zoriontasun txit eztitsuak  
dituzu gugan banatzen,  
zure mesede pean guztiyak  
gozoro gera azitzen,  
eta gañera anaitasun ta  
maitasunian bizitzen.

8

Doatsua ta eztiya zera  
kutsu txarrikan gabea,  
atsegin, poza, alaitasun ta  
gozotasunez bete;  
guda zakarren malko zapiya,  
okerrak zuzentzallea,  
askatzen dezu katetasuna  
eta arindu nekea,  
bedeinkatua izan dedilla  
beti ta beti pakea.

*8 Junio 1897.*

*Oiartzunen saritua.*

*Publicado por el Consistorio de  
San Sebastián y Euskal Erria.*

## Pakea

---

1

Pake santua, zera  
lurreko gloriya,  
zorion zabaltzalle  
txit gustagarriya,  
asnase on emale  
atsegingarriya,  
baltsamo zumoduna  
biziro eztiya,  
erru txar ta gorroto  
dena kenlariya,  
poza ta gozotasun  
denen iturriya.

2

Pakea, bai, pakea  
bedeinkagarriya,  
zuk sosegatzen dezu  
barrengo larriya;  
menda belar gozua  
oso sendariya,  
negarra txukatzeke  
benazko zapiya,  
zuk oso ixten dezu  
gudaren zauriya,  
len naigabez dagona  
oso irikiya.

3

Zuk luza arazten dezu  
gizonen biziya,  
kendurik biyotzeko  
minbera guziya;  
zuk sendotutzen dezu  
lur, lore ta aziya,  
lenago erru txarrak  
makaltzen asiya;  
zuk askatutzen dezu  
kate txar loriya,  
zegoana naigabeaz  
gogorki josiya.

4

Zuk, gozatutzen dezu  
lur negargarriya,  
sendaturik gozoro  
bere alderdiya;  
zuk estalitzen dezu  
erdi ageriya,  
banaturik beragan  
estalki berriya;  
zuk tente jartzen dezu  
erdi eroriya,  
zera on ekartzalle  
goitik etorriya.

5

Lur, baratz, lore, zelai  
ta alderdi guziya  
ipintzen dezu oso  
ederki jantziya;  
zu zera anaitasun  
denaren kabiya,  
zu zera maitasunen  
lenengo arriya;  
zuk alaitutzen dezu  
bai nekazariya,  
zera doai dontsu txit  
estimagarriya.

6

Zu zera guda txarra  
bentzutulariya,  
zu zera argi denen  
pozezko argiya;  
zuk pozez jartzen dezu  
kanpo ta erriya,  
zuk zabaldutzen dezu  
lan ta irabaziya;  
zuk banatutzen dezu  
Jaunaren graziya.  
Bizi bedi pakea  
dontsu ta eztiya!

*12 Junio 1897.*

*Publicada en la Euskal Erria*

*10 Abril 99;*

*Eco de la Tarde, 14 Julio 1908;*

*Pueblo Vasco, 15 Noviembre 1919*

## Euskal Erria




Tu - bal au - rren eus - kal iz -



ke - ta min-tza - tu - tze - ra zan e - to -



rri; a - rrek zu-ben gu-re lu - rre-ra zo-ri-o-



ne-ra au e-ka - rri; ba - so, men-di ta ze-lai-



ta - ra da - ne - ta - ra poz - ga - rri, le - ge - tzat



zi - gun ark gu - ri ja - rri.

1  
Tubal aurren euskal izkera  
mintzatutzera  
zan etorri;  
arrek zuben gure lurrera  
zorionera  
au ekarri;  
baso, mendi ta zelaitara,  
danetara,  
pozgarri,  
legetzat zigun ark guri jarri

2  
Mendi tontor, basomortuan,  
artzai lekuan,  
bazterretan,  
etxol zarrak duben txokuan,  
arkaitz zuluana,  
ibaietan  
euskal izkera da goguan,  
ta barruan.  
danetan  
mintzatzen dira denak benetan.

3  
Itsas gizon txit maitatziyak,  
aundi txikiyak,  
itsasuan  
euskal mintza dira guziyak,  
ain egokiyak,  
bateltxuan;  
fede onarekin jantziyak,  
txit garbiyak  
barruan,  
gustora bizi dira munduan.

4  
Ama batek bere aurtxoa,  
bildotxatxoa,  
du maitatzen;  
sustraietik titi gozoa,  
zumo osoa,  
diyo ematen;  
euskal izkeran kantatxoa  
edertxoa  
du esaten,  
gerora berak jakin dezaten.

*Agoztuan 13an 1897an.  
Premiada en Aramayona en 1899.  
Publicada Euskal Erria 10 Agosto 900.  
En Euskalzale  
En la Unión Vascongada, 26 Julio 1900.*

## Nekazari euskalduna

### Airea: Uso txuria

---

- 1  
Argi ezkillak du jotzen,  
orduana dira jaikitzen;  
otoitz ederrak biyotzetikan  
dituzte gora eskeintzen;  
guziyak berialaxen  
dira lanetan asitzen.
- 2  
Zelai, baso ta sorua  
dute beren lan lekua;  
beti lanean igarotzen du  
udara eta negua;  
arturik otz ta berua  
landutzen bere txokua.
- 3  
Soro, zelaia, baratza,  
munttoia eta belartza  
gozatutzen du modu onian  
naiz egon lenago latza;  
kendurik daukan garratza  
jarten du lur aberatsa.
- 4  
Txoko ta baztar guziya  
txukunki dauka jarriya,  
zuzen ta garbi inguru dena  
edertasunez jantziya;  
isuririk izerdiya  
da beti nekazariya.
- 5  
Lanean beti denbora  
igarotzen du gustora;  
alegiñ dena beti du jartzen  
ain maite duben txokora,  
zelaira eta basora,  
mendira eta sorora.
- 6  
Txit asko dira nekatzen  
beren lurak maniatzen;  
izerdi asko gizarajoak  
nola duten ateratzen,  
pitarra dute eraten,  
egarriya ill dezaten.
- 7  
Euskaldun nekazariyak  
txit maite ditu iriyak;  
elkar lagunduz egiten dute  
lurretako lantegiyak,  
baztar legor ta bustiyak,  
modu onian guziyak.
- 8  
Egun guziyan nekatzen  
dira lanian aritzen;  
ezkill dorreko Anjelus ona  
dutenian aditutzen,  
buru utsik dira jartzen  
eta dute erregutzen.

9

Oso illuntzen danian  
gelditzen dira lanian;  
orduak denak beren etxera  
joaten dira zuzenian,  
oso umore onian,  
Jaungoikoaren legian.

10

Askotan pozen urrena  
naigabetzia barrena:  
uste gabian etorririkan  
denbora txar ta zekena,  
galtzen du oien lan dena,  
ustez seguru zutena.

*22 Agosto 97.*

*Publicado en Euskal Erria*

*30 Julio 99.*

*en El Correo de Guipúzcoa,*

*1º Agosto 1900*



**Arrantzale euskalduna**  
**Uso txuriyen doñuan**  
**Kaietano Sanchez Irureri donkitua**

---

1  
Oso goiz jaikitzen dira  
joateko beren ontzira,  
an sarturikan zar eta gazte  
azkar prestatzen baitira,  
joan ditezen urrutira,  
itsaso zabal erdira.

2  
Agur gozo bat egiñik  
irtetzen dira portutik,  
beren txapelak erantzi eta  
borondatez ziñaturik,  
biyotzak oso pozturik  
Jaungoikuaz oroiturik.

3  
Dijuaz arraunian,  
denak umore onian,  
euskal izkeran mintzaturikan  
ezti ta gozo birian;  
denak anaitasunian  
asitzen dira lanian.

4  
Kanpuan egun guztiya,  
noiznai osoro bustiya;  
bestian berriz kopetetikan  
dariyola izerdiya,  
sortu nayian ogi ya,  
bizi dedin familiya.

5  
Itsaso zabal artantxen  
dute eguna igarotzen;  
gizarajoak ordu luziak  
dituzte bada pasatzen,  
kantu gozoak pasatzen  
edo kontuak kontatzen.

6  
Aizea danian sortzen  
dira guztiyak larritzen;  
baga aundiyak ontziya oi du  
seasken gisa mugitzen;  
gogorikan gabe antxen  
dirade denak dantzatzen.

7  
Jiratzen dira kanpotik  
arraia arrapaturik,  
pozez beteak, zori onean,  
neke guztiyak azturik,  
beren biyotzen barrendik  
Jaunari esker emanik.

8  
Askotan oi da gertatzen  
ura dala asarratzen;  
orduan ontzi eta gizonak  
ditu kolpez purrakatzen,  
gizon oiek ditu artzen  
eta urpean tragatzen!

*Agosto, día 29, 1897,*  
*Publicado en La Unión Vascongada a 11 Mayo 1898.*

## Kontzezioko Amari

---

Kutsu txarrik gabeko  
Ama Mariya,  
zeruko tronuetan  
zaude jarriya,  
inozentziko mantu  
zuriz jantziya.  
Zu zera argi denen  
goizero argiya,  
parerikan gabeko  
dizdizariya.  
Zure bertutea da  
goitaltxatiya,  
zeralako Zu beti  
ain mirariya.  
Zu zera fedearen  
lenengo arriya,  
ispillutzat denari  
agergarriya.  
Zera sube zatarra  
bentzulariya,  
pekatua oinpean  
zanpalariya.  
Zu zera belar gozo  
sendakariya,  
zuk poztutzen dituzu  
aul ta eriya.

Zuk sendatutzen dezu  
gure zauriya,  
okertasunak oso  
len irikiya.  
Ni ere izanikan  
pekatariya,  
barrena arkitzen zait  
oso larriya.  
Argatik eskatzen det,  
damuz josiya,  
izan zazula nitzaz  
beti errukiya.  
Zu nola zeran gure  
munduko giya,  
Zedorrengana gera  
guztiyak fiya.  
Barka gaitzazu oker  
egiñ guziya!  
Bidez biyotzez degu  
gaur eskariya,  
osatu nai degula  
poz bat aundiya:  
mantupe ortan egin  
zazu tokiya,  
gero goza dezagun  
zure gloriya.

*Diciembre 97.*

*Publicada en La Unión 8 Diciembre  
y en la Euskal Erria el 10 Die. 1897.  
Pueblo Vasco, 8 Dicie. 1917.*

## Bizi bitez ama ta euskera Musika Garmendiarena

---

1  
Euskal Erri maiteko  
zumoa eranak,  
tristeturik arkitzen  
gerade gaur denak,  
ikusirik galdutzen  
lengo lege onak,  
guraso zarrak kontuz  
gorde zituztenak.

2  
Ama Euskara zan len  
eder ta loriya,  
naitasun ta pozian  
ondo ikusiya;  
bañan oraiñ arki da  
triste ta oriya,  
indarrik gabeko bat  
bezela eroriya.

3  
Etsaiak asirikan  
ondotik zulatzen,  
soin guztiyak dizkate  
oso minberatzen.  
Argatikan, gaxua!,  
asi da sufritzen,  
eta uste gabian  
mamiyak medartzen.

4  
Bañan seme leialak  
baldin bagera gu,  
bera sendotutzera  
prest joan bear degu;  
ez dezatela esan  
degula guk galdu,  
etzaiolako bear  
bezela lagundu.

5  
Guazen guztiyak, guazen,  
Ama laztantzera,  
lenago zegon bañon  
zutigo jartzera.  
Guazen gure odola  
pozez ematera,  
deituaz: Bizi bitez  
ama ta euskera!

*6 Enero 1898.*

*Publicada en Euskalzale,  
en El Correo de Guipúzcoa  
1º Setie. 1900;*

*en la Vasconia, Julio 1901,  
Pueblo Vasco, 13 Agosto 1917.*

## San Jose egunian Bautista Elbediñek bere ezagun batentzat

---

1  
Zure eguna da gaur,  
oso naiz poztutzen,  
luzaroko biziya  
dizut desiatzen;  
sekulan beziñ bapa  
zerade azaltzen,  
alaz guziyaz ere  
etzerade saltzen.

2  
Gu ere txit gordiñak  
gerade arkitzen,  
oraiñdik ondo gera  
lanketan moldatzen;  
gu kapaz ez giñala  
zenuben kontatzen,  
bañan gure lan onak  
ditugu agertzen,  
alaba ari gera  
ederki azitzen,  
laister asiko gera  
beste bat sortutzen

*Mau-mau*  
20 Marzo 1898.

## Aita Daniel Baertel-i Diesola

---

1  
Pozez beterik nago  
gaur ni zoro-zoro,  
maitasunak zentzua  
beterik osoro;  
ala desio dizut  
umill ta gozoro  
egun onak igaro-  
tutzea luzaro.

2  
Jaunaren lege santu  
ona goitituzten  
eliz ta konbentuan  
zera arituzten;  
zure euskal izkera  
ona adituzten,  
ez da euskal semerik  
iñoiz aspertuzten.

3  
Bizi bedi Jauna ta  
Beraren legia,  
bizi bedi kutsurik  
gabeko fedia,  
au bear degu denak  
iruki gordia.  
Non billatu au bañan  
sendakai obia?

4  
Zeru bide zuzena  
guri erakusten  
borondate osuan  
zerade aritzen;  
izerditan askotan  
zera zu jarritzen,  
asirik fede santu  
ederra altxatzen.

5  
Zure pare gabeko  
izkera gozua,  
garbi, alai, ederra  
eta erosua,  
barrendik darizula  
amodiyo sua,  
zureganatzen dezu  
euskaldun osua.

6  
Biyotzetik desio  
dizut ontasuna,  
atsegin, pozkida ta  
zoriontasuna;  
batez ere luzaro-  
rako osasuna,  
ta gero zeruetan  
ango poztasuna.

Zure zerbitzari: Pepe Artolak.  
Martxoan 28an 1898an.

## San Pelaio Zarautzen

---

1

Beti da San Pelaio  
Zarauzko eguna,  
biyotz-biyotzetikan  
desio deguna;  
igaro bear degu  
al bada leguna,  
Jaunari eskatuaz  
aurren osasuna,  
zeña dan guztiyari  
komeni zaiguna.

2

Goizetik asten dira  
soñuak kalian,  
esnatuz lo daudenak  
artian oyian;  
gero kanpai soñuak  
egoki aidian,  
ziri-suzko tipulak  
guztiyak batian,  
jendia jarri dedin  
pozakida betian.

3

Inguruko erri ta  
baserriyatetik  
jendia Zarautzara  
sortzen da gogotik;  
erriko ta kanpoko  
guztiyak baturik,  
anaitasun ta pozez  
biyotzak beterik,  
Iñurritzara joaten  
dirade Zarautzik.

4

Elizatzko ederra  
San Pelaiokua,  
meza nagusiyan da  
au ikustekua:  
joaten da Zarautzitan  
aiuntamentua,  
izaten da orkesta  
eder ta kantua,  
ta sermoi euskerazko  
egiyetakua.

5

Meza nagusi ona  
danian bukatzen,  
eliz ataian dira  
guztiyak batutzen;  
andik prozesiyuan  
dirade irtetzen,  
musikak aurretikan  
diyela laguntzen,  
modu ontara dira  
errira etortzen.

6

Iñurritzak dadukan  
zelai ederrian  
festak egiten dira  
bai arratsaldian:  
dantzasoka ederrak  
oitura zarrian,  
tanboliñ ta musika  
jotzen geienian,  
zar ta gazte guziyak  
umore onian.

7

Alde guzietatik  
zelai ederrera  
etortzen da jendia  
bertan jolastera;  
bestiak berriz gogoz  
merendatuzera:  
orla gozaturikan  
illunabarrera,  
denak pozez etortzen  
dira Zarautzara.

8

Gabian plazan oi da  
suzko festa egin,  
txandatuaz erriko  
soñulariyakín;  
batzubek dantzan eta  
bestiak far egin,  
algara, kanta, poza  
ta naiko atsegin,  
ondo konpontzen dira  
denak elkarrekin.

*24 Junio de 1898.*

*Publicada: Euskal Erria,*

*20 Julio 1899.*

## Nere maitea

---

1

Atsegiñezko gozotasuna  
sentitzen det barrenian,  
nere aurrian, izar ona,  
ikusten zaitutanean.  
Amoriyozko begiratu bat  
egiten dirazunian,  
nere biyotza jartzen dezu  
betiko zori onian.

2

Atzo ikusi ez zindutan,  
penetan negon jarriya;  
miñez zeundela pentsaturik,  
tristetu nitzan guziya.  
Zori onian azaldu zera,  
izartxo dizdizariya;  
zu zera poza ekartzalle,  
aingeru zoragarriya.

Octubre 1898.

*Música de Mendelsson,  
coro a voces.*

*Publicada en La Unión,  
10 Dicie. 1900*

## D<sup>a</sup>. Anselma Amiel-koari

---

Biyotz onekua da,  
pozez det aitortzen;  
pobriaren malkoak  
dakizki legortzen,  
karidade egiten  
ez baita aspertzen.  
Orrela mundu ontan  
diranak portatzen,  
zeru ederra dute  
gero irabazten.

1898-an.



## Tolosari

---

1  
Euskera zabaldu nai  
genduke aurrera,  
argatik borondatez  
gatoz gu onera.  
Ontzat artzen badute  
gure etorrera,  
urrena ere pozez  
etorriko gera.

2  
Erri au izandu da  
beti txit noblia,  
euskararen kabiya  
parerik gabia.  
Kondaira ona dauka  
lendikan gordia.  
Bizi bedi Tolosa  
ta bere jendia!

3  
Desiatzen diyotet  
emen daudenari  
oparotasunezko  
gozoak ugari.  
Bidez egiten diyet  
erregu denari  
saiatzeko indartzen  
euskal izkerari.

*17 Marzo 99.*  
*Publicada en La Euskal-Erria,*  
*30 Mayo 99*

## On Jose Rodoreda jaunari bere egunian

---

Nola dan gaur San Jose,  
zedorren eguna,  
igaro dezazula  
nai degu leguna;  
fedez opa dizugu  
zuri ondasuna,  
pakia, umoria  
ta gozotasuna,  
biyotzaren erdiko

naiko poztasuna,  
zori ona, pozkida  
ta alaitasuna,  
eta urte askuan  
ere osasuna.  
Borondate guziyan,  
gure maisu ona,  
au da kontrabajuak  
desio deguna.

*17 Marzo 99.*

## Pepe Ayesta-ri

---

Zure eguna gaur iritxi da,  
nere lagun zar maitia,  
orreatan diesoltzeko  
daukat nik borondatia.  
Nai nuke Jaunak osasun ona,  
Pepe, zuri ematia,  
biyotz barrengo lasaitasuna

gozotasunez betia.  
Zori onian beti ta beti  
desio det egotia,  
zuzen bidean aurrera ere  
nai det beti izatia,  
eta *abuelita* maitiarekin  
luzaro bizi zaitia.

*17 Marzo 99.*

## Konsuelito!

---

1  
Josetxo ta Nikolas,  
zaudeten lekutik  
arreba bat bigaltzen  
dezute zerutik,  
zubek bezela emen  
maitatziagatik  
aitatxo ta amatxok  
biyotz-biyotzetik.

2  
Konsuelito, zu emen  
zauden ezkeroztik,  
maitasuna besterik  
eztegu geroztik;  
zuri laztan gozoak  
emanik gogotik,  
pozez anaiak daude  
begira goi-goitik.

3  
Izan zaite aita ta  
amaren argiya,  
izartxo eder goitik  
onuntz etorriya;  
Konsuelito izena  
daukazu jarriya,  
zeralako munduko  
kontsolagarriya.

1899

Música de D. Cándido de Soraluze.

## Iñaziri bere egunian

---

1  
Gaur da zure eguna,  
Inazi maitia,  
nai dizut egun onak  
bertsoz ematia;  
desiatutzen dizut  
ondo izatia,  
gozotasunaz eta  
pozkidaz betia;  
osasun onarekin  
bizitu zaitia.

2  
Desio dizut poza  
umoriarekiñ,  
eta gañera beste  
nai dezunarekiñ;  
izan zaite pakea  
ontasunarekiñ,  
alaitasun eder ta  
osasunarekiñ;  
gau zuri au det naia  
borondatiakiñ.

3  
Nola maite zaitutan  
txit indar aundiyan,  
beti zaude jarriya  
nere memoriyan;  
amoriyua berriz  
det biyotz erdiyan,  
ezin esan liteken  
añako neurriyan,  
artuko zinduket nik  
besuen erdiyan!

4  
Nola azaldutzen da  
udaran jardiña,  
zeñetan ikusten dan  
aleli, jazmiña,  
bioleta, arrosa  
eta klabeliña?  
Bada izanikan zu  
ain loretxo fiña.  
zera baratz guztiko  
denen erregiña.

5  
Zure ondora pozez  
naizenian biltzen,  
atsegiñez beterik  
naiz beti ibiltzen;  
nere biyotzan poza  
oso det sentitzen,  
ta kontu potxoluak  
astian kontatzen,  
nere izar ederra,  
nazu ni txorutzen!

6  
Aingeru zoragarri,  
izar printzaduna,  
nere biyotz barrengo  
maitetxo kutuna,  
liraña, polit, fiña,  
arpegiz leguna,  
laister etorriko da  
guretzat eguna,  
elkar txit maitatuaz  
izango deguna.

Nikolas Martinez, bere andregaiari. 30 Julio 99.

## Jose txo!

### Ill zan maiatzeko 27, 1897-an

---

1  
Semetxo on bat nuben  
mundu onetan nik,  
eta beñere ez nuben  
bera gabeko onik;  
beti bere onduan  
gustora egonik,  
bere begiyetatik  
zumoa eranik,  
lanera joaten nintzan  
laztan bat emanik.

2  
Ain zinan ona eta  
ain aur maitatiya,  
ain doatsu, ederra ta  
ain zoragarriya,  
zenidurizun egan  
goitik etorriya,  
bada ikusirikan  
zu ain egokiya,  
zedorregana negon  
zorutzen jarriya.

3  
Kanpotikan etxera  
nitzanian sartzen,  
zuzenian nigana  
baizinan etortzen,  
orduano besoetan  
zindutan nik artzen,  
eta egonik zuri  
begira zorutzen,  
biyotzakin zindutan  
benetan laztantzen.

4  
Nere belaun gañean  
gustora jarrita,  
egoten zinan pozez  
beti exerita.  
Zuk goxatzen ninduzun,  
nik zu ere baita!  
Ta nola ez, Jose txo,  
barrendikan maita,  
asitzen zinanian:  
«Aita... aita... aita!».

5  
Zure pentsamentua  
daukat nik goguan,  
sendo eatsirikan  
nabillen lekuan;  
zure oroitza berriz  
det erretratuan,  
txintxilik ipiniya  
oiaren onduan,  
begira dezaizutan  
esnatutakuan.

6  
Arrebaren artean  
zu seme bakarra,  
zinan urte beteko  
maitetxo izarra!  
Jaunak egiñik goitik  
zuri deadarra,  
ta bere agintea  
nola dan bearra,  
joan zinan utzirikan  
barrengo negarra.

7

Patzientziya artu-  
ko degu munduan,  
zutzaz pentsaturikan  
al degun moduan;  
poz bat gelditzen zaigu  
denari barruan:  
dakigula zaudela  
leku seguruan,  
beste aingeruakin  
batian zeruan.

8

Zeruan esan zaiza  
aingerutxoari,  
or zurekin batian  
arki diranari,  
eska dezaiotela  
guziyak Jaunari  
lagundu dezaigula  
emen geranari,  
zure aita, ama ta  
iru arrebari.

*Mayo 1897.*

*Publicada en La Voz de Guipúzcoa,*

*Mayo de 1897.*

*Publicada en la Euskal Erria,*

*20 Febrero 1901.*

## Ama eta semetxoa

---

Nere aingeru zoragarriya,  
nere maitetxo laztana,  
par irri oiek egiñ zaizkitzu  
zoratu dediyen ama.  
Zori onian sortu zinduben  
Jaungoiko onak nigana,  
alaituzera nere barrena  
len penatua zegoana;  
otoitz erregu denak ordaintzat  
eskeintzen ditut Argana,  
nere biyotzen erditik dira,  
ontzat artu bitza, Jauna.  
Zu zera lore guziyen lore  
ederragorik eztana,  
zeruko izar printza urrezkoz  
orniturikan zaudena.  
Zu zera argi dizdizariya  
berdiñikan eztubena,  
zu zera nere atsegingarri  
ontasunen eskumena.  
Nik zuregatik egiñgo nuke  
esan ezin litekena,  
zuregatikan emango nuke  
nere odol tanto dena;  
zu zera nere poz emalia  
magalian zaukatana;  
esan zaidazu, nere Josetxo,  
esan nai zendukeana;  
ni naiz amatxo, zure itz ona  
entzuteko zai nagoena!  
Ez al dirazu antzik ematen,  
aingerurik ederrena,

zerala nere erraietako  
puskarikan maitiena?  
Ez al dakizu zuri begira  
eziñ aspertuz dagoena,  
dala zuretzat mundu ontako  
senda belarrik onena?  
Ez dezu igartzen ezti guriya,  
bularrikan gozuen, a,  
dana nik zuri amoriyuaz  
gaur ematen dizutana?  
Ez dezu igartzen barrenen poza,  
jostatzen dabilkitana,  
zuretzat dala, ala berian  
arnas ere daukatana?  
Iripartxo bat len bezelaxe  
egin zazu amagana,  
inozentziko begiratua  
egiñik, nere otxana!  
Masail potxolo marrubiaren  
antzeko koloreduna,  
eziñ esan dan ainbatekua  
guriya eta leguna,  
zu zera nere laztangarriya  
argi bide ta laguna;  
zu maitatutzez asper eziñik  
igarotzen det eguna,  
zu zera nere alegrantziya,  
zu pozez jartzen nazuna,  
zu zera nere penak kentzalle,  
zu nere gozotasuna,  
zu zera bizi luzagarriya,  
zu bai, maitetxo kuttuna,

zu zera biyotz piztugarriya  
tristura kentzen dezuna,  
dontsu neria, zu zera emengo  
nere aberastasuna,  
zu zera nere amoriyua  
indartutzen dirazuna,  
zu zera nere gozakariya,  
zu bai nere osasuna,  
itz batian, zu zera osoro  
zoraturik naukazuna.  
Zer: parrez zaude? Ori ederki!  
Esan zazu, bildotx ona,  
zure abotik aspaldi ontan  
entzuteko zai nagona;  
ea, Josetxo, esan aguro  
miñgaiñ punttan daukazuna,  
nere biyotzan sartu dediyen  
betiko zorotasuna,  
kopetatxoan musu gozo bat  
ematen dizut, tori: *ma...a*,  
eta aurtxuak euskal izkeran  
diyo lenbiziko: *Am...a*.

\* \* \*

Zer da, Josetxo? Esan: zer dezu?  
Zerk zaitu orla tristetzen?  
Len bezelako alaitasunaz  
ez dirazu begiratzen;  
zure begiyan lanbrotasuna  
bezela zaizu azaltzen,  
izerdi otza kopetaxora  
ari zazu ateratzen,  
mami guriyak badirudite  
asi dirala maskaltzen,  
a, Jesus ona, nere aurrari  
zerbait txar zaió gertatzen!  
Zer dezu, bada zoragarriya?

Nondikan dezu sentitzen?  
Ez nazazula naigabiakin  
jarri barrena zulatzen!  
Non dezu *pu-pu*, izar neria?  
Esan zaidazu oraintxen.  
Ez dezu ikusten zure amatxo  
nola daguan ementxen?  
Ez negar egiñ orrela, bada;  
alaitu berialaxen!  
Titi gozoa emango dizut,  
aingeru ona, zurixen!  
Ez al dirazu antzik ematen  
nolatan nagon sufritzen,  
len bezelako par irriarik  
ez detalako entzuten?  
Ez dezu ikusten biyotza penaz  
beterik zaitala jartzen,  
ta naigabiak gero ta indar  
geiago dubela artzen?  
Nolatan zaizu zuri arnasa  
len bañan geigo estutzen?  
Zeregatikan etzera bada  
len len bezela poztutzen?  
Zerk malko miñak begiyetatik  
dizkizu ixuri-azten?  
Zergatik bular gozo ederra  
nai ezikan dezu uzten?  
Arantzazuko Ama maitea,  
zuri dizut erregutzen,  
biyotz-biyotzez zure laguntza  
mesedez dizut eskatzen,  
ea zerutik zure grazi bat  
onera dezun bigaltzen,  
nere aingeru kottaru auxen  
ote dirazun sendatzen,  
arren da arren naigabe denak  
oni diyozkatzun kentzen,



eta lenago zan bezelako  
poztasunera biurtzen.

\* \* \*

*Ama* diyozu? Ori ederki!  
Esan berriro orlaxen!  
Zure itz gozo paregabia  
entzutez ez naiz aspertzen.  
Zer: oraiñ farraz alaiturikan  
dirazu *ama* esaten?  
Berriz ta berriz esan, Josetxo,  
obeto entzun dezaten;  
nere barrendik naigabe denak  
asi dirade aldentzen,  
ez dakit poza geiegirekin  
nola ez naizen txoratzen.  
Au gozotasun pare gabia  
detan barrenen nabaitzen!  
Biyotz eriya lertu naiean

len zitzaitana arkitzen,  
zori onaren indarrarekin  
asi zait oso lasaitzen.  
Nolatan ez naiz poztuko, aurra  
ikusirikan argitzen,  
izerdi eta lanbro linguak  
ari bazaizka aldentzen?  
Nolatan ez naiz ni *babatuko*  
neronek badet ikusten  
nola dabillen sendaturikan  
magalatxoan jostatzen?  
«Ama, titia!... Ama, titia!»  
pozez dirazu eskatzen.  
Tori, maitia, tori, maitia,  
auxen nuben desiatzen.  
Birjiña Ama, otoitz guziyak  
zugana ditut eskeintzen,  
zeruetatik dakizulako  
lurrekoari laguntzen.

31 Julio 1899.

*Premiada en Zumarraga con 25 pesetas y diploma y publicada por el  
Consistorio de Juegos Florales.*

*Publicada: Euskal Erria,  
20 Septe. 1899.*

## Donostiyari

---

Zeñen ederra agertzen zeran,  
Donostiyako uriya!  
Badirurizu ego zabalik  
dagon egazti txuriya.  
Kantabriyako itsas ertzean  
Jaunak goitikan jarriya;  
pare gabeko lore ederra,  
usaidun eta guriya,  
zori oneko erri maitea,  
gutziz osasungarriya,  
Euskal Erriko seme guztien  
naitasunezko kabiya;  
zu musutzera etorritzen da  
Españiyaren erdiya,  
zeradelako oso ernaiia  
eta biziro garbiya.  
Zure Kontxa da erru ta ajiak  
garbitutzeko ontziya;  
zu zera mintsu askorentzako  
menda belar sendariya,  
zuk alaitutzen dezu osoro  
onuntz datorren eriya,  
zuk altxatutzen dezu lenago  
dana erdi eroriya;  
zuk pozkidatzen dezu badago  
penatua ta oriya,  
zuk banatutzen dezun arnasa  
da barren poztugarriya,  
atzerritarren poz emalle ta  
leku atsegiñgarriya.

\* \* \*

Urte batzuben buruan gaur det  
zu ikusteko graziya,

erbestetikan jiratu naiz ni  
laztandutzera erriya;  
joan nintzarian utzi zindutan  
beltzarana ta txikiya,  
muru tzar aundi batzuben barru  
arrote ta itsusiya,  
kizkurturikan nola egoten dan  
txori txiki bildurriya.  
Bañan gaur, o Jaun Goienekua,  
zerk alaitzen dit biziya?  
Zerk pozkidatzen, zerk gozatutzen,  
zerk ematen dit antsiya?  
Zu ikusiyak sortu dit neri  
barrenen alegrantziya.  
Lengo antzikan ez dezu bada,  
osoro zaude aziya:  
zerenez dezu, bai, beste askok  
ez bezelako graziya,  
gorputzez zera oso edertu  
eta gaur zaude aundiya,  
liraiñ, ederra, polita guztiz,  
batez ere egokiya.  
Zuri begira asper eziñik  
malkotutzen zait begiya;  
ikusten nagon egin guziya  
eziñ sinistu det iya,  
bazter, inguru ta txoko dena  
daukazu apaiñ jantziya.

\* \* \*

Zure etxeak dira galaiak,  
ederrak loretokiyak,  
kale zabalak eta zuzenak  
ariz berdiñ ipiñiyak,

arri-uztaidun plaza ederrak  
oso begiragarriyak,  
pauso lekuak patxadakuak,  
aundiyak arboldegiyak,  
modu berian gusto aundiko  
eser leku, iturriyak,  
ori guztiya koroitutzen du  
eliza berri zutiyak,  
Jende noblea, euskal semea,  
pake santuan aziya,  
bear bezela fedetasunan  
lege onak ikasiya,  
eta mundua mundu danetik  
jostallu ta festariya;  
argatik onuntz etorritzen da  
lasai kanpotar guziya,

dakiyelako izango dala  
emen ondo ikusiya.  
Onera pozez urtero dator  
erregiña maitatiya,  
pare gabeko ama leiala,  
eta bere familiya,  
zeñi erriyak egiten diyon  
pozez ongi etorriya.  
Au da lekurik paketsuena,  
ontasunen iturriya,  
anaitasunen katetasuna  
sendoa eta loriya,  
donsu, liraiña, polita, fiña.  
gozoa eta eztiya,  
bedeinkatua izan dedilla  
beti, beti... Donostiya!

*Julio 1899.*

*Euskal Erria, 1899.*

*La Voz, 2 de Octubre, 1899.*

*Pueblo Vasco, 9 Junio 1907.*

*Vasconia, 30 Julio 1908.*

*Pueblo Vasco, 9 Junio 1908.*

*Pueblo Vasco, 3 Junio 1916.*

## Ama falta!

---

1

Ai au bakardadea!  
Au samintasuna!  
Zerk bururatutzen dit  
gaur zorotasuna?  
Barrenen igartzen det  
eroritasuna,  
naigabia, larriya  
ta eritasuna,  
itz batian, laburtzen  
nere osasuna.

2

Ama bat nuben eta  
orain batere ez,  
nere begiyak malkoz  
estaliyak daudez.  
Biyotza ere daukat  
beteta naigabez,  
eziñ sosegaturik  
biziरो negarrez,  
urratzeko zoriyan  
penaren indarrez!

3

Arkitzen naiz tristura  
ikaragarriyan,  
benetako pena ta  
estura larriyan,  
nere pentsamentura  
dakartan guziyan;  
egun bat onik ez det,  
nago aspaldiyan  
penaren nekeakin  
lertzeko zoriyan.

4

Lorientzat udaran  
nola da aizia,  
orri tartean ariñ  
jostatzen pasia?  
Ala zan neretzako  
zure asnasia;  
arrek jarritzen ziran  
barrena asia,  
kendurikan baneukan  
iñoiz oñazia!

5

Zu ziñan, ama, nere  
belar sendariya,  
gordelari ona ta  
zuzen gidariya;  
zu gabe naizenetik  
senti det larriya,  
eta nere biyotzak  
daukan egarriya  
eziñ esan liteken  
aiñbat da aundiya.

6

Nola ez naiz egongo  
barrendikan miñez,  
biyotza arki bazait  
beterik samiñez,  
odol ta amoriyo  
denak irakiñez,  
dardarazun geiago  
sufritu eziñez?  
Penak zoratuko nau,  
esaten det ziñez!

7

Jaunak deiturik goitik  
bere ingurura,  
mereziya zenuben  
betiko lekura,  
aiñgeruakin igo  
ziñaden zerura!  
Naigabe denak nigan  
dira gaur ingura!  
Ama maitea gabe,  
auxen da tristura!

8

Zeñen goxoro beti  
ninduzun maitatzen,  
ni zoriontzen iñoiz  
etziñan aspertzen;  
eziñ esan dan ainbat  
ninduzun laztantzen,  
ni ondo ikusirik  
ziñan pozkidatzen,  
eta kopetatxoan  
ninduzun musutzen!

9

Gozotasun iturri  
parerik eztana,  
pozez inguratutzen  
nitzan zuregana;  
elkarri egiñikan  
begiratu bana,  
zuk esaten zeniran  
gozoro: «Laztana!».  
Ta nik abo betian  
biyotzetik: «Ama!».

10

Ama, bai, ama, itzik  
onena munduan,  
beñere aztu gabe  
dabilkit goguan.  
nere erraietako  
naitasun senduan,  
egunaz eta gabaz  
nabillan lekuan,  
loriak usai ona  
dabilkiñ moduan!

11

Etzait neri aztuko  
sekuletan, ama,  
zure azken musua  
eman zenirana,  
laztandu ta esanaz:  
«Tori,... seme... ona!».  
Ori da oroikarri  
beti daukatana,  
biyotzian piztua  
darabilkitana.

12

O zenbat aldiz gora  
begiratzen detan  
ote zeran ageri  
izar tarte ortan!  
Orduak igarotzen  
ditut nik frankotan,  
bañan alaz guziyaz  
egon arren ontan,  
begiyak jartzen zaizkit  
negarrez malkotan.

13

Amoriyo gozoaz  
oso beterikan,  
otoitzak maiz egiten  
ditut emendikan,  
eskeñiyaz zuretzat  
biyotz erditikan,  
Jaunari grazi on bat  
or eskaturikan:  
arren!, lagun zaidazu  
beti zerutikan.

14

O Jauna, zaudezena  
zeruko tronuan,  
dituzula aingeru  
pillak inguruan,  
illtzen naizenerako  
ar nazu goguan,  
lekutxo bat or egiñ  
zaidazu zeruan,  
izan nediyeen nere  
amaren onduan.

*Agosto 1899.*

*Lema: Ill arte euskaldun.*

*Composición premiada en Zumaya con 80 pesetas y diploma en Agosto de 1900 y publicada por el Consistorio de Juegos Florales de San Sebastián.*

*Publicada por el Consistorio; en la Euskal Erria; en el Euskalduna de Bilbao 14 Octubre 1900; La Vasconia, 1901; Pueblo Vasco, 17 Dicie. 1900.*

Eta onen antzeko beste bertso-sail bat 75 orrialdean du irakurleak.

## Erregeak

---

1  
Iru Errege onak  
Belen portalera  
Orientetik datoz  
Jesus ikustera;  
intzentsu, urre, mirra  
Ari eskeintzera,  
eta pozaren pozaz  
belaunikatzera.

2  
Izartxo bat dutela  
giyari aurretik,  
amairu egunian  
datoz txit pozturik;  
eta Belenen Aurtxo  
Jauna ikusirik,  
gelditu dira bertan  
belaunikaturik.

3  
Biyotzez egiñ dute  
pozezko omena,  
eskeñirik zekarten  
gauzarik onena,  
esanaz: «Zerutikan  
onuntz datorrena  
da Jauna ta Errege  
errege danena».

*20 Die. 99.*  
*Euskal-Erria, 30 Die. 99.*  
*Correo de Guipúzcoa, 8 Enero 900.*  
*Ibaizabal, 4 Enero 1903.*  
*Pueblo Vasco, 6 Enero 1913, día de*  
*Reyes.*

1  
Zeñen uso ederra  
zeraden agertzen!  
Zure diña beste bat  
ezta alderatzen;  
dituzunian zure  
egvak zabaltzen,  
zuri begira pozez  
dira denak jartzen.

2  
Itsas ertzean zaude  
txit kontuz jarrita,  
dirurizu zaudela  
urak ekarrita;  
erri bat berritotik  
egiten asita,  
ez luteke egingo  
zu beziñ polita.

3  
Erbestekuarentzat  
zera maitatiya,  
euskaldunentzat berriz  
pozezko kabiya;  
zuzena ta tentia,  
txukun ta garbiya,  
bedinkatua izan  
bedi Donostiya.

1  
*¡Que hermosa paloma  
tú apareces!  
No llega nadie a ti  
para igualarte;  
en cuanto tus alas  
desplegar sueles,  
mirando a ti de gozo  
todos se ponen.*

2  
*Estás juntito al mar  
puesta con cuidado,  
parece que ahí estás  
por el agua traído;  
empezando a construir  
un pueblo de nuevo,  
no harán tan bonito  
como tú, de seguro.*

3  
*Para los de fuera  
eres cariñosa,  
nido de consuelo  
para los de Euskaria;  
recta, altiva, alerta,  
limpia y muy curiosa,  
San Sebastián siempre,  
sí, bendita sea.*

24 Die. 1899.  
Euskal Erria, 10 Abril 1900.  
En La Voz, 27 Mayo 1900.  
Pueblo Vasco, 20 Enero 1913.



## Gurutze Santu Lezokoari kantona edo himnua

---

**Koroa edo kantartea**  
Guazen guztiyak, guazen  
Kristo Lezokora,  
bere aurrean pozez  
belaunikatzera.

1  
Gurutze santu Lezokoa da  
antziñatik mirariya,  
beartsuari laguntzen daki  
fedez badu eskariya;  
bere oñetan alaitutzen da  
askotan pekatariya,  
arrantzale ta nekazariyen  
maisu eta gidariya

2  
Estuasun denetan  
da zure bearra,  
Zuri egiten zaizu  
pozez deadarra;  
Zuk dakizu txukatzen  
barrengo negarra,  
ta biyotzera sortzen  
fedezko indarra.

3  
Zure mesede aundiyak guban  
dituzu beti banatzen,  
zeradelako gurutzetikan  
pekatariyaz kupitzen;  
argatik fedez euskaldun denok  
Zuregana gera biltzen,  
eta zaitugu pozarez pozaz  
biyotzetikan maitatzen.

4  
Zuregana biltzen da  
mintsu ta eriya,  
aberats, pobre, gizon,  
aundi ta txikiya;  
orain arte bezela,  
Kristo maitatiya,  
izan ezazu gutzaz  
beti errukiya.

21 Die. 1899.

*Música de Ignacio Fernández de Elizgaray. Premiada en Vitoria.*

*Publicada en libros de música.*

*Publicada: Euskal Erria; La Voz; El Correo; La Unión; La Constancia el  
8 Abril 1900; en el Euskalduna de Bilbao 1900; en música en la*

*Euskal Erria 1900.*

# Gurutze Santu Lezoko-ari

J. ARTOLA - REN BERSUAK.

I. F. ELEIZGARAY - EN MUSIKA.








Marzial.



Gua.zenguzti.yok gua.zen Kris.to Le.zo.ko.ra gua.zenguzzen  
 Gua.zenguzti.yok gua.zen Kris.to Le.zo.ko.ra be.re aurre.an po.zez  
 be.lau.ni.ka.tze.ra be.re aurre.an po.zez be.lau.ni.ka.tze.  
 ra gua.zen gua.zen gua.zen gua.zen guz.tiyok guz.tiyokgua.zen  
 Gua.zen guz.ti.yok gua.zen gua.zenKris.to Le.zo.ko.ra be.re au.  
 rre.an be.re aurre.an po.zez be.lau.ni.ka.tze.ra gua.zen Gua.zen guz.tiyok  
 gua.zen gua.zenKris.to Le.zo.ko.ra be.re aurre.an be.re au.  
 rre.an be.re aurre.an po.zez be.lau.ni.ka.tze.ra gua.zen gua  
 zen Kris.to Le.zo.ko.ra gua.zen gua.zen Kris.to Le.zo.ko.  
 ra gua.zen gua.zenguztiokgua.zen gua.zen po.zez be.re aurre.an po.zez be

J. ERVITI, Editor. SAN SEBASTIAN.

Kanta onen doiñua, *Euskal-Erria* aldizkariak dakarrenez.

1<sup>o</sup> ESTROFA.2<sup>o</sup> ESTROFA.

Kanta onen doiñua, *Euskal-Erria* aldizkariak dakarrenez.

## Rosendori

---

1  
Sendaketan iaiua  
zera egiyetan,  
aitortutzen zaituzte  
alde guztiyetan;  
batez ere dakizu  
ondo agiñetan;  
urrutira joan gabe  
bada atzo bertan  
prestu moldatu zera  
Ategorriyetan.

2  
Damatxo polita zan,  
gazte ta liraña,  
eziñ sufritu zuben  
ark aboko miña:  
zu eraman zinduten  
aruntz sendakiña,  
eta nola dezun zuk  
ain eskutxo fiña,  
*klak!* kolpian atera  
zeniyon agiña.

3  
Gogoratzen al zera  
beñ zuk *Andoain*-i  
zer lan egiñ zeniyon,  
antxen negoala ni?  
Bere onduan iya  
etziñan ageri,  
bañan joan ta eldurik  
beriala ari,  
segiruan poz eman  
zeniyon berari.

4  
Eritegiyan beti  
mintsuak sendatzen  
borondate osuan  
zerade aritzen;  
denak zure laguntza  
baidute eskatzen,  
eta nola iñori  
ez dezun ukatzen,  
beragatik guziyak  
zaituzte maitatzen.

5  
Erriyan ta kanpuan  
ezaguna zera,  
al badezu joan gabe  
gelditzen etzera;  
borondatez noranai  
zuaz laguntzera,  
danik gaitzik zallena  
ere sendatzera,  
gelditu gabetanik  
bildurraz atzera.

6  
Ezur konpontzen zera  
biziro abilla,  
asko datoz zedorren  
laguntzaren billa;  
beti far arpegiya,  
jenioz umilla,  
alaitutzen dezu naiz  
egon erdi illa,  
zu zera, zu, Rosendo,  
orlako mutilla.

7

Edozer gaitz sendatzen  
badezu graziya,  
ezagun da zaudela  
ondo ikasiya;  
alde denetan zaude  
ondo ikusiya,  
*mutilla* zera... bañan  
txit *gizon aundiya*,  
eta zein dan jaun ori?  
*Mediku txikiya*.

*11 Marzo 900.*

*Publicado: La Voz, 2 Marzo 900.*

## **Bitori Larrea-ri bere egunian**

---

Gaur goizian jaiki ta  
bere-beriala  
igarri det, Bitori,  
egun ona dala;  
argatik bigaldutzen  
dizut diesola,  
zuri ukatu eziñ  
dalako iñola;  
desio det pakia  
izan dezazula,

Jainkoak osasuna  
eman derizula,  
familiyan txit ondo  
izan zaitezela,  
zeruan aingeruak  
oi diran bezela,  
ta kontentu gelditzen  
da... *Pepe Artola*.

*23 Marzo 1900.*

## Pedro Sopelarte-ri bere egunian

---

1

Gaur da egun aundiya  
Aita Pedorena,  
zeru eder ortako  
porteruarena;  
zuk ere nola dezun  
beraren izena,  
berak eman deizula  
bear dezun dena.

2

Desio dizut poza  
ta paketasuna,  
etxeko denarekin  
zoriontasuna,  
biyotzian pozkida  
ta gozotasuna,  
eta urte askuan  
ere osasuna.

*29 Junio 1900.*

## “Gurdi-berri”

---

Meke, Bautista Uranga,  
Pedro Sopelarte,  
“Gurdi-berri” moldatzen  
zerbait egiñ dute:  
ogi aundiya etxera  
sartu ez badute,  
oroitza ona betiko  
artua daukate.

Oien bearrak ziran  
oso egokiyak,  
borondatez egiñik  
beren lantegiyak;  
oiek izandu ziran  
gurdi gidariyak,  
ala ezagutzen du  
beintzat Donostiyak.

*Pedrok*

*Pepék*

*29 Junio 1900.*

## On Jose Loidi ill da!

---

1

Jaungoikuaren Fede santuan  
jaiua eta aziya,  
bear bezela Beraren lege  
denak ondo ikasiya;  
Beragatikan pozik emango  
zenuben zure biziya,  
pare gabeko birtuteakin  
bear bezela jantziya,  
borondate ta eman naia zan  
zure izate guziya,  
ill zera eta makiña bati  
badatorkiyo antsiya!

2

Mesede pranko beartsuari  
egiñ ziñion munduan,  
zenbat guraso inguratutzen  
ziran zedorren onduan!  
Amaika malko txukatu dezu  
zapitxo baten moduan!  
Jaïnoak goian erukirikan  
zure lan onak goguan,  
eta ordaña bear bezela  
Ark nola ematen duan,  
leku on baten jabe egiña  
izango zera zeruan!

*2 Julio 1900.*

*Publicada en La Constancia,*

*3 Julio 1900.*

## On Pablo Sarasate-ri

---

1

Naparroako seme argi au  
zeiñ dan munduari galde,  
erantzuteko alde denetan  
pozez zaleturik daude;  
bada aguro esango dute  
batere dudarik gabe,  
ikusirikan nola dan Pablo  
iaiotasun denen jabe,  
bioliñ jotzen jaun auxen dala  
eguzki pian errege.

2

Erretxiñolen eztarri fiñak  
kantatzen duben modura,  
begiratuaz Egilleari  
oso goxoro zerura,  
ala berian zaitu zu Jaunak  
erakarri bai mundura,  
orniturikan pare gabeko  
jakinduriya burura,  
ariyaztera aingerutxuen  
kantu gozo eder ura.

3

Ain da ederra zure doaia,  
gañera jakintasuna,  
non dirudiyen zeru doñua  
zedorrek jotzen dezuna!  
Zu entzutian biyotzeraño  
sartzen da gozotasuna,  
mundu guziyan zabaldua da  
bai zure maisutasuna,  
Jaungoiko onak eman deizula  
luzaroko osasuna.

*Publicada en "Sarasate",  
Julio de 1900. Pamplona.*



## Bateltxuan

---

1  
Atsegiñez beterik  
itsas zabalian  
goxo-goxo gabiltza  
gure batelian,  
pozez gure batelian.

2  
Arki gera zorion  
pozkiada betian,  
olatuak zirrika  
*plaxt* datozenian,  
gugana datozenian.

3  
Bateltxuan arkitzen  
geran bakoitzian,  
poza sentitzen degu  
gure biyotzian,  
poza gure biyotzian.

4  
Aize goxo legunak  
*xarrast* badijuaz,  
beren *plaxtaran* guri  
arpegiya juaz,  
gure arpegiya juaz.

5  
Siraskatxo leguna  
ariñ bat bezela  
olatuak dantzatzen  
baitigu batela,  
arin dantzatzen batela.

5  
Eta gaitubengan  
urak aideratzen,  
gure barrena pozez  
zaigu zabaldutzen,  
pozez zaigu zabaldutzen.

6  
Egaztiyak pasatzen  
dirade aidian,  
agur egiñaz gure  
batelen parian,  
gure batelen parian.

7  
Ikusten da eguzki  
sutsua urpetzen,  
eta izarrak *diz-diz*  
zeruan azaltzen,  
izarrak *diz-diz* azaltzen.

9

Illunabar aldera  
*ángelus* jotzian,  
tente jarritzen gera  
denok buru-utsian,  
tente denak buru-utsian.

10

Jaunari grazi onak  
ematen dizkagu,  
aiñ ongi bateltxuan  
geralako ibildu,  
ongi geralako ibildu.

Bertso auek bi tokitan daude Pepe Artolaren esku-idatzian. Aurrena, leenengo iru bertsoak, zenbait aldaketarekin; eta «*Música de Mendelsson, coro a voces. Publicada en Euskalzale, agosto 1899*».

Eta ondoren, beste orrialde batean, saillaren amar bertsoak, or goien eskeintzen ditugun bezela, eta ondoren beste argibide auek:

*9 Diciembre 1900.*

*En La Voz, 10 Diciembre 1900.*

*Euskal Erria, Mayo 92.*

*Pueblo Vasco, 16 de Septiembre 1914.*

## Nere izarra

---

1  
Amoriyozko izar  
ederra zu zera,  
txinparta sartu dezu  
nere biyotzera;  
barrena dijuakit  
neri kiskaltzera,  
arren!, saia zaitia  
gar au itzaltzera.

2  
Aingeru zoragarri  
parerik gabia,  
itzal zaidazu azkar  
barrengo labia;  
zure amoriyua  
daukat nik gordia,  
zu zerade bai nere  
biyotzen jabia.

*27 Enero 1901.*

*Ibaizabal, 29 Marzo 1902.*

*Vasconia, 20 Mayo 1902.*

## Dugiols-i oroitza

---

1  
Gaur Tolosarrak onratu nairik  
Dugiols seme on argiya  
izandu zana bere denboran  
pizkorra gudalariya,  
ipintzen zaio erritarraren  
eskuz lenengo arriya,  
aren gañean egiñ dezaten  
bere ekantza berriya,  
izan dediyen edertutzeko  
bera jaio zan erriya,  
eta gañera beraren seme  
denen oroimengarriya.

2  
Emen, bai, Dugiols lurperatua  
laister zaigu azalduko,  
erritar denak biyotzarekiñ  
dute oso goratuko;  
orren egiñtza denak orduan  
dirade gogoratuko,  
bere kondaira ederrak pozez  
baitirade oroituko,  
aiñ biyotzean zure egintzak  
ditugu beintzat artuko,  
zeñak ez diran gure barrundik  
sekulan ere aztuko.

*Otsaillaren 4an, 1901. Se depositó esta composición en la caja de la estatua en Tolosa, el día de la colocación de la primera piedra, el día 4 Febrero 1901. En La Unión, 5 Febrero 1901.*

## San Jose

---

Gaur da San Jose egun aundiya, usai ona dariyona,  
munduan dan gozuenan, zeñak banatzen duben goxoro  
birtute onez ornitutako mundu ontan zoriona;  
Aita gloriosuena; zuk alaitutzen dezu luzaro  
Birjiñarentzat senartzat Jaunak kemen gaberik dagona,  
aukeratutakuena, zeradelako laguntzallia  
Jesus onaren munduko Aita, eziñ esan ainbat ona;  
gidatzallerik onena, zuregan pozez makurtutzen da  
zuzenbide ta zerbitzurako esturan dagon gizona,  
Berak ipiñi zubena. dakiyelako alaitzen dala  
Zu zera, Jose, bertutearen lenago motel egona;  
lorerikan ederrena, eriyotzeko trantze estuan  
begiratutzez asper eziñik larrari arkitutzen dana,  
beti egon litekena; bere begiyak jiratzen ditu  
zeruko intzak oso goxoro laguntza billa zugana;  
bedeinkatzen zaitubena, zuk pizkortutzen dakizu gure  
zu zera arri sendo, irmea, barrengo larritasuna,  
zutiturikan zaudena, tentetzen dezu kemen gabe ta  
bere gañean ager dediyen gure eroritasuna;  
argiya fedearena; zu zera gure poz emallia,  
ala berian tente ta prestu zu bai atsegintasuna;  
garbitasunen omena; zu zera gure asnase gaia,  
zu zera argi dizdizariya zu bai gure osasuna;  
parerikan eztubena, zu zera gure gidatzallea  
aiñ egokiya, aiñ mirariya, lagundutzen dakizuna,  
aiñ indartsu ta omena, zeruetatik begiratuaz  
pekatariyen biyotzetara guri laguntzen dezuna;  
printza sartutzen dubena; gaur biyotzetik benetan, Jose,  
zu zera aita eta maisuba, eskatutzen dizuguna  
ardi mantso Jesusena; da eskariya amoriyozko  
zu zera guri erakustzalle gozua eta leguna,  
zeruko bide zuzena. laister etorri dedilla gu or  
Zu zera menda belar goxua zuganatzeko eguna.

Donostiyán, Martxoén 19an, 1901an. *Publicada en*  
El Correo de Guipúzcoa, 19 Marzo 1901. Pueblo Vasco, 19 Marzo 1914.

## Euskal izaera

---

Jaun onak zerutikan  
lagun bezaiote  
oraiñ bezela izaten  
bizi diran arte.  
Aur baten biyotzetik  
entzun lezazkite  
gaur esan nairik dauzkan  
zenbait borondate.

Euskal oitura eta  
usariyo lenak,  
mundua dan ezkerro  
jariyak daudenak,  
zeñak kentzen zituzten  
naigabe ta penak,  
nai ditugu len ziran  
bezelaxe denak,  
gorde zaizkigun lege  
guraso zarrenak,  
errespeto aundiko  
jakintsu aienak,  
ta legearekin bat  
len-lengo omenak,  
ain gozo maitaturik  
berak zituztenak,  
munduan ezagutzen  
diraden onenak.  
Aiek ziran poz gaiak  
euskal semienak,  
aundi, txiki, aberats  
eta pobrienak;  
aiek bai ekartzalle  
argi zuzenenak,

lur maite fedetsuak  
laguntzallienak;  
aiek alaitzen zuten  
guziyen barrenak,  
banaturik gugana  
beti zori onak.  
Oraindik gure lurrak  
badauzka zaiñ onak,  
tentetu bear dira  
etzanda egonak,  
zutitu ta edertzen  
saia gaiten denak;  
guk ere borondate  
emen dauzkagunak  
dira jatorrak eta  
bizi legunak.  
Bizi bitez, bai, bizi  
beti euskaldunak  
eta oitura ederrak  
lendik ditugunak.

Euskal festak onratzen  
dute probintziya,  
eta ala berian  
euskaldun guziya;  
urtero siñalatzen  
dute bai erriya,  
izan dediyen oso  
ispillu garbiya,  
zeñetan agertzen da  
oitura jarriya,  
eta ala berian  
festaldi berriya.

Aurten siñalatua  
baita Azpeitiya,  
arkitzen dana poz ta  
onorez jantziya;  
argatik gaur egiten  
du pozez josiya  
datorren guziyari  
ongi etorriya.

*19 Mayo 1901.*

*En Ibaizabal, 12 Enero 1902.*

*En La Vasconia, 10 Mayo de 1903.*

*Euskal Erria, 30 Mayo 1904.*

**Zu ere bai!**

**On Kandido Soraluze-ren aur Karlitos jaio eta  
beriala ill zanari.**

---

1  
Lore polit eder bat  
sortzen dan modura,  
ala sortu ziñan zu,  
Karlitos, mundura;  
aingeruak bildurik  
zure ingurura,  
berarekiñ eraman  
zaituzte zerura.

2  
Konsuelitori agur  
egiñik aurrena,  
aita maitia eta  
amatxori urrena,  
egan pozez joan zera  
zeruben barrena,  
Nikolaxito eta  
Josetxorengana.

*1º Junio 1901.*

## Jesusen Biyotzari Himnoa

---

### Kantaurrea

Guazen denak Jesusen  
Biyotzen aurrera,  
bere aurrean pozez  
belaunikatzera.

1  
Zure Biyotzen doaiak ditu  
zeru ta lurrak batutzen,  
zerubetako grazi guziyak  
dituzulako artutzen;  
Biyotz on orrek ditu gizonen  
barrenak oso xamurtzen,  
dakizulako mundutarrari  
onaren onez barkatzen.

2  
O Jesus, zabal zazu  
guretzat Biyotza,  
Zugan nai degu etorri  
utzirikan lotsa;  
Zuri nai degu egiñ  
betiko oroitza,  
Zutzat gure anima,  
gorputz ta eriotza.

3  
Biyotz aundi ta sagradu ori  
osoro dezu zabaltzen,  
eta eztiya bezin gozoa  
gureganuntza agertzen;  
zure oñetan pekatariya  
pozez baita makurtutzen,  
sendagai onak Zuregandikan  
ditubelako jasotzen.

4  
O Biyotz amoriyoz  
ornitutakua!  
O Biyotz grazi onez  
txit betetakua!  
O Biyotz zumorikan  
onenetakua,  
gizonen esperantza  
egiyetakua!

*22 Junio de 1901.  
Ibaizabal, 29 Junio 1902.  
Pueblo Vasco, 7 Junio 1912.*

## Bizi bedi euskera Nere lagun zar Juan Joxe Arostegiri donkitua.

---

1  
Norbait dagoenian  
barrendikan miñez,  
bere buru pisua  
arindu eziñez,  
edo bere odolak  
oso irakiñez,  
beriala oroitzen  
baita sendakiñez,  
eta deitutzen diyo  
borondate fiñez.

2  
Loretxo bat badago  
erdi igartua,  
bere zuztar sendoa  
aski agertua,  
zañetako zumoa  
oso agortua;  
daukalako lur dena  
gutziz gogortua,  
nai luke preskatuta  
egon zimaurtua.

3  
Ontziyan dabiltzanak  
itsaso aundiyan,  
seaska bat bezela  
bagaren erdiyan,  
iya jira emanaz  
estura lariyan,  
besterikan ez dute  
beren memoriyan:  
galdu gabe sartzia  
guziyak erriyan.

4  
Tximist eta trumoiak  
diranian lertzen,  
kazkabar, aize miñak  
ere txistu jotzen,  
diranian eudi ta  
jasa denak batzen,  
eta badu mendiyen  
norbait arrapatzen,  
estalpia besterik  
ez du desiatzen.

5  
Ama batek badauka  
magalen gañian  
aurra miñez asnasa  
artu eziñian,  
edo odol mindua  
daukala zañian,  
pozez laguntzen diyo  
ark alegiñian,  
biyotzeko indarrez  
al duben añian.

6  
O euskera dontsua,  
leial ta umilla,  
inguratu zaizuna  
gaitz ta larri pillá,  
egon zera etzana,  
triste, erdi illa,  
daukazula barrenen  
neke ta naspilla,  
abiyatua zera  
sendakiñen billa.



7  
Ardi mantso bigun bat  
bezela etzinta,  
asnas gozo nai diña  
eratu eziña,  
egon zera zedorren  
buruaz etsita,  
bazeundeke bezela  
ezurak autsita,  
edo erru txar denak  
gogorki eutsita.

8  
Seme onak entzunik  
zure antsi miñak,  
biyotzaren erditik  
benetan egiñak,  
bagatoz, Ama, pozez  
euskal seme fiñak;  
zureganatzen gaitu  
odol eta griñak,  
egitera txit pozez  
gure alegiñak.

9  
Guk zaitugu, euskera,  
guk bai sendatuko,  
guk dizkitzugu mami  
denak sendotuko;  
fedian seme onak  
gerade bilduko,  
odolarekiñ denak  
degu lagunduko,  
mundua dan artian  
etzera galduko!

10  
Bildu gaitian bada  
euskaldun guziyak,  
aberats ta pobreak,  
aundi ta txikiyak;  
sendatu zaizkiyogun  
Amari zauriyak,  
estali bere sustrai  
erdi ageriyak,  
eta kendu barrengo  
estura larriyak.

11  
Preskatu zagun lurra  
legortua iya,  
ase zaiogun kontuz  
daukan egarriya;  
lur gozo asko eman  
kendurik arriya,  
eskeñi gure odol  
eder ta garbiya,  
argitaratu dezan  
loretxo berriya.

12  
Euskera biziko da  
pozez ta pakian,  
laguntzen badiyogu  
guziyok batian;  
beregianatu gaiten  
txit indar betian,  
bageundeke bezela  
baturik katian,  
zerua eta lurra  
diran bitartian.

13

Eutsi sendo, bai, eutsi  
zenbat estu obe,  
euskal seme leialak  
izango gerade;  
gure laguntzan zazpi  
probintzi badaude,  
aiekiñ bat gu ere  
borondatez gaude,  
guk ez degu bizi nai  
euskararik gabe!

14

Apaizak pulpitotik,  
eskolan maisuak,  
siraskako aurrari  
beren gurasoak,  
saiatu erakusten  
euskaldun pausoak;  
euskarari zabaldu  
biyotz ta besoak,  
barruratu beraren  
oitura gozoak.

15

Maita zagun zeruko  
Jaun eta Jabia,  
guziyen Egillia,  
denen Erregia;  
aitortu zagun pozez  
Beraren legia,  
antziñetan bezela  
euskaldun jendia  
izan bedi barrenen  
dubela fedia.

16

Izkuntz pare gabia,  
donsua zu zera,  
mundua dan artian  
galduko etzera;  
ez bildurtu etsaiaz,  
baizikan aurrera!  
Zure laguntzan pozez  
denak emen gera,  
oju egiñaz irme:  
«Bizi bedi euskera!».

*30 Junio 1901.*

*En El Correo de Guipúzcoa,*

*13 Octubre 1901.*

*Euskal-Erria.*

*Ibaizabal, 5 Julio 1902.*

## Libertadia!

---

O zeñen ederra dan  
libertade ona!  
Ori da poz, atsegiñ  
eta zoriona!

Txori polita eruki arren  
kaiol onian gordia,  
jana ta erana oso aukeran  
ezen faltik gabia,  
beti goxatzen aritu arren  
festak egiñaz jabia,  
alaz guziyaz ark desio du  
gozotasun bat obia:  
gau eta egun pentsatzen dagon  
kanpoko libertadia.

Libertade gozua  
gauzik ederrena,  
zuk alaitutzen dezu  
biyotzen barrena.

Txoriyen gisa nai degu libre  
izan beti euskaldunak,  
oso utzirik kaiol, erreja  
eta kate ditugunak;  
batu gaitian guraso, anai,  
adiskide ta lagunak,  
biyotzetikan libertadia  
pozez maitatzen degunak,  
pake onian igarotzeko  
munduko azken egunak.

*En La Voz, el 16 Die. 1901.*  
*Euskal-Erria, 10 Enero 1902.*  
*La Vasconia, 10 Abril 1902.*  
*Pueblo Vasco, 29 Dicie. 1918.*

## On Felix Maria Samaniegori bere ildako eunkidan

---

1  
O zeñek lezakean  
izan luma fiña,  
txorrotx, leguna eta  
biziro berdiña,  
izkribuz azaltzeko  
zuk merezi diña;  
bañan naiz izan arren  
eskas ta ariña,  
alaz guztiz egingo  
det nik alegiña.

2  
Egun urte oraintxe  
dirade ingura  
Euskal Erriyan sortu  
ziñala mundura.  
Arabako Laguardia  
da seaskatxo ura,  
berak dauka poza ta  
berak dauka gura,  
an sortu ziñalako  
lorien modura.

3  
Zure izena zeñek  
ez du ezagutzen?  
Jaio orduko batek  
non ez du entzuten?  
Lendabiziko letrak  
astian ikasten,  
denen aurrera zera  
poliki azaltzen,  
eta gure zentzura  
goxo-goxo sartzen,

4  
Jakindurizko itzak  
eta sententziyak,  
baleudeke bezela  
elkarri josiyak,  
azaldutzen dituzu  
ederki jantziyak;  
zumo onez beteak  
eta egokiyak,  
argiratu ziñuzen  
zure ipuiyak.

5  
O zer ikasbide ta  
buru argitzea  
dan zure ipuiyak  
irakurritzea!  
Naikua da eskuan  
bat beiñ artutzea,  
eta berari pozez  
begira jartzea,  
eta lo dan zentzua  
azkar esnatzea.

6  
Lore gañera sortzen  
dan bezela intza,  
eguzkitara egin  
oi dezan dizdiza,  
alaxen sortua da  
zedorren egintza;  
ordu ezkeru zure  
izkribu ta itza,  
elkarrekin mundua  
korritzen dabilta.

7

Egintza oiek dute  
sariya merezi,  
dituzulako gauza  
gozoak berexi;  
arrazoi burutsubak  
oi dira ikusi,  
ispillutzat lur ontan  
dizkigutzu utzi,  
ditzagun orriyetan  
gauz onak ikasi.

8

Zure izena ez da  
sekulan galduko,  
baizik beti da oso  
aundi azalduko;  
askok pentsamentuan  
zaitu erukiko,  
marmol legunak ere  
dira ekarriko,  
eta bertan brontzezko  
letretan jarriko.

9

Poztu liteke, poztu,  
Laguardiako erriya,  
ta arrekin batian  
Españi guziya;  
egin bear litzake  
talluntza berriya,  
zeñetan azaltzen dan  
ain seme aundiya,  
izan dedin guziyen  
begiragarriya.

*2 Septiembre 1901.*

*En Bellas Artes.*

## Ongi etorri

---

1  
Gaur Azpeitiya pozez  
dago irrikitzen,  
goxoro ditu begi  
biyak irikitzen;  
magala zabaldurik  
txukun da arkitzen,  
itz legunakin nola  
duben bada deitzen,  
kanpotar denak ditu  
beregana biltzen.

2  
Nola dan antziñatik  
ondo ikasiya  
ta gurasoengandik  
gozoro aziya,  
arki da apaiñ-apaiñ  
soiñ onez jantziya,  
kanpotikan onera  
datorren guziya  
emen izango baita  
ondo ikusiya.

3  
Poza sortutzen zaigu  
biyotzen erdira,  
ikusirikan nola  
datozen errira;  
betoz kanpotar onak,  
betoz Azpeitira,  
Aita San Inaziyo  
sortu zan kabira,  
emen seme bezela  
gaur izango dira.

4  
Zori onian dira  
euskal festak egin,  
batutzeko seme on  
denak elkarrekin;  
len bezela nai degu  
lege onarekin,  
oitura, usariyo  
antziñakuakin,  
gure guraso zarrak  
zituztenarekin.

5  
Euskal Erriko seme  
guziyak batian  
borondate osuan  
elkartu gaitian,  
bageundeke bezela  
loturik katian;  
orla biziko gera  
pozez ta pakian  
zori onez beterik  
gure lur maitian.

6  
Gure barrenak daude  
pozez zabaldurik,  
orrenbeste euskaldun  
emen ikusirik;  
pake santu onian  
onela bildurik,  
segi zagun aurrera  
guziyak baturik,  
gure izkera ederra  
gutziz maitaturik.

*15 septiembere 1901.*

## Damuba

### On Hilario Saenz eta Moreno

### Mexikon dagonari.

---

Zenbat gazte joaten da  
urrutiyetara,  
sorterriya utzi ta  
Ameriketara,  
ango ezagututzen  
eztan lurretara,  
ero-ero jostallu  
zernai aldetara,  
aberastasun pillak  
diran lekutara!  
Bañan iritxitzian  
lur berriyetara,  
malkoak sorturikan  
bi begiyetara,  
konturatutzen dira  
arrazoietara.  
O zenbat pentsamentu  
beren burutara!  
O zenbat pena samíñ,  
bai, biyotzetara,  
esanaz: «Gu nork jarri  
gaitu onetara?  
Zeñek astindu gaitu  
amets obetara?  
A, ez bagiña etorri  
gu lur abetara,  
ametsetako leku  
urrezkuetara!  
Zeiñ liteken jiratu  
gure mendietara,  
Euskal Erriko lur on  
eztitsubetara,

parerikan gabeko  
baserriyetara,  
txuri, txukun ta tente  
daudezenetara,  
ibai, erreka txur-txur  
ain garbiyetara,  
soro, baso, belardi  
ta zelaietara,  
arboldegi sendoak  
duben oñetara,  
gur sortu giñan kabi  
gozo aietara!  
Al baliteke jira  
egatuaz ara,  
gaur bertan jiratuko  
giñake bertara!».   
Zenbat txoro oraindik  
badabil arrua,  
txori eta ametsaz  
beterik burua!  
Sorterriya utzi ta  
kanpora dijua,  
ustez an kalietan  
dalako dirua;  
obe dezute utzi  
orlako asmua,  
ez dezazuten izan  
betiko damua!

*19 Octubre 1901.*  
*En El Correo Gui., 29 Octubre 1901.*  
*Euskal Erria, Junio 1918.*

## Lege zarra

---

Antxiñetako usariyoa da Donostian Errege bezperan kantari etxerik etxe ibildutzia; urtero izaten dira ondo jantziyak errege moduan ibiltzen diranak, artzai-kantak kantatuaz; bañan beiñ ere ez da falta joxemaritarrik umore onez ibiltzeko musua zikinduta *mokollo* billa dabiltzanak edo legorrian arrantza egiñ nayian.

Aurten zebiltzan batzuberi begira egondu nitzan, eta gañera gogoan artu nituben aiek kantatzen zituzten bertsoak. Irakurlariak jakin nai badute, emen ezarriko ditut. Ara nola diran:

1  
Urrutitikan gatoz  
txit errukariyak,  
miseriaz betiak,  
oso egariyak;  
bustiko ote diran  
emen eztarriyak,  
esperantzetan gaude  
gu denak jarriyak.

2  
Txit lotsatiyak gera  
onela jartzian,  
ikaratutzen gera  
norabait sartzian;  
bañan beon dirua  
eskuan artzian,  
lotsa denak utzitzen  
ditugu atzian.

3  
Ostatu ederrian  
nairikan apaldu,  
Ezkurrenera denak  
gera len azaldu;  
bañan an ezagutu  
gaituztenian gu,  
makillazoka azkar  
gaituzte bigaldu.

4  
Salcedo-k esan digu  
orla ikusita,  
ez penaz egoteko  
luze iritzita;  
Ponsol-enera bigar  
egiteko bixita,  
an jarko gaituztela  
ederki jantzita.



5  
Ankak oso bustiyak,  
gorputzetik otza,  
barrengo babarrunak  
naiko soñu otsa;  
dardar sugurren punta,  
gañera kokotza,  
berriz izango degu  
mokua zorrotza.

6  
Arrastaka nekian  
jira eta bira,  
beon aurrian gaude  
nolabait begira;  
gutzaz aguro beok  
kupitzen ez badira,  
eramango gaituzte  
Miserikordira.

### Estribilloa

Onera sartu gera  
guziak eskera;  
ez izutu gurekiñ,  
gaiztuak ez gera;  
beongandik gauz ona  
degu gaur espera,  
ondo zelebratzeko  
Errege bezpera.  
*Agirandooooo!*

Alde batzubetan uxiatu ta bigaldu arren, beste batzubetan  
naiko farra eragiñazten zuten. Azkenerako kraskatu ziran ta eziñ  
kantaturik gelditu ziran; orduan diyo batek:

–Aizak, Erramun: ezin diat *kantatu*.

Ta bestiak diyo:

–Ni ere ez nak *kontentu*.

Irugarrenak:

–Obe diagu *kontatu*.

Esan ta egin, partilla egin zutenian, sakabanatu ziran, beren  
mutur zikin ta guzi, birian oju egiñaz:

–Agirandooooo!

*Dic. 1901.*

*En Ibaizabal, 26 de Enero, 1902.*

*Baserritarra, 4 Enero 1908.*

### I

#### Jaikiera

Azaldu dira eguzkiyaren  
urrezko printza biziya.  
baztar guztiyak dizdiraturik  
beraren suzko argi yak;  
esna zaitezte, euskaldun baso,  
zelai, tontor ta mendiyak,  
zabal musuak *txurtxur* egiñaz  
ibai ta erreka garbi yak,  
pozturik oso zeru aldera  
ipiñi zuben begi yak.

Urrutitikan aditutzen da  
ezkill dorreko *dang* otsa,  
ariyaziya Jaungoikuagan  
izan bear dan oroitza,  
alaitasunez oso beterik  
euskaldunaren biyotza,  
oso benetan egiten baitu  
eguneroko otoitza.

Esna zaitezte basoetako  
lotan zauten egazti yak,  
Euskal Erriko seaskatxoan  
arki zeraten guzti yak;  
altxa ta denak pipirripika  
kantatu soñu ezti yak,  
alaitutzeko lur gozo eder  
onek dauzkan alderdi yak.

Mantu illunak oso botarik  
eguna baita argitzen,  
gozotasun ta giro ederra  
ditu berekiñ ekartzen,  
zer zori onez barren guzi yak  
diran orduan arkitzen!

## II

### Artzai kanta

Zer ederrak ageri  
diraden mendiyak!  
O zer pare gabiak  
ango alderdiyak!  
Ala berian ere  
daude belardiyak,  
bertan pozez jostatzen  
dabiltza ardiyak,  
*dingilin-donga* joaz  
beren zintzarriyak.

Artzaia zoraturik  
ari da kantari,  
begiratuaz pozez  
artalde onari,  
beraren eskubetan  
azitakoari,  
bere beti-betiko  
lagun maiteari.

Gozoro dator  
ipar aizia,  
baso tartetik  
egan pasia;  
ain da gozoa,  
ain da azia,  
dirudiela  
zeru asnasia.

Ezin aserik  
daude begiyak,  
ikusirikan  
alde guziyak  
ain apaiñ eta  
ain egokiyak.  
Au da zori on  
pare gabia,  
au da zerua,  
au da pakia!

### III

#### Bizi bedi Euskal Erriya

Arbol santua pozez  
degunak maitatzen,  
beti-beti biyotzez  
zaitugu aitatzten;  
zañeko odolakin  
degu guk aitortzen,  
arren oinpera pozez  
gerade makurtzen,  
eta malko gozoaz  
pozez bedeinkatzen.

Euskara, gaur eskeintzen  
dizugu guziya,  
besterik ezin bada  
geronen biziya;  
zuretako daukagu  
txit odol garbiya,  
denak baturik oraiñ  
egin zagun deiya:  
Bizi bedi euskara  
ta Euskal Erriya!

Odol, zañak, malkoak,  
indarrak, kelmenak,  
naitasun, jakiñduri,  
asnasa, omenak,  
amoriyo gozoak,  
poz ta zori onak,  
munduan izan leiken  
gauzarik onenak,  
zuretako eskeintzen  
ditugu gaur denak.

Ilbeltzan, 1902an.  
*Ibaizabal*-en, otsailen 16an,  
1902an.

## Ijito festa

---

1  
Ijito zesto beziñ ederrik  
ez da, ez, iñon azaltzen;  
saski, otarrak zumitzarekin  
egiñak ditugu saltzen.  
Alki zar denak lastuarekin  
ondo ditugu moldatzen,  
kirten, belarri, azpi berriyak  
txukun diozkagu jartzen,  
gu bezelako langillerikan  
ez da munduan billatzen.

2  
Otz eta beruakiñ  
ez gera bildurtzen,  
gure azalik ez da  
beñere zimurtzen;  
edozer baztarretan  
baigera ibiltzen,  
eta diru askotxo  
baldin bada biltzen,  
orduan denak ondo  
gerade konpontzen.

-Zesto ederrak, andriak!

3  
Asto, mando ta zakurrik bada  
errendi eziñik jartzen,  
berialaxen sendatutzera  
gugana dute ekartzen;  
beren zaputzen ordaingarrizat  
ederrak dituzte artzen,  
mutur, bizkarrak guraiziakin  
azkar dizkagu leguntzen,  
zapi zuri ta jaboyik gabe  
ditugu prest afaitatzen.

4  
Gauza txarrik etzaigu  
jateko gustatzen,  
dagon lekutik ezer  
eztakigu artzen;  
beñere ollorikan  
eztegu ostutzen,  
baizik gu ikustian  
pozez dira jartzen,  
eta berak korrika  
baitira etortzen.

-Zeñek moztu bear du, zeñek?

5

Nolabait ere zurrut egiñaz  
igarotzen da denbora;  
negua bada, zubi azpira  
su pixka baten ondora,  
ikusitzera ea *lagunik*  
azaldutzen dan kolkora;  
udaran berriz naiz ez erantzi  
atorra ta alkandora,  
gizon ta andre pipa ta guzi  
*zanba!* denak erriyora.

6

Alanbratzekorikan  
erri ontan bada,  
edo ontzi konpontzen  
iñola al bada,  
guri ekarri gabe  
ez beñepin laga;  
langillia erriyan  
txit komeniya da,  
erri ontan nai degu  
pasa gaur guk gaba.

–Alanbratzekorik nork du?

1902

*Eibar-en argiratua,*  
1902-ko Iñauteriyetan.  
*Eco de la tarde,*  
29 Febrero 1908

## Menditarra

---

1  
Mendi tontorrak dira neretzat  
lekurikan ederrenak,  
mendi punta ta arkaitz zorrotzak  
ditut lagunik onenak;  
mendiak dizkit neri aztutzen  
izaten ditutan penak,  
pentsamentu txar, erru gorriak,  
naigabe, tristura lenak,  
barrengo pozoi, aje, izuak  
eta atsekabe denak.

2  
Auntzak mendia nai duben gisa  
bere gozotasunian,  
zeña zintzilik ibildutzen dan  
arkaitz mutur-muturrian,  
ala berian sentitutzen det  
poza nere barrenian,  
mendi altsuan, zabal-zabalik,  
izaera ederrian,  
zeru aldera begira pozez  
bakarrik nabillenian.

3  
Ez det menditik entzuten ezer  
erriko durrunbadaurik,  
karraxi, otsa, marrua, bulla,  
soñu ta zalapartarik;  
ez da, ez, emen nabaitzen oju,  
deadar eta oiurik,  
birtute onen galgarrirako  
sortzen dituzten gauzarik,  
emen biyotza lasaia daukat,  
ez det barrengo kezkarik.

4  
Emen bakarrik, zer sosegua,  
zenbat eta altuago!  
Onlako poz ta alaitasunik  
be-aldian bai al dago?  
Iruitzen zait zeru urdiña  
askoz dagola bertago,  
txori txikiyak ere kantari  
esnatzen dute goizago,  
zorian, pake, gloria, dena  
neretzat ementxen dago.

5  
Eguzkiaren printzak lenago  
alaitzen dute mendiya,  
musu zabalik jartzen danian  
apaindutzen du guztiya;  
miragarritzko gauzak ikusten  
ezta aspertzen begiya,  
nabaitutzen da aize gozoa  
gutziz osasungarriya,  
ipar aldetik egan jostatzen  
xaplastaran etorriya.

6  
Sasi tartean lore ederra  
sortu izan dan modura,  
ala berian sortua naiz ni  
euskal mendian mundura:  
ez du desio nere barrenak  
erriko ots aundi ura,  
uskeri eta aiziak sartzen  
dituztenak maiz burura,  
emen bakarrik nai det nik bizi  
begiratuaz zerura.

*25 Marzo 92 Ibaizabal-en, 6 Abril 1902, Euskal-Erria, 15 Mayo 1906.  
Baserritarra, 25 Agosto 1907.*

## Ongi etorri

---

1

Jaungoikuaren seme leialak  
biyotza fedez beterik,  
nai ez dutenak Egillearen  
maitetasuna besterik,  
aberats, pobre, aundi, txikiyak  
anaitasunaz baturik,  
asmo eder bat txit indartsua  
biziro pozez arturik,  
Lur Santubara joan ziraden, bai,  
beren biotzak pozturik.

2

Legor ta itsaso bide luziak  
pasarik dira abiya,  
irten ziraden leku berera  
euskaldun talde guztiya;  
Jaunak bidean banatu diye  
denari bere graziya,  
orain nairikan guk erakutsi  
geren naitasun aundiya,  
biotzarekin pozez egiten  
degu: Ongi etorriya!

3

Urrutiyako baztar danetan  
pozikan iritxi dira,  
an egonduak dira Jaunaren  
izan lekuai begira.  
Amaika malko gozo azaldu  
zaie txirriyan begira,  
denak baturik fede santuan  
anai ibilli baitira,  
orain guztiyak osasunakin  
badatoz Euskal Errira.

4

Beso zabalik arkitutzen da  
emen zuben zai jendia,  
ain pozez dago nola aurtxoak  
zaitzen duben igandia;  
aurrera beti eraman zagun  
Jaungoikuaren legia,  
ori da denen portua eta  
zuzenerako bidia,  
biyotzez oju egin zaiogun:  
bizi dedilla fedia!

8 Mayo 1903.

Escrita a la llegada de los peregrinos de la Tierra Santa.  
Recitada en la Sociedad de Obreros Católicos.



## Tolosako mendizale gazteai

---

1  
O zeñen ederra dan  
goiz-goiz jaikitzia,  
lagun zar denak pozez  
ondo elkartzia,  
mendi tontorretara  
oñez igotzia,  
an zelai ta munttuan  
lasai arkitzia,  
eta arnas gozoa  
bertan artutzia!

2  
Mendiyan gora oñez  
danian igotzen,  
ta bertan exerita  
baldin bada jartzen,  
o zer gauza ederrak  
diraden agertzen!  
Baztarrari begira  
bat ez da aspertzen,  
gozotasunez ezta  
begirik asetzen!

3  
Txori txikiyak egan  
baitira pasatzen,  
*txiu-txiu* egiñaz  
ondotik jostatzen,  
naigabe eta penak  
an dira aztutzen,  
osasunez barrena  
oso da zabaltzen,  
ontasuna besterik  
an ez da nabaitzen.

4  
Mendiyan entzuten da  
txoriya kantari,  
*pipirripi* egiñaz  
baitirala ari;  
beraxiago berriz  
kilkirrak *kri-kri-kri*,  
mitxeletak, xomorro,  
piztiyak ugari,  
jarraitutzen guztiyak  
nork bere lanari.

5  
Uzturre mendi punttan  
nor bait bada jarri,  
ta begiratu ondo  
alderdi danari,  
eziñ esan dan poza  
sortzen zaio ari;  
ta begiraten badu  
goitik Tolosari,  
seaskan lotan dagon  
aurtxoa diruri.

6  
Aurten egualdi txarra  
da uda berriyan  
ibiltzeko mauka utsik  
korrika mendiyen;  
obe dezute askoz,  
nere iritziyan,  
umore onez denak  
gelditu erriyan,  
sagardo ta mokadu  
ona dan tokiyan.

*Publicado en El Oria, de Tolosa, 13 Junio 1902.*

## Diosala (*Saludo*)

---

### **Koro**

Barrengo pozarekin  
gatoz gu kantari,  
esker emanaz gure  
laguntzalleari;  
beok mesede egiten  
duten gisa guri,  
Jaunak bigal ditzala  
ordañak denari.

1

Gure barrengo pozak  
dirade aundiyak,  
argatikan aitortu  
nai dira guztiyak;  
itxuarentzat sortu  
diran gisa giyak,  
falta dituztelako  
grazizko begiyak,  
ala dira guretzat  
letraren graziyak.

2

Eskola ez izana  
da alderdi motza,  
da itxu izatia  
beraren biyotza;  
berotasunikan ez  
baizik zentzu otza,  
tristura eta pena,  
naigabe zorrotza,  
gañera aundizian  
sekulako lotsa.

3 **Batek:**

Gazte denen artian  
naiz aukeratua,  
emen irakurtzeko  
gaurko itz neurtua;  
gure borondatia  
dago agertua,  
izan bedi biyotzez  
oju au deitua:  
Bizi bedi emengo  
Aiuntamentua (Batzarre goitua).

4

Eskolatik sortzen da  
grazizko loria,  
baratzakua bañan  
askozaz obia;  
letratan ikasten da  
Jaunaren legia,  
naitasuna, pakia,  
benazko fedia,  
pauso zuzenak eta  
zeruko bidia.

*Julio, 1902.*

## Marzelino Soroa ill da!

---

1

Irutxulotar benetakua,  
bizirot jostalariya,  
erriko xeme oso leiala  
eta iskribalariya,  
*Soka muturra, Teink, Emen dek*  
pentsamentuan jarriya,  
danboliñ zale pare gabia,  
iztun bizirot garbiya,  
San Bizenteko kosketatikan  
ikusten zuben argiya.

2

Jakinduriyan pare gabea,  
iaiu ta burutsua,  
doai ederren argitasunaz  
ornitutako zentzua;  
euskal izkera erakutsitzen  
etziñan izan antzua,  
baizikan oso izanik ona  
gu gizon dutzen maisua,  
zure izena izango degu  
denok barrenen jasua.

3

Zuri zor dizu aurren pausua  
euskarazko biltokiyak,  
zuk, bai, argitu dituzu izan  
itxu zeudezen begiyak;  
zuk aurkeztatu izan dituzu  
lenbiziko komeriyak,  
biribildurik zure ondora  
gazte talde egokiyak,  
zeñak gerora izandu diran  
beraren gordelariyak.

4

Biyotz oneko senar ta aita  
izandu zera munduan,  
guk berriz aita bañan geiago  
zure izena genduan;  
